



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko abenduaren 30a

150. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—11-24/LEY-00007. 2023ko Nafarroako Kontu Orokorren azterketa eta zentsurari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egin (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-24/LEY-00007. 2023ko Nafarroako Kontu Orokorren azterketa eta zentsurari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

2024ko abenduaren 9an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak 2023ko Nafarroako Kontu Orokorren azterketa eta zentsurari buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 178.2. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKITZEN DA:

1. 2023ko Nafarroako Kontu Orokorren azterketa eta zentsurari buruzko fiskalizazio-txostenaren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.


2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Txostena Nafarroako Gobernuari igortzea.

4. Ekonomia eta Ogasuneko Batzordea deitzea, Kontuen Ganberako lehendakariak agerraldia egin dezan, egindako txostena azaltze aldera.

Iruñean, 2024ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias



AURKIBIDEA

I. SARRERA	5
II. HELBURUA ETA NORAINOKOA	5
III. IRITZIA	6
III.1. 2023ko urteko kontuei buruzko finantza-auditoretzako iritzia	6
III.2. Legeria betetzeari buruzko fiskalizazioko iritzia	7
IV. IRITZIAREN OINARRIA	7
IV.1. Finantza-auditoretzako salbuespendun iritziaren oinarria	7
IV.2. Legezketasunari buruzko salbuespendun iritziaren oinarria	8
V. AUDITORETZAKO FUNTSEZKO GAIAK	8
VI. AZPIMARRA-PARAGRAFOA	8
VII. BESTE GAI BATZUEI BURUZKO PARAGRAFOA	9
VIII. NAFARROAKO GOBERNUAREN ERANTZUKIZUNA	12
IX. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA	12
X. AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA	13
1. GEHIGARRIA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN KONTUEN LABURPENA, 2023KO EKITALDIA	14
2. GEHIGARRIA. NAFARROAKO FORU SEKTORE PUBLIKOAREN ZEDARRITZEA	20
2.1. Foru sektore publikoa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen arabera.	20
2.2. Nafarroako Administrazio Publikoaren sektorea, Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren arabera	24
3. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA	25
4. GEHIGARRIA. SALBUESPENEI BURUZKO INFORMAZIO GEHIGARRIA	26
4.1 CAT-SAP sistemen integrazioa	26
4.2. Zerbitzuak ematea kontratu-euskarri egokirik gabe	26
4.3 Bidean eta Nafarbide sozietate publikoen sorrera	29
4.4 "Belateko tunela bikoiztea" obra-kontratua	29
5. GEHIGARRIA. ERREGULARTASUNARI BURUZKO FISKALIZAZIOAREN OHARRAK ETA AURKITUTAKO BESTE GORABEHERA BATZUK ..	30
5.1. 2023rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrak	30
5.2. NFKAren eta haren erakunde autonomoen egoera ekonomiko-finantzarioa 2023ko abenduaren 31n	37
5.3. Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioak	39
5.4 Langileria-gastuak	41
5.5 Kontratazio publikoa	50
5.6. Transferentzia arruntetako eta kapital-transferentzietako gastuak	58
5.7. Zergak, tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak	65
5.8. Beste diru-sarrera batzuk	69
5.9. Epe laburreko zordunak eta hartzekodunak	71
5.10 Diruzaintza	72
5.11. Zorpetzea eta beste finantza-eragiketa batzuk	73
5.12. Sozietate publikoak eta fundazio publikoak	76
6. GEHIGARRIA. "BELATEKO TUNELA BIKOIZTEA" OBRA-KONTRATUA	87
7. GEHIGARRIA. KONTRATAZIO ESPEDIENTEEN LAGINA	93
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK	100
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENA DELA-ETA AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA	112

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz eta 2024rako bere jarduketa-programarekin bat, kontu orokorrak fiskalizatu ditu eta aldi berean legeria betetzearen fiskalizazioa egin die Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari (aurrerantzean, NFKA) eta haren mendeko entitateei, 2023ko ekitaldiari dagokionez.

Azterketa lana 2024ko ekainetik iraila bitartean egin du auditore batek zuzendutako lantaldeak. Auditoretzako sei teknikarik eta sistema informatikoetako goi mailako teknikari batek eta erdi mailako beste batek osatu dute lantaldea. Halaber, Ganberaren zerbitzu juridikoen eta administrati-boen laguntza izan da.

Jarduketa honen emaitzak Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariari azaldu zitzaizkion, kasua bazen egokitzat jotzen zituen alegazioak aurkez zituzan, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz.

Ezarritako epea igarota, alegazioak aurkeztu dituzte departamentu horretako Idazkaritza Nagusi Teknikoak, Osasun Departamentuko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak eta Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak. Alegazio horiek txosten honetan jaso dira, Ganbera honen erantzunarekin batera.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik, eskerrak eman nahi dizkiegu NFKAko, haren erakunde autonomoetako, sozietate publikoetako eta fundazio publikoetako langileei.

Txostenaren diru-zenbatekoei dagokienez, biribildu egin dira zentimoak ez erakusteko. Datuek beti adierazten dute balio zehatz bakoitza biribilduta, eta ez datu biribilduen batura. Ehunekoak ere balio zehatzen gainean kalkulatuta daude, eta ez balio biribilduen gainean.

II. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Gure lanaren xedea izan da gai hauei buruz gure iritzia ematea:

- Ea NFKAren eta haren erakunde autonomoen 2023ko ekitaldiko kontu orokorrek, alderdi esanguratsu guztietan, irudi fidela ematen duten 2023ko abenduaren 31ko ondareari, finantza-egoerari, aurrekontu-likidazioari eta emaitza ekonomikoari buruz, aplikatzekoa den arau esparruari jarraikiz eta, bereziki, bertan jasota dauden kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta -irizpideei jarraikiz.

- Ea 2023ko ekitaldian NFKAk eta haren erakunde autonomoek egindako aurrekontu- eta finantza-jarduerak eta -eragiketak eta kontu orokorretan jasotako informazioa bat datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatu beharreko arauekin.

Gure lanaren norainokoak 2023ko ekitaldiko kontu orokorrak eta 5. gehigarrian adierazitako laginekin zerikusia duten eragiketak biltzen ditu.

Era berean, Union del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioak aurkeztu dituen eta Ganbera honek kontu orokorren testuinguruan aztertzea erabaki duen eskaera hauek ere fiskalizazio honen irismenaren parte dira:

- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuen kontuak (aurrerantzean, O-NOZ), produktibitateari buruzkoak, txostenaren 5. gehigarriaren 5.4 atalean aztertzen direnak.

- Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 36. artikulua betetze-maila, txostenaren 5. gehigarriaren 5.5 atalean aztertzen dena.

- Nafarbide sozietate publikoa sortzea eta abian jartzea. Txostenaren 5. gehigarriaren 5.12 atalean aztertu da.

Lanaren denbora-norainokoa 2023ko ekitaldia izan da; baina, kasuan-kasuan, beste ekitaldi batzuei buruz beharrezkoak izan diren egiaztapenak egin dira, ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

Gure azterketaren norainokoa zehazteko, honako hau hartu dugu kontuan:

- Kontu-hartzaitzako Zuzendaritza Nagusiaren 2024rako barne kontroleko planean 2023ari buruzko alderdi hauek jaso ziren:

- a) Munta txikiko (2. kapituluko zein 6. kapituluko) 127,88 milioiko fiskalizaziotik salbuetsitako gastu eta kontratuen finantza-kontrol iraunkorra egitea.

- b) Aldez aurreko kontu-hartzaitzatik salbuetsitako gastu hauek aztertzea: etxebizitzaren arloko eta eraikuntzaren sustapenaren arloko laguntzak (51,22 milioi), eta pertsona fisikoentzako zuzeneko laguntza ekonomikoak, bermatutako prestazio gisa arautuak (161,61 milioi). Halaber, munta txikiko dirulaguntzak¹ (137,88 milioi) eta zorpetze eragiketak berrikustea.

- Nafarroako Parlamentuaren, Arartekoaren, Nafarroako Kontseiluaren eta Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoaren 2023ko urteko kontuak Ganbera honek fiskalizatu ditu.

- Kontuen Ganberaren beraren 2023ko urteko kontuak auditoretza enpresa batek aztertu ditu.

- Sozietate eta fundazio publikoen 2023ko urteko kontuak eta legeriaren betetzea auditoretzako enpresa pribatuek ikuskatzen dituzte, Kontu-hartzaitzako Zuzendaritza Nagusiaren tutoretzapean.

- Kontuen Ganberak honako gai hauei dagokien lana egin du edo egiten ari da:

- a) Errenta bermatua: familia-unitate hartzaileen obligazioak eta enpleguan duen eragina (2019-2023).

- b) Herritarren irisgarritasuna oinarrizko osasun laguntzan (2018-2023)

- c) Despopulatzearen aurkako borroka Nafarroan: Foru Administrazioak hartutako neurriak

- d) Sodenak Parquenasari egindako ekarpen finantzarioak (2001-2023)

- e) Kontratazio publikoaren arriskuak aztertzea foru-komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan.

III. IRITZIA

Nafarroako Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion esku-menak erabiliz, NFKAren eta haren erakunde autonomoen kontu orokorrak fiskalizatu ditu. Honako hauek osatuta daude kontu horiek: 2023ko abenduaren 31ko balantzea, emaitza ekonomiko eta ondarezkoaren kontua, 2023ko aurrekontuko likidazioaren egoera-orria, eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion oroitidazkia. Halaber, aipatu araudiari jarraikiz, 2023an legeria betetzeari buruzko fiskalizazioa egin diegu NFKAri eta haren mendeko entitateei.

III.1. 2023KO URTEKO KONTUEI BURUZKO FINANTZA-AUDITORETZAKO IRITZIA

Gure ustez, "Finantza-auditoretzako salbuespendun iritziaren oinarria" atalean azaldutako egitateen eraginengatik ez bada, kontu orokorrek irudi zehatza erakusten dute alderdi esanguratsu guztietan, NFKAren eta haren erakunde autonomoen ondareari eta 2023ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez. Halaber, haien emaitza ekonomiko eta aurrekontukoak islatzen dituzte, data horretan amaitutako ekitaldiari dagozkionak, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuetako printzipio eta irizpideei jarraituz betiere (lege-esparru hori identifikatzen da oroitidazkiko "Foru Komunitateko Administrazioaren kontuen alderdi orokorrak" dokumentuan).

¹ Munta txikiko dirulaguntzat hartzen dira aldez aurretik zenbatekoa fiskalizatetik salbuetsita daudenak.

III.2. LEGERIA BETETZEARI BURUZKO FISKALIZAZIOKO IRITZIA

Gure ustez, "Legezkotasunari buruzko salbuespendun iritziaren oinarria" atalean deskribatu ditugun egitateen eraginengatik ez bada eta egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, NFKAren, haren erakunde autonomoen eta haren sozietate eta fundazio publikoen 2023ko ekitaldiko kontu orokorretan jasotako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, garrantzizko alderdi guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin.

IV. IRITZIAREN OINARRIA

Gure fiskalizazioa egin dugu kanpo kontroleko erakunde publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioei jarraikiz eta, zehazki, finantza-arloko eta zuzenbidearen araberkotasunari buruzko fiskalizazioen gaineko ISSAI-ES 200 eta 400 arauetan ezarritakoari jarraikiz. Halaber bete ditugu kanpo kontroleko organoen fiskalizazio-gida praktikoak. Arau horien indarrez ditugun erantzukizunak aurrerago deskribatzen dira, "Kontuen Ganberaren erantzukizunak" atalean, gure txostenean egiten den kontu orokorrei eta zuzenbidearen araberkotasunari buruzko fiskalizazioari dagokionez.

Fiskalizatutako entitatearekiko independenteak gara, kontu orokorrei buruzko gure fiskalizazioan aplikatu behar diren etika baldintzekin eta independentzia babestearen arlokoekin bat etorritik, fiskalizazio publikoko jarduerari buruzko araudiak eskatzen duen bezala.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia eskaintzen du gure finantza- eta legezkotasun-iritzia emateko.

IV.1. FINANTZA-AUDITORETZAKO SALBUESPENDUN IRITZIAREN OINARRIA

a) Ez dira aplikatzen beren zabaltasun guztiarekin Kontabilitate Publikoaren 2010eko Plan Orokorrean jasota dauden kontu, irizpide eta printzipioak, nagusiki zergen, tributu-zordun eta -hartze-kodunen eta ibilgetuaren kontabilitate-tratamendu egokia egitekoak. Horrez gain, badaude garrantzi txikiagoko akatsak ere kontuen edo atalen sailkapenean; horiek berekin dakarte diru-sarreraren aurrekontuaren, aurrekontu-emaitzaren, diruzaintza-geldikinaren eta balantzaren likidazioko egoera-orriaren egitura bat ez etortzea aipatutako kontabilitate-araudian ezarritako ereduarekin. Era berean, ez da aurkeztu ondare garbiaren aldaketen egoera-orria, ez eta diru-fluxuen egoera-orria ere.

b) Ekitaldian jasotako kobrantzei buruz hirugarrenen kontabilitate osagarrian eta zerga-kudeaketan (CAT) eta SAPGE21 kontabilitate-sisteman dagoen informazioa ez da behar bezala eskualdatu, eta ezin da bereizi kobrantza horiek ekitaldian sortutako diru-sarrerari edo aurreko urteetan sortutako dagozkien. Horregatik, baliteke beste ekitaldi batzuetan sortutako eskubideen kobrantzak egotea 1. eta 2. kapituluetakoko diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioaren egoera-orriko diru-bilketa garbian.

Horrek, era berean, ondorioak ditu diruzaintza-geldikinetik kobratzeko dauden eskubideen atalean eta balantzeko aurrekontu-zordunen atalean. Zifra globalak zuzenak izanda ere, ez dago haien osaeraren banakapena arrazoizkoa izatearen ebidentziarik.

c) Ez balantzean ez oroitidazkian ez da informaziorik erregistratu NFKAren eta haren erakunde autonomoen funtzionario aktibo eta pasiboen montepioak sortutako betebeharrak aktuariari buruz. NFKAk egindako azterlan eta balioespenen arabera, montepio horren prestazioak direla-eta 2024-2087 aldian izanen den kostuaren egungo balioa 1.484 milioi konstante ingurukoa da.

d) Egoeraren balantzean, ezin izan dugu lortu ebidentziarik "Ibilgetua" ataleko zenbait osagaien kontabilitate-saldoaren arrazoizkotasunari buruz –saldo hori 1.369,18 milioikoa zen 2023ko abenduaren 31n–, zeren eta hura ez baitago babestuta aplikatu beharreko kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera egoki baloratutako ondasunen inbentario orokor batean.

Ganbera honek atentzioa ematen du erakunde honek 1981eko NFKAren urteko kontuak lehen aldiz ikuskatu zituenetik agerian jarri diren a), b), c) eta d) salbuespenen errepikapenari buruz. Nahiz eta ahalegin handia egin den b) eta d) letretan adieraziko akatsak konpontzeko, horiek ezin izan dira guztiz konpondu honako txosten hau egin den datarako.

IV.2. LEGEZKOTASUNARI BURUZKO SALBUESPENDUN IRITZIAREN OINARRIA

- NFKAko departamentuek Kontu-hartzaitzako eta Kontabilitate Zuzendaritza Nagusiari emandako informazioaren arabera, 2. kapituluko –ondasun eta zerbitzuak– gastu arruntaren % 23 (211,10 milioi), 6. kapituluko –inbertsioak– 10,78 milioi eta 4. kapituluko –transferentzia arruntak– 93.429 euro dagozkie indarraldia amaituta daukaten edo kontratu-euskarri ezagunik ez duten kontratuetan oinarrituta ordaindu diren prestazioei.

- Nafarroako Gobernuak Bidean eta Nafarbide sozietate publikoak sortzeko baimena eman izanak ez ditu errespetatu baliabide publikoen esleipenaren efikazia- eta efizientzia-printzipioak, NFKAra araudian eskatzen diren antolaketa- eta funtzionamendu-printzipio orokor gisa.

- 76,09 milioitan (BEZa barne) esleitutako “Belateko tunelaren bikoizketa” izeneko obra-kontratua esleitzeko prozeduran, gardentasunaren eta tratu-berdintasunaren printzipioak behar bezala betetzea eragozten duten alderdi esanguratsuak ikusi ditugu; izan ere, baldintza-agirietan ez dira behar bezala zehaztu balio-iritziaren mende jarritako balorazio-irizpideak eta balorazioak formulatzeko prozedura, “Salbuespenei buruzko informazio gehigarria” gehigarrian zehazten denaren arabera.

V. AUDITORETZAKO FUNTSEZKO GAIK

Auditoretzako funtsezko gaiak dira, gure iritzi profesionalaren arabera, esanahi handiena izan dutenak aztertutako aldiko kontu orokorrei egin diegun fiskalizazioan. Gai horiek kontu orokorren osotasunari buruzko gure auditoretzaren testuinguruan eta kontu orokorrei buruzko iritzia taxutze-arakoan jorratu ditugu, eta ez dugu bereiz azalduko gai horien gaineko iritzirik.

Txosten honetako “Finantza-auditoretzako salbuespendun iritziaren oinarria” atalean eta “Legezketasunari buruzko salbuespendun iritziaren oinarria” atalean azalduko gaiak salbu, ez dugu gure fiskalizazioan funtsezkotzat jotako inongo gairen berririk ematen.

VI. AZPIMARRA-PARAGRAFOA

Kontu orokorretako oroitidazkian jasotako alderdi hauek azpimarratzen ditugu:

- Egoera ekonomiko-finantzarioaren adierazle hauek 2022ko aldean bilakaera positiboa izan dute, “Finantza- eta ondare-adierazleen azterketa” dokumentuak erakusten duenez.

Adierazleak	2022	2023	(milakotan)
			Aldea (%) 2023/2022
Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa	303.857	329.006	8
Aurrekontu-emaitza doitua	295.271	96.473	-67
Aurrezki gordina	553.565	687.540	24
Finantza-zama (3. eta 9. kap.)	425.108	266.351	-37
Aurrezki garbia	128.457	421.189	228
Finantza-zorra *	2.867.732	2.695.268	-6
Zorren ehunekoa diru-sarrera arruntan gainean	54	48	-11

*Kostu amortizatuarekin baloratua.


VII. BESTE GAI BATZUEI BURUZKO PARAGRAFOA

• Azpimarratu nahi dugu aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren arloko arau fiskalak berrabiarazteak mugatu egingen duela NFKAk izan duen gastu publikoaren politika hedakorra. Gai horri dagokionez, datu hauek 2015etik 2023ra izan duten bilakaera nabarmendu nahi dugu:

	2015	2023	2023/2015 aldea (%)
Aurrekontuaren gastua, guztira	3.914	5.782	48
NFKAren langileen gastua	1.138	1.734	52
NFKAko benetako langile-kopurua	23.055	31.950	39
Sozietate publikoetako langileen batez besteko kopurua	1.061	1.604	51
Fundazio publikoetako langileen batez besteko kopurua	78	461	491

• 2023ko irailean, Ganbera honek txosten bat egin zuen “*Dirulaguntza izendunak Nafarroako Aurrekontu Orokorretan (2019-2022)*” gaiari buruz. Txosten horretan, besteak beste, agerian geratu zen nabarmen handitu zela dirulaguntzen partida izendunak Nafarroako aurrekontu orokorretan sartzea. Kontu orokor horien fiskalizazioan, 2023ko egoera berrikusteaz gain, geroko egitate gisa, 2024ko aurrekontuen egoera egiaztatu dugu, eta emaitza honako hau izan da:

Partida-kopurua	2019	2020	2021	2022	2023	2024	Aldea 2023/2019	%	2024/2019 aldea	%
NGak NAOFLPan gehitutako partidak ²	103	117	158	175	177	180	74	72	77	75
NAOFLn gehitutako partidak ³ (PTen zuzenketen bidez ⁴)	55	121	152	241	262	283	207	376	228	415
Guztira	158	238	310	416	439	463	281	178	305	193



Aurreko ekitaldiko gure txostenean uste dugu partida mota horien hazkundea ez zela arrazoizkoa; izan ere, 2019-2022 aldiko gorakadak % 168ko igoera islatzen zuen, 2019an 158 partida izendun izatetik 2022an 416 izatera igaro baitzen.

Joera hori ez da zuzendu; aitzitik, handitu egin da, 2019-2023 aldian % 178ko igoera izatetik % 193koa izatera igaro baita, 2024ko aurrekontuak kontuan hartzen baditugu. Aurreko ekitaldian bezala, Parlamentuko taldeek aurrekontuei buruzko foru lege-proiektuari zuzenketak sartzeko prozesuan izan da gorakadarik handiena.

Honako **ondorio** hauek nabarmentzen ditugu:

²Nafarroako aurrekontu orokorrei buruzko foru lege proiektua.

³Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legea.

⁴Parlamentu-taldeak.

- Inguruabarrak eta ondorioak ez dira nabarmen aldatu, lehen aipatu txostenarekin alderatuta, eta, beraz, behin eta berriz errepikatzen ditugu.

- Parlamentuko zuzenketak kudeatzeko prozesuan, Nafarroako Parlamentutik bidalitako eskaera guztiak Aurrekontuen Zuzendaritza Nagusian jasotzen dira, eta, ondoren, zuzendaritza horretatik departamentu bakoitzera bidaltzen dira, eskaera horiei adostasuna edo desadostasuna eman diezaieten. Prozesu horretan, gure ustez, ez dago funtsezko elementurik, hau da, departamentu bakoitzak eman beharko lukeen informazioa, laguntzen xedearekin bat etor daitekeen laguntza errepikarien edo aurreikusien deialdirik dagoen ala ez argitzeko.

- Partida izendunen jatorria alde batera utzita, hau da, Nafarroako Gobernuak aurrekontuei buruzko foru lege-proiektuan sartzea edo zuzenketak parlamentuan eztabaidatzeko prozesuan sartzea alde batera utzita, beharrezkoa da azpimarratzea modu objektibo, arrazoizko eta proportzionatuan arrazoitu behar direla dirulaguntza izendunak ematea justifikatzen duten salbuespenezko arrazoiak; izan ere, dirulaguntzak zuzenean emateko araubidea salbuespenezko erregimena da, eta lehia-printzipioa sakrifikatzen bada ere, ez du inolaz ere diskriminatzailea izan behar.

Beraz, oraindik ez dira bermatzen Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean ezarritako berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak laguntzaren xedea eta helburua norgehiagoka-erregimeneko deialdietan aurreikusitakoarekin bat datozen dirulaguntza izendun guztietan.

• Beheko taulan jaso dugu Kontingentzia Funtserako zuzkidura horrek 2019-2023 bitartean nolako bilakaera izan duen bai aurrekontuei buruzko foru lege proiektuan, bai geroago, foru legearen onespenean:

(milakotan)

Kontingentzia funtsa	2019	2020	2021	2022	2023
Aurrekontuei buruzko foru lege proiektuko hasierako zuzkidura	15.123	3.938	21.049	20.809	19.544
Aurrekontuei buruzko foru legeko amaierako zuzkidura	4.564	3.938	10.563	5.430	4.558
Aldea	10.559	0	10.486	15.379	14.986
Hasierako zuzkiduraren % aurrekontuei buruzko foru lege proiektuaren aldean	% 0,4	% 0,1	% 0,4	% 0,4	% 0,3
Amaierako zuzkiduraren % aurrekontuei buruzko foru legearen aldean	% 0,1	% 0,1	% 0,2	% 0,1	% 0,08

Agertu diren aldeak talde parlamentarioek aurrekontuen proiektuei aurkeztu dizkieten zuzenketak eztabaidatzeko prozesuan gertatu dira, foru legea onetsi aurreko urratsean.

Aurrekontu orokorrei buruzko foru lege-proiektuarekin batera doan dokumentazioaren arabera, Kontingentzia Funttsaren zuzkiduraren zenbatespenak balizko kontingentziak aztertuz egiten dira, eta betiere zuhertasun-irizpidearekin, unean uneko ziurgabetasuna dela eta. Kontingentzia Funttsaren helburua aurrekontuetan hasiera batean aurreikusi gabeko beharrianetarako kredituak hornitzea denez⁵, ez da arrazoizkoa aurrekontuei buruzko foru lege-proiektua eztabaidatzeko prozesuan munta hori gutxitzea zuzenketak finantzatzeko, haren lege-aurreikuspena hutsaltzen ariko bailitzateke.

⁵Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 31. artikulua.

- Next Generation funtsen diru-sarrera eta gastuen exekuzioa, 2023ko ekitaldia ixtean, honako taula honetan islatzen da:

(milakotan)

<i>Next Generation</i> funtsetako gastuak eta diru-sarrerak	2020	2021	2022	2023	Guztira 2023/12/31
Gastuak	41	4.218	59.685	113.817	177.761
Arruntak		1.906	17.507	35.049	54.462
Kapitalekoak	41	2.312	42.178	78.767	123.299
Diru-sarrerak	5.510	174.517	191.994	165.416	537.437
Arruntak		49.968	36.088	31.108	117.164
Kapitalekoak	5.510	124.549	155.906	134.308	420.273

Funts horiek jasotzeko erritmoa eta proiektuei lotutako aurrekontu-gastuak desberdinak dira. Funtsen denbora-muga 2026an amaitzen da; beraz, amaitu arte, garapen-fasean dauden proiektuei dagozkien gastuak baino diru-sarrera handiagoak aitortzen ari dira urtero. Finantzaketa-desbideratze horien berri ematen da bai aurrekontu-emaitzan bai diruzaintza-geldikinean. Zehazki:

(eurotan)

	Urteko desbideratze positiboak	Urteko desbideratze negatiboak	Finantzaketa- desbideratze metatu positiboak
Aurrekontu-emaitza	90.001.075	58.807.751	
Diruzaintza-geldikina			322.598.949

2023ko martxoan, Ganbera honek “Foru Administrazioan Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana (SEEP) inplementatzeko hartutako neurriak” txostena eman zuen. Nabarmentzekoa da txosten horretan aintzat hartu ditugun gomendio asko aintzat hartu direla, eta horien artean honako hauek nabarmendu behar dira:

- SEEPen koordinazio-funtzioak kontrol-funtzioetatik bereiztea, Ekonomia – Next Generation Zuzendaritza Nagusia berria sortuta; horrela, funtzioak erabat bereizita geratuko dira. Zuzendaritza nagusi horrek informazioa zentralizatzen eta koordinatzen du, eta funts horietan esku hartzen duten barneko eta kanpoko eragileekin harremanetan jartzeko eta haiekin hitz egiteko gune gisa eratzten da.
- Profil ekonomiko eta juridikoko langileak hornitzea aipatutako zuzendaritza nagusian. Langile horiek, batez ere, prozedurak koordinatzeko, informazioa emateko eta funtsen kudeatzaileei laguntzeko lanak egiten dituzte, eta, horrela, lotura garrantzitsua sortzen dute departamentuak unitate kudeatzaile gisa hartuta.
- Dirulaguntzen deialdiei eta funtsen lizitazioei buruzko gardentasuna zabaldu da, baita informazio garrantzitsua ere NFKAren webgune instituzionalean.

VIII. NAFARROAKO GOBERNUAREN ERANTZUKIZUNA

Ekonomia eta Ogasun Departamentua da kontu orokorrak egiteko arduraduna. Halako moduz egin behar ditu non leialki irudikatuko baitituzte entitatearen aurrekontu-likidazioa, ondarea, finantza-egoera eta emaitzak, entitateari aplikatzekoa zaion finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat. Halaber, NFKAk bermatu beharko du aipatutako kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin.

Haren erantzukizuna da, gainera, beharrezkotzat jotzen dituen barne-kontrolako sistemak ezartzea, bermatu ahal izateko kontu orokorretan iruzurraren edo akatsen ondoriozko oker materialik ez dagoela eta egindako jardueran lege-urratzerik ez dagoela.

Nafarroako Gobernuak 2023ko ekainaren 26ko bilkuran onetsi zuen 2021eko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua, eta Nafarroako Parlamentuari igorri zion. Parlamentuko Mahaia erabaki zuen Kontuen Ganberari igortzea aztertzeko eta bere iritzia emateko; idatzia 2023ko irailaren 3an sartu zen erakunde honetan.

IX. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Helburutzat dugu arrazoizko ziurtasun bat lortzea, kontu orokorretan, oro har, iruzur edo erroreen ondoriozko akats materialik ez egoteaz, eta kontu horietan islatutako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa aplikatu behar den araudiarekin bat etortzeaz, arauzkotasunaren fiskalizaziorako gure txostena eman ahal izateko, gure iritzia jasotzen duena.

Arrazoizko ziurtasun hori ziurtasun maila handia da, baina ez du bermatzen kanpo-kontrolako organoen araudiari jarraikiz egindako fiskalizazio batek beti atzemanen dituenik akats materialak edo ez-betetze adierazgarriak. Okerrak iruzurraren edo akatsen ondoriozkoak izan daitezke, bai eta legezkotasuna ez betetzearen ondoriozkoak ere, eta materialtzat hartzen dira Kontuen Ganbera honen irizpideak aplikatuta, eta, betiere, arrazoiz aurreikus badaiteke txostenen erabiltzaileen erabaki ekonomikoetan eragina izanen dutela.

Fiskalizazioaren atal gisa, eta kanpo kontrolako organoei buruzko araudiarekin bat etorritik, gure irizpide profesionala aplikatzen dugu eta eszeptizismo profesionaleko jarrerari eusten diogu auditoretza osoan zehar. Gainera:

- Identifikatu eta baloratu egiten ditugu iruzur edo oker baten ondoriozko akats materiala egoteko eta legeak ez betetzeko arriskuak, arrisku horiei erantzuteko auditoretza prozedurak taxutzen eta aplikatzen ditugu, eta auditoretzako behar adinako eta behar bezalako ebidentzia lortzen dugu gure iritzia oinarri emateko. Iruzurraren ondoriozko akats material edo urraketa bat ez atzemateko arriskua handiagoa da errorearen ondoriozko akats material baten kasuan baino; izan ere, iruzurra dagoenean, tartean izaten ahal dira kolusioa, faltsutzea, nahitako omisioak, propio eginiko adierazpen okerrak edo barne-kontrola saihestea.
- Barne-kontrolari buruzko ezagutza lortzen dugu, fiskalizaziorako esanguratsua dena, inguruabarren arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatze aldera; ez, ordea, entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzi bat emate aldera.
- Ebaluatzen dugu ea aplikatutako kontabilitate-politikak moduzkoak ote diren, ea kontabilitate-estimazioak egokiak diren eta ea egokia den kudeaketa-organismoak emandako informazioa.
- Kontu orokorren aurkezpen orokorra, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu, emandako informazioa barne, eta ea kontu horiek zehatz irudikatzen dituzten transakzioak eta azpian dauden egitateak.

Erakundearen gobernu-organismoarekin harremanetan jartzen gara, besteak beste, planifikatutako auditoretza-proben norainokoaz eta horiek egiteko uneaz aritzeko, bai eta fiskalizazioaren aurkikuntza esanguratsuez eta fiskalizazioan zehar barne-kontrolari buruz identifikatzen dugun edozein akats adierazgarri ere. Entitateko gobernu organoari jakinarazi zaizkion zertzeladen artean, zehazten dugu zein izan diren fiskalizazioan munta handienekoak eta, horrenbestez, auditoretzan funtsezko izan diren gaiak.

X. AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA

Aurreko txostenetan jasotako gomendio garrantzitsu hauek bete dira edo betetzen ari dira fiskalizatutako ekitaldian:

- a) Foru Komunitatearen ondasun eta eskubide guztien inbentario baloratu bat egitea, ibilgetuaren kontabilitate-saldoak bermatzeko, Kontabilitate Publikoko Plan Orokorraren betekizunei jarraituz.
- b) Gomendatzen dugu ibilgetuaren altak eta bajak kontabilizatzeko irizpide batzuk ezartzea, kontabilitatearen arloko araudi indardunaren arabera, eta haiek irizpide horien arabera erregistratzea.

Aurreko ekitaldietako txostenetan jasotako *gomendio* garrantzitsu hauek lehengoan diraute:

- a) Foru Komunitatearen Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra urgentziaz onestea eta, halakorik egin ezean, bere zabaltasun osoan aplikatzea Kontabilitate Publikorako Plan Orokorra, 2011ko urtarrilaren 1etik indarrean dagoena.
- b) NFOren kontabilitate-sistemak egokitzea, horren bidez diru-sarreraren aurrekontuaren garapenari buruzko informazioa lortzeko Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorreko kontabilitate-prozeduren arabera, estatistikako metodoekin prestatutako txostenen bidez lortu beharrean.
- c) Balantzean islatzea montepioaren araubidekoak diren foru funtzionarioen eskubide pasiboetatik heldu diren betebeharrak aktuarialak.
- d) Kontabilitate sistema garatzea, zerbitzu publikoen kostua zehazteko informazioa eman dezan.
- e) CAT aplikazioa aldatzea, SAPG21 sistema elikatzen duten eta finantza-egoerak egiteko informazio fidagarria ematen duten zergen bilketari buruzko datuak lortzeko, eta, era berean, beste arlo batzuk kudeatzen eta aztertzen laguntzeko, hala nola iruzur fiskalaren aurkako borroka.
- f) Aztertzea aukerarik ba ote dagoen kontu orokorren oroitidazkian azterketa sakonago bat jasotzeko onura fiskalaren bidez lortu nahi diren helburuei eta horien betetze graduari buruz.
- g) Kontabilitate Zerbitzuak eta Diru-bilketa Zerbitzuak batera lan egitea ekitaldian sortutako eskubideei dagozkien zergen kobrantzari buruzko informazioa hobetzeko eta kontabilitateko egoera-orrien irudi fidagarriago bat islatzeko.
- h) Enpresei eta fundazio publikoei buruz egindako legezketasun-auditoretzetan detektatutako gabeziei konponbidea emateko behar diren kudeaketa- eta kontrol-neurriak ezartzea.
- i) Neurri egokiak hartzea INI eta Sodena sozietateek jarduera berberak izatea edo haien arteko bikoiztasuna saihesteko.
- j) Larrialdia dela-eta izapidetu diren kontratazio-espeditente guztiak formalizatzea eta Kontratazioaren Atarian argitaratzea.

Gainera, finantza-fiskalizazioaren eta legeria betetzearen fiskalizazioaren emaitza gisa, beste gomendio batzuk jaso dira txosten honen 5. gehigarrian (beste ohar eta aurkikuntza batzuei buruzkoan).

Miguel Ángel Aurrecochea auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta jaulkitzen da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Kontuen Ganberako lehendakaria: *Ignacio Cabeza del Salvador*

1. GEHIGARRIA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN KONTUEN LABURPENA, 2023KO EKITALDIA⁶

2023ko aurrekontuaren likidazioa

2023ko gastu-aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoaren arabera

(milakotan)

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako kreditua	Aldak.	Behin betiko kreditua	Obligazio aitortu garbiak	% betea	Ordaindu-takoa
Langileria-gastuak	1.686.664	67.432	1.754.096	1.734.280	99	1.733.681
Gastu arruntak ondasun eta zerbitzuetan	933.432	24.555	957.987	907.497	95	850.000
Finantza-gastuak	46.356	-2.184	44.172	42.136	95	42.126
Transferentzia arruntak	1.972.356	426.963	2.399.319	2.331.696	97	2.291.701
Kontingentzia funtsa	4.558	-1.278	3.280	-	-	-
Inbertsio errealak	281.437	58.028	339.465	250.553	74	226.121
Kapital-transferentziak	313.928	110.715	424.643	258.658	61	205.746
Finantza-aktiboak	36.006	-	36.006	32.869	91	32.869
Pasibo finantzarioak	474.215	-	474.215	224.215	47	224.215
Guztira	5.748.951	684.232	6.433.183	5.781.904	90	5.606.459

2023ko diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoaren arabera

(milakotan)

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Hasierako aurreikuspena	Eskubide aitortu garbiak	% betea	Diru-bilketa garbia
Zuzeneko zergak	2.311.367	235.056	2.546.423	2.741.203	108	2.709.460
Zeharkako zergak	2.224.107	17.853	2.241.961	2.404.700	107	2.366.936
Tasak, prezio publikoak eta beste-lakoak	114.578	12.521	127.099	155.275	122	130.552
Transferentzia arruntak	175.672	91.241	266.913	334.759	125	327.112
Ondare bidezko diru-sarrerak	6.944	17.147	24.091	25.076	104	20.007
Inbertsio errealen besterentzea	2.040	299	2.339	3.216	137	3.105
Kapital-transferentziak	131.945	47.294	179.240	189.600	106	186.350
Finantza-aktiboak	142.310	262.819	405.130	21.654	5	20.396
Pasibo finantzarioak	639.987	-	639.987	50.000	8	50.000
Guztira	5.748.950	684.232	6.433.183	5.925.483	92	5.813.918

⁶ Gure txostenak Nafarroako kontu orokorren 2023ko ekitaldiko oroitidazkiaren laburpen bat badauka, Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasun Departamentuak egina. Testu osoa hemen kontsulta daiteke:

<https://www.navarra.es/es/gobierno-de-navarra/cuentas-generales>

2023ko aurrekontu-emaitza

(milakotan)

Kontzeptuak	Eskubide aitortuak	Aitortutako obligazioak	Zenbatekoa
1. Eragiketa arruntak	5.661.013	5.015.610	645.403
2. Kapital-eragiketak	192.816	509.211	-316.395
3. Finantza-aktiboekiko eragiketak	21.654	32.869	-11.215
I. Ekitaldiko aurrekontu-emaitza			317.793
II. Finantza-pasiboen alde garbia	50.000	224.215	-174.215
III. Ekitaldiko aurrekontuaren saldoa			143.578
4. Atxiki gabeko diru-zaintzako geldikinarekin finantzaturiko obligazio aitortuak			54.570
5. Ekitaldiari egotz dakizkikeen finantzaketa-desbideratze negatiboak			183.878
6. Ekitaldiari egotz dakizkikeen finantzaketa-desbideratze positiboak			285.553
V. Ekitaldiko aurrekontuaren saldo doitua (III+4+5-6)			96.473

Diruzaintza-geldikina 2023ko abenduaren 31n

(eurotan)

Kontzeptuak	Zenbatekoa
+ Kobratzeko dauden eskubideak	246.526.128
Diru-sarreraren aurrekontua, aurtengo ekitaldia	934.169.012
Diru-bilketa zaileko eskubideak, aurtengo ekitaldia	611.595.594
Aplikatzeko dauden partidengatiko gutxiagotzea	23.169.253
Aplikatzeko dauden partidengatiko gutxiagotzea (CAT)	57.762.107
Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	8.982.628
Diru-bilketa zaileko eskubideak, aurtengo ekitaldia	7.819.404
Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	3.955.376
Diru-bilketa zaileko eskubideak	234.531
- Ordaintzeko dauden obligazioak	309.406.355
Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	276.366.464
Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	102.341
Aurrekontuz kanpoko gastuak	32.937.550
+ Funts likidoak	780.227.642
Diruzaintza-geldikina, guztira (1)	717.347.414
Toki Ogasunen Funtsari atxikitako diruzaintza-geldikina	13.552.788
Finantzaketaren desbideratze metatu positiboak	485.256.197
PFEZaren % 0,7ari atxikitako diruzaintza-geldikina	1.290.633
Diruzaintza-geldikina Hondakinen funtsa	19.938.817
Diruzaintza-geldikina Klima-funtsa	845.983
Atxikitako diruzaintza-gerakina (2)	520.884.418
Gastu orokorretarako diruzaintza-geldikina (1) – (2)	196.462.996

Egoeraren balantzea 2023ko abenduaren 31n

(eurotan)

Aktiboa	2023ko ekitaldia	2022ko ekitaldia
A) Ibilgetua	3.236.205.029	2.994.265.265
II. Ibilgetu ez-materiala	87.711.051	55.053.462
3. Aplikazio informatikoak	72.238.965	43.849.120
4. Bestelako ibilgetu ukiezina	15.472.086	11.204.341
III. Ibilgetu materialak	2.450.336.547	2.252.270.103
1. Lursailak eta eraikinak	1.134.761.095	1.098.303.645
2. Instalazio teknikoak eta makineria	88.581.963	85.493.072
3. Tresneria eta altzariak	527.142.427	487.169.483
4. Bestelako ibilgetua	362.102.807	343.014.537
5. Azpiegiturak	301.273.061	202.657.732
6. Ekitaldiko ibilgetua	13.618.490	14.018.325
7. Ondare historikoko ondasunak	22.856.704	21.613.309
IV. Ondasun higiezineta inbertsioak	20.966.355	21.176.329
1. Lursailak	76.747	76.747
2. Eraikuntzak	20.889.608	21.099.583
V. Finantza-inbertsio iraunkorrak	677.191.075	665.765.371
1. Epe luzeko baloreen zorroa	568.187.256	559.187.256
2. Epe luzeko bestelako inbertsio eta kredituak	109.944.767	107.519.062
4. (Hornidurak)	-940.947	-940.947
C) Aktibo zirkulatzailea	1.272.000.632	1.222.467.711
Salgai dauden aktiboak	18.578.966	18.347.957
I. Izakinak	22.111.283	22.018.741
2. Lehengaiak eta beste hornigai batzuk	22.111.283	22.018.741
II. Zordunak	450.729.484	459.882.205
1. Aurrekontuko zordunak	955.893.353	979.416.301
2. Aurrekontukoak ez diren zordunak	110.447.112	93.117.690
3. Beste erakunde publiko batzuen konturako baliabideak ad- ministratzeagatiko zordunak	3.259.757	3.417.403
5. Bestelako zordunak	5.998.247	6.322.284
6. (Hornidurak)	-624.868.985	-622.391.473
III. Aldi baterako finantza-inbertsioak	353.257	254.133
2. Epe laburrerako bestelako inbertsio eta kredituak	327.597	232.996
3. Epe laburrerako eraturako fidantza eta gordailuak	25.661	21.137
IV. Diruzaintza	780.227.642	721.964.675
Aktiboa, guztira (A+C)	4.508.205.660	4.216.732.976

Ondare garbia eta pasiboa	2023ko ekitaldia	2022ko ekitaldia
A) Funts propioak	1.349.241.595	837.893.636
I. Ondarea	363.011.285	-145.921.497
1. Ondarea	363.011.285	-145.921.497
III. Aurreko ekitaldiko emaitzak	473.883.394	508.932.782
1. Aurreko ekitaldiko emaitzak	473.883.394	508.932.782
IV. Ekitaldiko emaitzak	510.868.767	473.892.739
V. Egozteko dagoen ondare-gehikuntza	1.478.150	989.612
C) Epe luzeko hartzekodunak	2.448.576.766	2.633.217.899
I. Obligazioen eta bestelako balore negoziagarrien jaulkipenak	956.511.387	1.060.323.073
1. Obligazioak eta bonoak	956.511.387	1.060.323.073
II. Epe luzeko bestelako zorrak	1.492.065.379	1.572.894.826
2. Bestelako zorrak	1.491.668.115	1.572.494.691
4. Epe luzerako jasotako fidantzak eta gordailuak	397.265	400.134
D) Epe laburreko hartzekodunak	710.387.300	745.621.441
I. Obligazioen eta bestelako balore negoziagarrien jaulkipenak	257.759.677	245.789.277
1. Epe laburreko obligazioak eta bonuak	117.252.585	134.685.856
2. Kreditu-erakundeekin dauden epe laburreko zorrak	140.507.092	111.103.421
III. Hartzekodunak	452.627.623	499.832.163
1. Aurrekontuko hartzekodunak	338.446.343	350.899.248
3. Beste erakunde publiko batzuen konturako baliabideak adminis- tratzeagatiko hartzekodunak	10.413.683	11.347.816
4. Administrazio publikoak	5.387.666	4.974.346
5. Bestelako hartzekodunak	91.101.039	125.283.631
6. Epe laburrerako jasotako fidantzak eta gordailuak	7.278.891	7.327.121
Ondare garbia eta pasiboa, guztira (A+C+D)	4.508.205.660	4.216.732.976

2023ko emaitzen kontua

(eurotan)

Zor	2023ko ekitaldia	2022ko ekitaldia
A) Gastuak		
2. Hornidurak	354.020.366	339.511.483
b) Ekitaldiko kontsumoak	354.020.366	339.511.483
3. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	2.346.246.105	2.172.637.581
a) Langileria-gastuak	1.616.699.842	1.502.350.247
a.1) Soldatak eta ordainsariak	1.327.338.039	1.240.589.860
a.2) Gizarte-zamak	289.361.803	261.760.387
b) Gizarte-prestazioak	118.026.115	109.177.835
d) Trafiko horniduretako aldeak	2.477.511	16.087.551
d.1) Horniduren eta kobraezinak diren kredituengatiko galeren alorrean izandako aldea	2.477.511	16.087.551
e) Beste kudeaketa-gastu batzuk	548.010.066	486.555.398
e.1) Kanpoko zerbitzuak	543.120.725	482.178.475
e.2) Tributuak	122.650	93.283
e.3) Askotariko gastuak	4.766.691	4.283.640
f) Finantza-gastuak eta antzekoak	43.993.882	41.914.137
f.1) Zorreatatik	43.993.882	41.914.137
g) Finantza-inbertsioetarako horniduren aldea	-	-
h) Ibilgetuaren amortizazioa	17.038.688	16.552.414
4. Transferentziak eta dirulaguntzak	2.595.592.326	2.484.962.373
a) Transferentzia arruntak	2.334.775.883	2.278.519.655
c) Kapital-transferentziak	260.816.443	206.442.718
5. Ezohiko galera eta gastuak	48.768.018	33.261.999
c) Ezohiko gastuak	721.100	3.285.636
d) Beste ekitaldi batzuetako gastuak eta galerak	48.046.919	29.976.363
Saldo hartzekoduna (aurrezkia)	510.868.767	473.892.739
Zor, guztira	5.855.495.582	5.504.266.175

Hartzekoa	2023ko ekitaldia	2022ko ekitaldia
B) Diru-sarrerak		
1. Ohiko kudeaketako diru-sarrerak	5.176.539.966	4.941.370.536
a) Tributu bidezko diru-sarrerak	5.162.117.981	4.926.691.155
a.1) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga	2.103.924.273	2.146.468.069
a.2) Sozietateen gaineko zerga	531.796.111	369.547.201
a.3) Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga	59.586.649	68.345.325
a.4) Ondarearen gaineko zerga	35.053.178	31.768.065
a.8) Zuzeneko beste zerga batzuk	10.842.589	12.443.009
a.9) Ondare-eskualdaketen eta EJDen gaineko zerga	75.870.620	83.257.229
a.10) Balio erantsiaren gaineko zerga	1.755.605.733	1.616.899.293
a.11) Zerga bereziak	573.224.101	581.721.052
a.12) Zuzeneko zerga iraungiak	54.489	50.440
a.15) Zerbitzuak emateko tasak	16.160.239	16.191.472
b) Kotizazio sozialak	904.355	1.031.769
c) Zerbitzu-emateak	13.517.630	13.647.612
c.1) Zerbitzuak emateko prezio publikoak	13.517.630	13.647.612
2. Kudeaketa arrunteko beste diru-sarrera batzuk	153.268.602	129.442.107
a) Diru-itzulketak	25.669.936	14.681.751
b) Salmentak eta zerbitzu-emateak	59.921.089	55.730.148
c) Kudeaketako beste diru-sarrera batzuk	38.821.493	47.510.996
c.1) Diru-sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk	38.821.493	47.510.996
f) Beste diru-sarrera finantzario batzuk	28.856.085	11.519.213
f.1) Beste interes batzuk	28.856.085	11.519.213
3. Transferentziak eta dirulaguntzak	524.358.469	421.633.342
a) Transferentzia arruntak	334.758.924	220.038.880
b) Kapital-transferentziak	189.599.545	201.594.462
4. Ezohiko irabazi eta diru-sarrerak	1.328.545	11.820.190
a) Ibilgetutik heldu diren etekinak	257.398	125.258
c) Aurtengo ekitaldiko ezohiko sarrerak	1.095	-
d) Beste ekitaldi batzuetako diru-sarrerak eta etekinak	1.070.052	11.694.932
Saldo zorduna (desaurrezkia)	-	-
Hartzeko, guztira	5.855.495.582	5.504.266.175

2. GEHIGARRIA. NAFARROAKO FORU SEKTORE PUBLIKOAREN ZEDARRITZEA

Foru sektore publikoaren 2023ko zedarritzea bi ikuspuntutatik azter daiteke:


- Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearekin bat (aurrerantzean NOPFL)
- Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 20ko 2/2012 Lege Organikoarekin bat (aurrerantzean AEFILO).

2.1. FORU SEKTORE PUBLIKOA, NAFARROAKO OGASUN PUBLIKOARI BURUZKO APIRILAREN 4KO 13/2007 FORU LEGEAREN ARABERA.

Honako hauek dira 2023an foru sektore publikoa osatzen dutenak, aipatutako NOPFLaren eraginetarako:

- NFKA eta hari atxikitako erakunde autonomoak.
- Nafarroako Parlamentua eta haren menpeko organoak; hau da, Kontuen Ganbera eta Arartekoa.
- Nafarroako Kontseilua.
- Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa
- NFKAren eta haren erakunde publikoen sozietate publikoak, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legean (NOFL) ezarritakoari jarraikiz.
- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren organismo publikoen fundazio publikoek, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legean ezarritakoari jarraikiz.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoak, zeina bere araudi bereziari lotuta egonen baita eta, modu osagarrian, foru lege honen xedapenei".

Hauxe zen foru sektore publikoaren 2023ko abenduaren 31ko irudikapen grafikoa, kontu orokorretako oroitidazkiaren arabera:



Aurreko irudia aztertuta, honako alderdiak azpimarratu behar ditugu:

- 2023ko maiatzean Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak egin ziren, eta hauteskunde prozesuaren ondorioz, 2023-2027 legegintzaldirako gobernu berria eratu zen. Nafarroako Foru Komunitateko lehendakariaren abuztuaren 17ko 10/2023 Foru Dekretuak, Nafarroako Foru Komunitateko departamentu egitura berria onetsi zuen. 2023ko abenduaren 31n NFKAk 13 departamentu zeuzkan, eta horiei bederatzirak erakunde autonomo zeuden atxikita⁷.

- Enpresa publikoak, "Foru sektore publikoaren mugaketa" dokumentuan jasotzen denez, 19 dira, Enpresa Korporazio Publikoa (aurrerantzean CPEN) barne. CPENen menpe dauden 18 sozietateak honela banatzen dira: zuzenean mendeko diren 14 sozietate, zeharka osorik partaidetutako bi eta zeharka gehiengoz partaidetutako bi. Hurrengo taulan ikus daiteke osaera hori:

Enpresa publikoa	CPENen %	Jarduera ekonomikoa
Centro Europeo de Empresas e Innovación SL (CEIN)	100	Berrikuntza eta ekintzaileak
Ikaskuntza Integralerako Nafarroako Zentroa SA (CNAI)	100	Hezkuntza eta talentua
Ciudad Agroalimentaria de Tudela SL (CAT)	100	Nekazaritza-elikagaiak
Gestión Ambiental de Navarra SA (GAN)	100	Ingurumena
Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias SA (Intia)	100	Nekazaritza-elikagaiak
Instituto Navarro de Inversiones S.L.U. (INI)	100	Enpresei finantza baliabideak ekartzea
Nafarbide	100	Bide-azpiegiturak kontserbatzea eta mantentzea
Navarra Impulsa Cultura, Deporte y Ocio SL (NICDO)	100	Gaikako azpiegiturak eta kultura-, aisia- eta kirol-azpiegiturak
Navarra de Infraestructuras Locales SA (Nilsa)	100	Tokiko azpiegiturak
Navarra de Servicios y Tecnologías SA (Nasertic)	100	Administrazio publikoentzako zerbitzuak eta teknologia
Navarra de Suelo y Vivienda SA (Nasuvinsa)	100	Lurzorua eta etxebizitza
Potasas de Subiza SAU (Posusa)	100	Ingurumen jarduerak, eta industria ehundura berrosatzea
Sociedad de Desarrollo de Navarra SL (Sodena)	100	Enpresak garatzeko inbertsio- eta finantzaketa-jarduerak
Trabajos Catastrales, S.A. (Tracasa)	100	Katastroa, kartografia
Tracasa Instrumental, S.L.		
Transporte sanitario de Navarra (BIDEAN)	100	Osasun-garraioko zerbitzua
Salinas de Navarra, S.A.	76	Gatza eta deribatutako ekoiztea eta merkaturatzea
Start Up Capital Navarra SL	68,46	Enpresak sustatu eta bultzatzea

Memoriaren dokumentazioan agertzen den informazioari dagokionez, Nafarbide sozietate publikoa sortzeko erabakia 2023an hartu bazen ere, 2024ko ekitaldian eratu eta inskribatu zen Merkataritza Erregistroan, eta, beraz, ganbera honen iritziz, sozietate hori 2024ko ekitaldiko kontu orokorretan sartu beharko litzateke

⁷Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak (NAPI) azarora arte jardun zuen, azaroaren 15eko 253/2023 Foru Dekretuak, erakunde autonomo horren azkentzea onartzen duenak, arautzen duen bezala, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren barruan sartu zen.

- NFKAren fundazio publikoak 2023ko abenduaren 31n zortzi ziren, honako xehetasun honen arabera:

Fundazio publikoa	Xedea
Baluarte	Baluarte jauregian kultur jarduerak sustatzea
Nafarroako Ondare Historikoaren Kontserbazioa	Kultur intereseko ondasunak kontserbatu eta zaharberritzea
Miguel Servet	Ikerkuntza sanitarioaren sustapena
Desgaitasuna duten Pertsonen Lagungarriak Helarazteko Fundazioa	Desgaitasuna duten helduei laguntzeko neurriak
Miguel Induráin	Kirola eta ariketa fisikoa sustatu eta garatzea Nafarroan
Gizarte Zerbitzu Publikoen Kudeaketa-Gizain	Gizarte-zerbitzu publikoak kudeatzea, eta zerbitzu horiek zuzenean eman eta gauzatzea
Cener Fundazioa	Ikerketa eta sustapena energia berriztagarrien sektorean
Nafarroako Osasun Ikerketarako Institutua Fundazioa (IDISNA fundazioa)	Osasun ikerketa

Adierazi behar dugu azken bi fundazioak, ekitaldi honetan, NFKAren fundazio-sektore publikoa osatzen duten erakunde gisa sartu direla kontu orokorretan, lehen aldiz. Horri dagokionez, ez dugu irizpide-aldaketari buruzko informaziorik, aurreko ekitaldietako kontuetan sartzeari dagokionez.

Foru sektore publikoa osatzen duten erakundeen ekonomia- eta langile-datu nagusiak, 2023ko abenduaren 31n, kontu orokorren oroitidazkian zabaldua eta iruzkinduta, honako hauek dira:

- Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioa

(euroak, milakotan, zenbakiekin adierazitakoak izan ezik)

	Zenbatekoa
Aitorturiko eskubideak	5.925.483
Betebehar onartuak	5.781.904
	Pertsona kopurua
Langileak 2023ko abenduaren 31n	32.587

- Sozietate publikoak

(euroak, milakotan, zenbakiekin adierazitakoak izan ezik)

	Ekitaldiko emaitza	Dirulaguntzak Foru Administrazioa	Epe luzeko zortzpetzea	Ondare garbia	Enplegatuen batez besteko kop.
Bateratu gabeko datuak	-8.520	36.172	4.859	1.042.127	1.604

- Fundazioak

(euroak, milakotan, zenbakiekin adierazitakoak izan ezik)

Fundazioak	Emaitza, guztira	Ondare garbia	Enplegatuen batez besteko kopurua
Bost fundazio publikoak, guztira ⁸	15	4.738	461

⁸Kontuen Ganberak egindako informazioa, 2024ko ekainaren 26an onartutako Kontu Orokorreari buruzko Foru-lege Proiektuan jasotako dokumentazioarekin. Sei fundaziotatik, bosten urteko kontuak eta, beraz, datuak, baino ez daude.

- Beste entitate batzuk

(euroak, zenbakiekin adierazitakoak izan ezik)

Entitatea	Aitortutako eskubideak	Aitortutako obligazioak	Foru Ogasunari itzuli-tako geldikina	Langileak 2023/12/31n
Nafarroako Parlamentua	15.834.292	13.529.255	2.387.244	74
Kontuen Ganbera	3.177.396	3.200.919	561.344	35
Arartekoa	1.073.800	951.274	122.526	9
Nafarroako Kontseilua	404.377	291.579	112.798	2
Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa	212.860	208.702	4.159	2

Gainerako erakundeei dagokienez, azpimarratzen dugu 13/2007 Foru Legearen 2. artikuluan ezarritakoaren aurka, ez dagoela jasota NUP foru-sektore publikoaren mugaketan sartu denik, ez eta urteko kontuen dokumentazioa ere.

Nafarroako kontu orokorren dokumentazioan NUP eta bere urteko kontuak sartzea gomendatzen dugu.

2.2. NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN SEKTOREA, AURREKONTU-EGONKORTASUNARI ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNARI BURUZKO APIRILAREN 27KO 2/2012 LEGE ORGANIKOAREN ARABERA

Kontabilitate nazionalari dagokionez (EKS 2010), 2023rako, honako hauek jotzen dira Nafarroako Administrazio Publikoaren sektoretzat:

- NFKA eta haren erakunde autonomoak.
- Nafarroako Parlamentua eta haren mendeko erakundeak.
- Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- Nafarroako Hondakin Solidoen Tratamendurako Partzuergoa ente publikoa.
- Iruñerriko Abiadura Handiaren Partzuergoa entitate publikoa.
- Nafarroako Gazteriaren Kontseilua.
- Nafarroako Kontseilua.
- Foru Komunitateko sozietate publikoak, gehienbat merkataritzako diru-sarrerekin finantzatzen ez diren zerbitzuak edo ondasunak ematen edo sortzen dituztenak.

Zehazki, 2023rako, 16 sozietate hauek hartzen dira administrazio publikoen sektoretzat: CEPN, CNAI, CEIN, CAT, NIK, ITIA, INI⁹, NICDO, NASERTIC, NILSA, SODENA, TRACASA, TRACASA Instrumental, START UP, POSUSA, Lekunberriko Esnekari Erakundea S.A.¹⁰.

Bestalde, azpimarratzekoa da Bidean eta Nafarbide sozietate publikoak administrazio publikoaren sektoretzat hartzen ez diren sozietate gisa sartu direla, IGAEk ezarritakoaren aurka, txostenaren 5. gehigarriaren 5.12 atalean zehazten dugun bezala.

- Honako fundazio hauek: Baluarte Fundazioa, Nafarroako Ondare Historikoaren Kontserbazi-orako Fundazioa, Miguel Servet Fundazioa, Desgaitasuna duten Pertsonen Lagungarriak Helarazteko Nafarroako Fundazioa, CENER Fundazioa, Amado Alonso Fundazioa, Uharteko Arte Garaikideko Zentroa Fundazioa, Nafarroako Osasun Ikerkuntzarako Institutua Fundazioa, Miguel Induráin

⁹ Eskualde Administrazioaren azpisektorean sartutako sozietate berria, IGAEren 2023ko abenduko txostenaren arabera.

¹⁰ Sozietate hau kontu orokorretan sozietate publiko gisa hartzen ez bada ere, kontuan hartu behar da Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 21eko 549/2013 (EB) Erregelamenduan jasotako irizpideak aplikatuz NFKAren Administrazio Publikoaren sektorean sartu behar direla, IGAEren 2022ko abenduaren 15eko sektORIZAZIO-TXOSTENAREN arabera.

Fundazioa, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Unibertsitate-Sozietate Fundazioa, Julián Gaya-
rre Fundazioa, Jorge Oteiza Museoa Fundazioa, Bikaintasunerako Nafarroako Fundazioa eta Gi-
zain-Gizarte Zerbitzu Publikoak Kudeatzeko Nafarroako Fundazioa.

3. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA

Honako hauek osatzen dute, funtsean, 2022an NFKAri aplikatzekoa den arau-esparrua:

Europako araudia

- 549/2013 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2013ko mai-
atzaren 21ekoa, Europar Batasuneko kontu nazional eta eskualde-kontuen sistemari buruzkoa
(EKS 2010).

Estatuko arauak

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkor-
tasunari buruzkoa.

- 20/2012 Errege Lege-dekretua, uztailaren 13koa, aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko
eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzkoa.

- 17/2014 Errege Lege-dekretua, abenduaren 26koa, autonomia erkidegoen eta toki erakun-
deen finantza-iraunkortasunerako neurriei buruzkoa.

- 2015eko irailaren 9ko Ebazpena, Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Zuzendaritza
Nagusiarena, zeinaren bidez definitzen baita autonomia erkidegoen zuhurtasun finantzarioaren
printzipioa, finantza-aktiboak edo abal, berrabal nahiz bestelako berme publikoak edo aurrekontutik
kanpoko laguntza neurriak xede dituzten finantza-eragiketei dagokienez.

- 2017ko uztailaren 4ko Ebazpena, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusia-
rena, zeinaren bidez definitzen baita autonomia erkidegoen eta toki entitateen zorpetze-eragiketei
eta deribatuei aplikatzekoa zaien zuhurtasun finantzarioaren printzipioa.

- 2017ko abenduaren 5eko Ebazpena, Altxorraren Zuzendaritza Nagusiarena, 2017ko uztaila-
ren 4ko Ebazpenaren 1. eranskina eguneratzen duena; uztailaren 4ko ebazpen horren bidez defi-
nitzen da autonomia erkidegoen eta toki entitateen zorpetze-eragiketei eta deribatuei aplikatzekoa
zaien zuhurtasun finantzarioaren printzipioa.

- EHA/1037/2010 Agindua, apirilaren 13koa, Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onesten
duena.

Foru araudia

- 13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10ekoa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Ho-
betzeari buruzkoa.

- Abenduaren 26ko 28/1990 Foru Legea, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen ar-
teko Hitzarmen Ekonomikoa onesten duena.

- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publi-
koen zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren testu bategina onesten duena, bai eta hura garatzeko
xedapenak ere.

- 13/2000 Foru Lege Orokorra, abenduaren 14koa, tributuei buruzkoa.

- 14/2004 Foru Legea, abenduaren 3koa, Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzkoa.

- 11/2005 Foru Legea, azaroaren 9koa, dirulaguntzei buruzkoa.

- 13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.

- 14/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako ondareari buruzkoa.

- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, kontratu publikoei buruzkoa.
- 11/2019 Foru Legea, martxoaren 11koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzkoa.
- 19/2022 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira egonkortze prozesuak gauzatzeko, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz.
- 35/2022 Foru Legea, abenduaren 28koa, 2023rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- 944/2012 Foru Agindua, azaroaren 9koa, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilariak emana, Fakturen Erregistroaren funtzionamendua arautzen duena.
- 65/2023 Foru Agindua, urriaren 2koa, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariarena, zeinaren bidez onesten baitira 2023ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrek eta Balantzeko Kontuak itxeari eta likidatzeari buruzko arauak, bai eta 2024ko ekitaldiaren irekiera ere.

4. GEHIGARRIA. SALBUESPENEI BURUZKO INFORMAZIO GEHIGARRIA

4.1 CAT-SAP SISTEMEN INTEGRAZIOA

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak ahaleginak egin dituen arren, oraindik ere arazoak daude, CATen informazio egokia falta delako SAPGE21ek diru-bilketa garbia egoki islatu ahal dezan kontabilitatean. Izan ere, ez ditu bereizten uneko ekitaldiko eta aurreko ekitaldietako eskubi-deek sortutako kobrantzak. Gainera, CATeko datu horiek ez dute aukerarik ematen kobrantzen zenbatekoak printzipalaren, errekaruen eta interesen artean banatzeko.

Hori dela-eta, CATek ematen duen informazioarekin Hitzarmen Ekonomikoaren, Anlisi Fiskalen eta Administrazioaren Zerbitzuak egiten duen txostenean uneko ekitaldiko kobrantzei dagokien zenbatekoa azaltzen da, baina ez da bereizten kobrantza horiek uneko urtean edo aurreko urteetan sortutako eskubideetatik datozen. Zifra hori erabiltzen du NFKAREN Kontabilitateko atalak aurrekontuaren likidazioan islatutako zerga bakoitzaren bilketa garbia lortzeko.

Aurrekoaz gain, CAT sistemak ez du ematen nahikoa informaziorik zergen kontabilitatea behar bezala islatzeko aurrekontu-likidazioan eta egoeraren balantzean. Hala, eskuragarri dauden datuekin, ezin da bereizketarik egin ekitaldi arruntetako eta itxietako zordunen artean, eta ez da posible zorra geroratzea eman zaien zordunei dagozkien eskubide aitortuak deuseztatzea, indarreko Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorrean ezarritako irizpideen kontra.

Zordunak ez dira balantzean jasotzen Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorrean ezarritako sailkapenaren arabera, ezta sorrarazi gabeko errekaruak eta interesak ere

4.2. ZERBITZUAK EMATEA KONTRATU-EUSKARRI EGOKIRIK GABE

Ganbera honek 2018tik 2022rako kontu orokorrei buruz egindako txostenek salbuespen bat jasotzen zuten, indarraldia amaituta zeukaten kontratuetan oinarritutako prestazioekin lotutako aurrekontu-gastuak egiteari zegokiena.

Hala ere, adierazten dugu Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen (aurrerantzean, KPFL) 45.3 artikulua, egungo idazketan¹¹, kontratuen iraupenari aplikatu beharreko araubide juridikoa aldatu zuela, kontratuen mugaeguneratzean eta inguruabar jakin batzuk gertatzen direnean gehienez bederatzi hilabeteko luzapena ezartzeko.

Egoera horren jarraipena egin dugu, departamentuek Nafarroako Gobernuako Kontu-hartzailetzako Zuzendaritza Nagusiari emandako informazioarekin.

¹¹ KFLren 45.3 artikulua aldatu egin zuen Nafarroako 2023rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 35/2022 Foru Legearen azken xedapenetatik bigarrenak.

Zehazki, eta informazio horren arabera, honako hauek dira 2023an eta kontratuaren amaieratik 2023ko abenduaren 31ra arte ordaindutako prestazioekin lotutako datuak, kontratu-euskarri ego-kirik gabe:¹²:

Departamentua	Gastu ordaindua 2023an	Gastu metatua kontratuaren amaieratik 2023/12/31ra	Kontratu kop.	Kontratu-euskarri-rik gabeko gastu-aren hasiera-data, gutxienez
Osasuna	83.367.993	398.305.525	60	2017/01/01
Unibertsitatea, Ikerketa eta Teknologia D.	14.161.655	33.984.236	13	2021/01/01
Eskubide Sozialak, Ekonomia Soziala eta Enplegua	13.044.102	57.219.128	41	2021/02/14
Lurralde Kohesioa	4.545.052	22.326.013	42	2014/01/01
Ekonomia eta Ogasuna	3.360.134	4.064.016	2	2023/01/01
Hezkuntza	1.931.014	5.765.779	9	2022/01/01
Barnea, Funtzio Publikoa eta Justizia	913.489	913.489	4	2023/01/01
Lehendakaritza eta Berdintasuna	901.319	901.319	4	2023/01/01
Etxebizitza, Gazteria eta Migrazio Politikak	476.834	885.112	2	2021/02/15
Kultura, Kirola eta Turismoa	467.725	471.627	7	2022/12/01
Guztira	123.169.316	524.836.244	184	

Bistan denez, egoera horretan dauden 184 prestazioren kontratua amaitu zenetik 2023ko abenduaren 31ra arte metatutako gastua 524,84 milioi eurokoa da, eta horietatik 123,17 milioi ordaindu ziren 2023an fakturretan.

Kontratuaren indarraldia amaitua duten prestazio horiek ordaintzea eragin duten arrazoiak askotarikoak dira, eta bat datoz NFKAren aurreko ekitaldietako kontu orokorre buruzko txostenean adierazi genituenekin (espedienteen hasiera atzeratzea, aurkeztutako errekursoak eta abar).

Aurreko taulan jasotako zenbatekoetan ez daude jasota O-NOZen gastu batzuei buruzko datuak, dagozkien kontratuen indarraldia amaituta egon arren edo kontratu euskarririk ez izan arren ordaintzen ari diren osasun-hornidura eta sendagai batzuei dagozkienak. Kontzeptu horiei lotutako gastua 98,81 milioikoa izan zen 2023an.

Osasun Departamentuari dagokio gasturik handiena, bai 2023an, bai kontratu hori amaitu zenetik metatuta, 83,37 eta 398,30 milioi euroekin, hurrenez hurren, 60 kontraturentzat.

Bestalde, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuaren gastua ere esanguratsua da, baita Eskubide Sozialak, Ekonomiako eta Enpleguko Departamentuarena ere, 2023an gastua 14,16 eta 13,04 milioikoa izan baitzen, hurrenez hurren.

Aurreko guztia ikusita, eta kontuan hartuta departamentuek emandako datuak direla eta ez dugula aztertu egoera horretan gastu gehiago egon ote daitekeen, 2023an 221,98 milioikoa izan zen, gutxienez ere, kontratuen indarraldia amaituta egon arren edo kontratu-oinarri egokirik gabe ordaindutako aurrekontu-gastua (kontuan hartu da taulan ageri den zenbatekoa gehi O-NOZerako aparte adierazitakoa).

¹² Aipatutako gastutik, 2023an, 10,78 milioi aurrekontuaren 6. kapituluaren kontabilizatutako prestazioak dira, eta 93.429 euro aurrekontuaren 4. artikuluan kontabilizatutakoak. Gainerakoa, 112,29 milioikoa, aurrekontuaren 2. kapituluari dagokio.

Beheko taulak egoera horretan ordaindutako gastuaren eta hari dagozkion kontratuen kopuruaren bilakaera erakusten du 2022-2023 aldian:

Departamentua	Ordaindutako gastua			Kontratu kop.		
	2023	2022	2023/2022 aldaketa (%)	2023	2022	Al- dea (%),
Osasuna	83.367.993	84.717.821	-2	60	66	-9
Unibertsitatea, Ikerketa eta Teknologia D.	14.161.655	10.833.662	31	13	10	30
Eskubide Sozialak, Ekonomia Soziala eta En- plegua	13.044.102	41.744.845	-69	41	37	11
Lurralde Kohesioa	4.545.052	2.734.617	66	42	37	14
Ekonomia eta Ogasuna	3.360.134	-		2	-	
Hezkuntza	1.931.014	12.561.722	-85	9	9	0
Barnea, Funtzio Publikoa eta Justizia	913.489	-		4	-	
Lehendakaritza eta Berdintasuna	901.319	1.001.561	-10	4	5	-20
Etxebizitza, Gazteria eta Migrazio Politikak	476.834	342.794	39	2	3	-33
Kultura, Kirola eta Elebitasuna	467.725	396.968	18	7	8	-13
Guztizko orokorra	123.169.316	154.333.989	-20	184	175	5

Aurreko taula aztertuta, honako alderdi hauek azpimarratuko ditugu:


- 2023an ordaindutako guztizko gastua (123,16 milioi) % 20 jaitsi da (31,16 milioi) 2022ren aldean. Egoera horretan, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak eta Hezkuntza Departamentuak nabarmen murriztu dute gastua.

- Kasu horretan ordaindutako prestazioen guztizko kopurua pixka bat handitu da 2021ean, % 5, 2022ko aldean (184 prestazio, eta 2022an 175 prestazio).

- Gastu horiek 2018¹³-2025 aldian izan duten bilakaera honako taula eta grafiko hauetan islatzen da:

Gastua	ABG 2018	ABG 2019	ABG 2020	ABG 2021	ABG 2022	ABG 2023	% 2023/2018 aldea	Batez- bestekoa
Departamentuak	89,65	92,08	68,73	120,70	154,33	123,17	37	108
O-NOZ	103,81	116,69	127,22	98,97	116,23	98,81	-5	110
NFKAren gastua guztira	193,46	208,77	195,95	219,67	270,56	221,98	15	218,40

¹³ Nafarroako kontu orokorren urteko txostenetan informazio hori sartu zen lehen ekitaldia.



Laburbilduz, aztertutako aldiko urteko gorabeheraz gain, egoera horretan gastua % 15 handitu da NFKA osoan. Kontuan izan behar da aldi horretan, nolahi ere, 218,40 milioiko batez besteko gastua dagoela, kontratu-euskarririk gabe, eta premiaz konpondu behar dela.

4.3 BIDEAN ETA NAFARBIDE SOZIETATE PUBLIKOEN SORRERA

- Nafarroako Gobernuak Bidean eta Nafarbide sozietate publikoak sortzeko emandako baime-netan, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kudeaketa- eta kontrol-unitateen txostenek ondorioztatzen dute eraginkortasun- eta efizientzia-printzipioak ez direla behar bezala egiaztatu, eta ez dela bestelako txostenik jaso.

- 2019tik 2023ra bitartean, 2015ean 16 sozietate publiko izatetik 2023an 19 izatera igaro da (% 19ko igoera), eta hiru sozietate berriei kontrako informazioa eman diete, lehen aipatutako unitateek behin eta berriz.

- Baliabideak esleitzeko eta erabiltzeko eraginkortasun-printzipioa, konstituzio-printzipio bat izateaz gain, zeinaren balio arauemailea eztabaiaezina baita, ondoren berariaz jasotzen eta garatzen da aurrekontu- eta finantza-araudian, aurrekontu-egonkortasunean eta finantza-iraunkortasunean, bai eta NFKAren antolamenduan eta funtzionamenduan eragiten duten arauetan ere.

- Ez da ahaztu behar baliabide publikoak esleitzeko eraginkortasun- eta efizientzia-printzipio legalak ezin direla izan adierazpen hutsa, baizik eta behar bezala egiaztatu behar direla, eta lege-printzipio ukaezinak eta errespetatuak direla eta izan behar dutela.

4.4 "BELATEKO TUNELA BIKOIZTEA" OBRA-KONTRATUA

"Belateko tunela bikoiztea" obra-kontratuaren lizitazioa Europako atalasetik gorako esleipen-prozedura irekiaren bidez egin zen, 78,6 milioiko lizitazio-zenbatekoarekin (BEZik gabe), eta esleipen-irizpide gisa kalitate-prezio erlaziorik onena ezarri zen. Guztira zazpi lizitatzailer aurkeztu ziren eta 62,88 milioitan esleitu zen (BEZik gabe), % 20ko bajarekin.

Obra honek garrantzi teknikoa eta ekonomikoa duenez, honako hau adierazten da jarraian:

- Balorazio-irizpideak funtsezko elementuak dira kontratuak esleitzeko, eta, ondorioz, eskaintza egiteko elementu orientatzaileak dira (lizitatzailer dagokienez) eta esleipenduna hautatzeko elementu erabakigarriak (kontratazio-organoari dagokienez).

Berrikusitako espedientea esleitzeko irizpide kualitatiboek 50 puntu dituzte esleituta pleguan, eta bi kontzeptu bereizten dira: X1. Memoria teknikoa (40 puntu) eta X2 obra-programa (10 puntu).

Memoria teknikoaren irizpidea lau ataletan banatzen da, eta atal bakoitzari gehieneko puntuazioa ematen zaio.

Arestian aipatutako ataletako bakoitzaren irizpideak teknikoki garatuagoak eta bereziagoak izan behar ziren, baita puntuazioa esleitzeko modua ere, tratu- eta gardentasun-berdintasunaren printzipioa bermatze aldera; izan ere, irizpide horiek behar bezala ez zehazteak kalte egin diezai-oke lizitatzailleek modu berean interpretatzeko behar duten informazioa izateko duten eskubideari.

Irizpide horiek behar bezala zehaztu eta haztatzeak, halaber, erraztu eta ahalbidetu egiten du Mahaiko kideek jasotako eskaintzen ondorengo balorazio teknikoaren homogeneizatzea, haren objektibotasuna gehiago bermatzea, eta esleitutako puntuazioak justifikatzeko txostena egitea.

- Irizpide kualitatiboen balorazioan, Kontratazio Mahaiko lau kideek beren puntuazioak bidali zizkieten lehendakariari, eta honek berea erabaki zuen, besteek esleitutakoen berri izanda.

Araudiak ez du zehazten zer prozedura jarraitu behar duten kontratazio-mahaiek eskaintza teknikoak baloratzeko, baina ganbera honek uste du prozedura bat ezarri behar dela, non parte-hartzaile guztiek informazio bera izanaren duten puntuazioen inpartzialtasuna bermatzeko, eta, beraz, tratu- eta gardentasun-berdintasunaren printzipioak bermatzeko.

- Kontu-hartzailletza delegatuaren fiskalizazio-dataren eta kontratazio-organoak esleitutako dataren artean, ikusi dugu Kontratazio Mahaiaren ondorengo jarduerak egin direla, eta, beren garrantzia eta garrantzia kontuan hartuta, hasiera batean Ganbera honetara bidalitako espedientean parte hartu behar zutela, gardentasunaren printzipioaren arabera.

- Kontratua kontratu-araudiaren arabera esleitzeko gehienezko epea ez da nabarmen bete, aipatutako epea 80 egunetan gainditu baita.

5. GEHIGARRIA. ERREGULARTASUNARI BURUZKO FISKALIZAZIOAREN OHARRAK ETA AURKIDUTAKO BESTE GORABEHERA BATZUK

Ondoren ohar, iruzkin eta argibide gehigarri batzuk jaso ditugu, Ganbera honen ustez fiskalizazio txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitezkeenak.

Era berean, Ganbera honek beharrezkotzat jotzen dituen gomendioak jaso ditugu, NFKAren, haren erakunde autonomoen, haren sozietateen eta fundazio publikoen ekonomia- eta administrazio-kudeaketa hobetzeko.

5.1. 2023RAKO NAFARROAKO AURREKONTU OROKORRAK

2022ko abenduaren 28an, 2023rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko 35/2022 Foru Legea onetsi zen. Gastuen guztizko zenbatekoa 5.749 milioi izan zen. AEFILO legea betetze aldera, gastu ez-finantzarioaren 4.300 milioiko sabaia ezarri zen.

2023ko aurrekontuak badu gastuetako partiden artean kontingentzietarako funts bat, AEFILO-aren eta NOPFLaren eskakizunekin bat. Funts horrek, hasiera batean, 4,56 milioiko hornidura du, aurrekontuetan aurreikusi ezin izan diren premia geroraezin eta eskatu ahalakoak ez direnei aurre egin ahal izateko.

Aurrekontu-aldaketak

Gastuetarako hasierako kredituek % 12ko igoera garbia izan dute (684,23 milioi euro) aldaketen bitartez, eta kreditu bateratuak 6.433,18 milioikoak izatera iritsi dira.

Hona hemen 2023an onetsitako aldaketak:

(milakotan)

Aurrekontu-aldaketak	Diruzaintza-geldiki- nen finantzatuta	Diru-sarrera han- diagoekin finan- tzatuta	Beste gastu txik. fi- nantzatuta
Kreditu gehikuntzak	42.408	327.023	53.851
Kreditu sorrerak	65.656	92.794	0
Kreditua sartzea	122.761	0	60
Kreditu-gehigarriak	23.995	0	1.317
Aparteko kredituak	8.000	1.595	1.790
Guztira	262.819	421.412	57.018

Aurreko taulan ez dira jaso kreditu transferentziak (30 milioi, guztira), zeren eta eragiketa horiek ez baitute aurrekontu-eraginik kredituen guztizko zenbatekoan.

Kontuen Ganberak, Parlamentuak eskatuta eta indarra duen legeriari jarraituz, legezketasun txostenak egin zituen Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren eskumenekoak diren ekitaldiko aurrekontu-aldaketei buruz. Konklusioa da organo eskudunak onetsi zituela aldaketak, eta onetsitako aurrekontu-araudian ezarritako legezko mugak errespetatu zirela; tartean, finantzaketa-iturrien bidezketasunari dagokiona. Ganbera honek txostena egin dien aldaketen, transferentziak barne, guztizko zenbatekoak 734,56 milioi egin zuen.

Bestalde, aurreikusitako kontingentzia funtsa 1,28 milioiko gastuak finantzatzeko erabili zen (hasierako zuzkiduraren % 28). Nabarmenezkoa da lehen aipatutako 1,28 milioietatik 1,21 milioiko aurrekontu-premiak finantzatu zirela kotizazio gabeko pentsioetan.

2023ko abenduaren 31n ez dago jasota krediturik ez izatearen atxikipenik.

Aurrekontu-likidazioa

2023an aitortutako betebeharrak 5.781,90 milioi egin dute, eta betetzearen eta ordainketaren portzentajeak % 90 eta % 97 izan dira, hurrenez hurren.

Aitortutako eskubide garbiek 5.925,48 milioi egiten dute, eta betetze-maila eta kobrantza-maila % 92 eta % 98 dira hurrenez hurren.

Honako alderdi hauek nabarmendu nahi ditugu:

- 2023an gastatutako 100 euro bakoitzeko, honela bideratu eta finantzatu dira:

Gastuen izaera	Zenbate- koa, 2022	Zenba- tekoa, 2023	Finantzaketa iturria	Zenbatekoa 2022	Zenba- tekoa, 2023
Langileak	29	30	Tributu bidezko diru-sar- rerrak	83	87
Ondasun arruntak eta zerbi- tzuak	15	16	Transferentzien bidezko diru-sarrerak	7	9
Transferentziengatiko gas- tuak	45	45	Ondare bidezko diru-sar- rerrak eta beste	3	3
Inbertsio errealak	4	4	Zorpetzea	7	1
Finantza-zama	8	5			
Finantza-aktiboak	0	1			
Guztira	100	100		100	100

Ikus daitekeenez, 2023an, gastu-egiturak, oro har, ez du aldaketa esanguratsurik izan.


Finantzaketa-egituran, aldaketarik esanguratsuenak zerga-sarrerei dagozkie, 4 puntu igo baitira; zorpetzea, berriz, sei puntu jaitsi da.

- 2023ko aurrekontu-gastua, xedearen edo funtzioaren arabera, hau izan zen:

(milakotan)

Gastu-politika	ABG 2022	ABG 2023	ABGen % Guztira, 2023an	2023/2022 aldearen %
Oinarrizko zerbitzu publikoak	167.613	192.340	3	15
Justizia	36.308	38.624	1	6
Herritarren segurtasuna eta espetze-erakundeak	110.595	130.346	2	18
Atzerri-politika	20.711	23.370	0	13
GASTU SOZIALA (A) + (B)	2.957.891	3.281.231	57	11
(A) Gizarte-babeseko eta -sustapeneko jarduketak	708.102	861.337	15	22
Pentsioak	128.042	138.417	2	8
Bestelako prestazio ekonomikoak	3.026	2.957	0	-2
Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena	423.806	540.582	9	28
Enpleguaren sustapena	71.943	74.015	1	3
Etxebizitza eskuratzea eta eraikuntza sustatzea	81.284	105.366	2	30
(B) Lehentasunezko ondasun publikoen ekoizpena	2.249.790	2.419.894	42	8
Osasuna	1.310.821	1.407.489	24	7
Hezkuntza	869.407	935.766	16	8
Kultura	69.561	76.639	1	10
Jarduketa ekonomikoak	541.149	554.687	10	3
Nekazaritza, abeltzaintza eta elikadura	105.939	114.404	2	8
Industria eta energia	51.043	30.428	1	-40
Merkataritza, turismoa eta ETEak	20.087	12.136	0	-40
Garraiorako dirulaguntzak	60.030	56.587	1	-6
Azpiegiturak	224.707	239.039	4	6
Ikerketa, garapena eta berrikuntza	63.729	82.381	1	29
Izaera ekonomikoko beste jarduketa batzuk	15.613	19.711	0	26
Jarduketa orokorrak	1.933.860	1.753.647	30	-9
Goi zuzendaritza	19.908	23.093	0	16
Zerbitzu orokorrak	265.396	174.250	3	-34
Finantza- eta tributu-administrazioa	31.920	28.738	0	-10
Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa	882.772	911.820	16	3
Estatuarekiko bestelako hitzarmenak	4.850	2.850	0	-41
Toki administrazioentzako transferentziak	312.503	349.975	6	12
Zor publikoa	416.511	262.921	5	-37
Guztira	5.600.514	5.781.905	100	3

Aurreko gastu-kategoriak gastu-politiken, oinarrizko zerbitzu publikoen, gizarte-gastuen (gizarte-babeseko eta -sustapeneko jarduketak eta lehentasunezko ondasunen ekoizpena), jarduera ekonomikoaren eta jarduera orokorren arabera taldekatzen baditugu, hau da gastuaren banaketa 2023an:



2023an, honako hauek izan ziren gastu-politika esanguratsuenak:

(milakotan)

Gastu-politika	ABG, 2023	Guztizko ABGen %, 2023
Osasuna	1.407.489	24
Hezkuntza	935.766	16
Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa	911.820	16
Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena	540.582	9
Zor publikoa	262.921	5

2022tik hona, aldakuntzarik esanguratsuenak honako hauek dira:

a) Gastu-politiken gehikuntzak

(milakotan)

Gastu-politika	ABG, 2022	ABG, 2023	Aldeak	2023/2022 aldearen %
Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena	423.806	540.582	116.776	28
Osasuna	1.310.821	1.407.489	96.668	7
Hezkuntza	869.407	935.766	66.359	8

b) Gastu-politiken murrizpenak

(milakotan)

Gastu-politika	ABG, 2022	ABG, 2023	Aldeak	2023/2022 aldearen %
Zerbitzu orokorrak	265.396	174.250	-91.146	-34
Zor publikoa	416.511	262.921	-153.590	-37

Taula honetan, 2015-2023 aldiko gastu osoaren bilakaera eta gastu esanguratsuenak jaso ditugu, ikuspegi funtzionaletik:

(milioitan)

Gastua	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	Aldea 2023/2015	Aldea (%)
Aurrekontua	3.914	3.967	3.984	4.180	4.396	4.587	5.064	5.601	5.782	1.868	48
Osasuna	958	975	1.018	1.064	1.103	1.218	1.273	1.311	1.407	449	47
Hezkuntza	580	598	635	652	707	770	819	869	936	355	61

Biztanleko gastua	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	Aldea 2023/2015	Aldea (%)
Guztizko gastua biztanleko	6.140	6.195	6.187	6.431	6.696	6.975	7.624	8.336	8.521	2.381	39
Biztanleko osasun gastua	1.503	1.522	1.581	1.638	1.681	1.851	1.916	1.951	2.074	571	38
Biztanleko hezkuntza gastua	910	934	986	1.003	1.077	1.171	1.233	1.294	1.379	469	51

Aurrekontu osoa 1.868,48 milioi handitu dela ikus daiteke, hau da, % 48ko igoera egon dela. Osasun gastua 449 milioikoa izan da (% 47) eta hezkuntza gastua 355 milioikoa (% 61).

Egia bada ere 2020ko ekitalditik aurrera Next Generation funtsen finantzaketatik eratorritako gastuak gastu osoaren zifren barruan sartzen direla, horien zenbatekoa ez da esanguratsua Nafarroako aurrekontu orokorretan¹⁴.

Hala ere, inflazioaren eragina kontuan hartzen badugu, hurrengo taulan datuak termino nominaletan eta errealetan islatzen ditugu:

Gastua	Termino nominalen aldea %	Inflazioa 2015-2023*	Termino errealeen aldea %
Aurrekontuak	48		26,2
Osasuna	47	21,8	25,2
Hezkuntza	61		39,2

*Nafarroako Kontsumoko Prezioen Indize Orokorren (2021 oinarria) 2015-2023ko aldakuntza metatua (iturria: Nastat).

Taula honetan beste bilakaera bat islatzen dugu, ez gastuaren sailkapen funtzionalaren arabera, baizik eta sailkapen ekonomikoaren arabera, eta sailkapen hori ere adierazgarritzat jotzen dugu:

(milioitan)

Gastua	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	Aldea 2023/2015	Aldea (%)
Aurrekontua	3.914	3.967	3.984	4.180	4.396	4.587	5.064	5.601	5.782	1.868	48
Langileak	1.138	1.172	1.238	1.253	1.406	1.469	1.549	1.610	1.734	596	52
Langile-gastuak/guztizko gastua (%)	% 29	% 30	% 31	% 30	% 32	% 32	% 31	% 29	% 30		

Inflazioa kontuan hartuta, langileen gastuaren igoera, termino errealetan, % 30,2koa izan da.

Txostenaren 1. gehigarrian islatutako aurrekontuaren likidazio-egoeratik ondoriozta daitekeenez, aurrekontu-kapitulurik esanguratsuen transferentzia arruntena da, aurrekontuaren % 40koa. Hala ere, adierazten dugu kapitulu honetako informazioa testuinguruan kokatu behar dela, Hitzarmen Ekonomikotik eratorritako Estatuari egindako ekarpena eta nahitaez finantzatu beharreko beste transferentzia mota batzuk barne hartzen baititu, hala nola toki entitateek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren zuzkidura.

Transferentzien ondoriozko gastu horiek alde batera utzita, langileriaren kapitulua da benetan gasturik garrantzitsuen aurrekontu osoari dagokionez.

¹⁴2020an % 0 ziren, eta 2023an % 1,97.

Aurrekontu publikoek NFKAn izan duten bilakaerari dagokionez, honako hau nabarmentzen dugu:

- Gehigarri honetako 5.3 atalean zehazten den bezala, Erantzukizun Fiskaleko Agintaritzaren Independentzia (aurrerantzean AIREF) agerian utzi du gastu-araua ez betetzeko arriskua dagoela autonomia-erkidego guztietan, baita Nafarroako Foru Komunitatean ere.

Babes-klausularen indarraldia amaitu ondoren arau fiskalak berraktibatzeak esan nahi du 2025erako aurrekontuak izanen direla gastu-bidea betetzea arau fiskal nagusi gisa agertzen den lehenak. Egoera berri horrek NFKAren aurrekontu orokorrek izan duten hazkunde hedakorren maila mugatuko du.

- NOPFLren 30. artikulua NFKAren programaren arabera aurrekontuak arautzen ditu. Helburuak lortzeko unitate organikoen eskura dauden baliabideen multzoa aurrekontu-programa bat da¹⁵.

Beraz, programen arabera aurrekontuak politika publikoen finantza-plangintza osatzen dute, eta, ondorioz, alde aurretik definitutako helburuen arabera baliabideen esleipena. Ondoren, aurrekontu-programa bakoitzaren eraginkortasuna eta efizientzia ebaluatu behar da, gastua kudeatzen duten zentroetarako aurrekontu-esleipenek, besteak beste, aurreko ekitaldietako helburuen betetze-maila kontuan hartzen dutela egiaztatu ahal izateko.

NFKAn, bai aurrekontuak egiteko, bai kontu orokorretarako, aurrekontu-programa bakoitzaren dokumentu batzuk daude. Hainbat datu-kategoriarekin egiten dira¹⁶, programetan proiektatutako helburuak eta benetan lortutakoak alderatu ahal izateko, gertatzen diren desbideratzeak zehaztu eta aztertu ahal izateko.

Aipatutako dokumentuek, ganbera honen iritziz, ahulezia hauek dituzte, oro har:

a) Ez du aukerarik ematen gastu-aurrekontuak aurreko ekitaldiarekin edo aurrekoekin alderatuta izan duten benetako bilakaera agerian uzteko.

b) Aurreikusitako adierazleek ez dute helburuen emaitza eraginkortasunaren eta efizientziaren arabera neurtzen, organo kudeatzaile bakoitzaren jardura-maila baizik.

c) Aurrekontu-programen helburu, ekintza eta adierazleen konfigurazioa aplikazio formalagoa da benetako baino, ez baitago jasota ondorengo ebaluazio-sistema eraginkorrik.

Ondorioz, aurrekontu-programak behar bezala ebaluatzen ez badira, informazio-iturri horren erabilgarritasuna urria edo nulua da.

Hori guztia dela-eta, *gomendio* hauek egiten ditugu:

- *Aurrekontu-programen jarraipena, kontrola eta ebaluazio eraginkorra egitea, aurrekontu-baliabideen esleipenaren eraginkortasuna eta efizientzia aztertzeke.*

- *Ekonomia eta Ogasun Departamentuak eta Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentuko Politika Publikoen Plangintza, Koordinazio, Berrikuntza eta Ebaluazioko Zuzendaritza Nagusiak batera programatuko eta ebaluatuko dituzte aurrekontu-programak.*

¹⁵ Batez ere, zuzendaritza orokorrean, zerbitzuan eta erakunde autonomoetan.

¹⁶ Helburuak/Ekintzak/Adierazleak.

Aurrekontu-likidazioaren adierazleak

Taulak honek 2022 eta 2023ko ekitaldietarako gastuen eta diru-sarreraren aurrekontu-likidazioarekin lotutako adierazle batzuen konparazioa dakar:

(milakotan)			
Adierazlea	2022	2023	2023/2022
Gastua, guztira	5.600.514	5.781.904	3
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4. kapitulura)	4.779.481	5.015.609	5
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kap.)	4.735.802	4.973.473	5
Kapital-gastuak (6. eta 7. kap.)	405.716	509.211	26
Finantza-eragiketen gastuak (8. eta 9. kap.)	415.317	257.084	-38
Diru-sarrerak, guztira	5.916.577	5.925.483	0
Diru-sarrera arruntak (1.-5. kap.)	5.289.367	5.661.013	7
Tributu bidezko diru-sarrerak (zergak, tasak eta kontrib. be-reziak)	4.926.642	5.162.063	5
Tributu bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (ehunekoa)	103	103	0
Tributu bidezko diru-bilketa likidoa*	4.979.457	5.104.566	3
Tributu bidezko diru-bilketa likidoa / BPGa (ehunekoa)	21,22	20,86	-2
Kapitaleko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	199.689	192.813	-3
Finantza-eragiketen bidezko diru-sarrerak (8. eta 9. kapituluak)	427.523	71.654	-83

* Diru-bilketa likidotzat ulertzen dira urteko ekitaldian eta itxitako ekitaldietan eskudirutan egindako kobrantzak gehi formalizazioak eta konpentsazioak ken itzulketak.

Arestiko datu horiek kontuan hartuz, ondoko alderdiak azpimarratu nahi ditugu:

- 2023an, gastuak, guztira, 5.781,9 milioi eurokoak dira, eta % 3 handitu dira (181,39 milioi) 2022. urtearen aldean.

- Izaeraren arabera, gastu arruntak guztizkoaren % 87 dira, eta % 5 igo dira; finantza-eragiketei dagozkienak % 4 dira, eta % 38 jaitsi dira 2022ren aldean (batez ere, 2023ko ekitaldian ez delako amortizazio aurreraturik egin, aurreko ekitaldian ez bezala, 146,5 milioiko maileguak alde aurretik amortizatu baitziren). Bestalde, kapital-gastuek gainerako % 9a hartzen dute, eta 103,49 milioi handiagoak izan dira, hau da, % 26 hazi dira.

- 2023ko diru-sarrerak 5.925,48 milioikoak dira, eta apenas handitu dira 2022koekiko (8,9 milioi).

Gehien handitu diren diru-sarrerak arruntak dira, % 7 igo baitira (371,65 milioi), batez ere zerga bidezko sarrerengatik, 235,42 milioi handitu baitira, % 5.

Bestalde, finantza-eragiketen bidezko diru-sarrerak 355,87 milioi gutxiago izan dira, % 83 gutxiago, 2022an maileguak finantza-erakundeekin soilik hitzartu baitira. Aurreko ekitaldian ez bezala, ez zen zor publikorik jaulki.

- Tributu bidezko diru-bilketa likidoa 5.104,56 milioikoa izan zen 2023an, 2022koa baino % 3 (125,11 milioi) handiagoa.

Diru-bilketa hori Nafarroako BPGaren % 20,86 da (24.475 milioi euroko BPGa zenbatetsi da), 2022an baino % 2 gutxiago.

5.2. NFKAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN EGOERA EKONOMIKO-FINAN-TZARIOA 2023KO ABENDUAREN 31N

Hurrengo taulan, NFKaren eta haren erakunde autonomoen egoera ekonomiko-finantzarioekin lotutako adierazle batzuen bilakaera erakusten dugu, 2022. eta 2023. urteetan:

Adierazleak	2022	2023	(milakotan)
			Aldea (%) 2023/2022
Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa	303.857	329.006	8
Aurrekontu-emitza doitua	295.271	96.473	-67
Aurrezki gordina	553.565	687.540	24
Finantza-zama (3. eta 9. kap.)	425.108	266.351	-37
Aurrezki garbia	128.457	421.189	228
Finantza-zorra *	2.867.732	2.695.268	-6
Zorren ehunekoa diru-sarreraren gainean	54	48	-11
Diruzaintzako geldikina, gastu orokorretarakoa	113.698	196.463	73
Eratutako abalak (saldo bizia)	42.118	43.836	4
Etorkizuneko ekitaldietarako hitzartutako gastuak	3.889.519	3.720.465	-4

*Kostu amortizatukoa.

Aurreko bilakaeratik, honako hau nabarmendu behar dugu:

- Finantzazkoa ez den aurrekontu-saldoa 2023an, % 8 handitu bazen ere, igoera 25,15 milioi-koa izan zen; munta hori ez da esanguratsua guztizko gastuarekiko. Hala ere, aurrekontu-emitza doitua % 67 jaitsi zen (198,79 milioi), batez ere pasibo finantzarioen aldakuntza garbiagatik (pasibo finantzarioengatik gastuek pasibo finantzarioengatik sarrerak gaintitu zituzten), 2023an 174,21 milioiko balio negatiboa izan baitzuen, 2022ko ekitaldian 24,76 milioiko balio positiboaren aldean.

- 2023ko aurrezki gordina % 24 handitu zen aurreko ekitaldiaren aldean, ohiko diru-sarrerak (% 7) gastu arruntak (% 5) baino gehiago hazi zirelako. Finantza-karga % 37 murriztu zen, eta horri esker aurrezki garbia 292,73 milioi handitu da (% 228).

- Finantza-zorrak 172,46 milioiko murrizketa izan du, hau da, % 6ko aldaketa negatiboa. Diru-sarreraren % 48 da, eta aurreko ekitaldian % 54.

- Gastu orokorretarako diruzaintza-geldikina nabarmen handitu zen, 82,76 milioi handitu baitzen, batez ere ekitaldiaren itxieran ordaintzeko zeuden obligazioak 31,27 milioi gutxitu zirelako eta funts likidoak 58,26 milioi gehitu zirelako.

- Zorraren aldearen aurrekontu-bilakaera (hitzartutako zorra ken amortizatutako zorra) honako hau izan da 2014-2023 bitartean, milioitan:

	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Hitzartutako zorra	492,58	446,94	579,70	498,01	208,06	214,46	648,37	149,44	406,19	50
Amortizatutako zorra	296,53	307,23	416,08	293,93	373,15	336,99	289,94	606,62	381,43	224,21
Zorraren aldea	196,05	139,71	163,62	204,08	-165,09	-122,53	358,43	-457,18	24,76	-174,21

Azken batean, pandemiak sortutako egoerak administrazio publiko guztiei eragin zien susperze-prozesu bat gauzatu ondoren, NFKAren eta haren erakunde autonomoen egoera ekonomiko-finantzarioak hobera egiten jarraitzen du adierazle esanguratsuetan.

- Bestalde, etorkizuneko ekitaldietarako hitzemandako aurrekontu-gastuak 3.720,46 milioi eurokoak dira, eta horietatik % 78 zorraren finantza-zamari dagozkio. 2022ko datuekin alderatuta, gastu horiek % 4 egin dute behera.

Hona kapituluz kapituluko eta urtez urteko xehetasunak:

(milakotan)

Kapitulua	2024	2025	2026	Gainerako urteak	Guztira	% guztien arabera
1. Langileria-gastuak	2.757	0	0	0	2.757	0
2. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	247.668	60.828	31.212	38.129	377.836	10
3. Finantza-gastuak	34.845	27.818	25.812	149.040	237.514	6
4. Transferentzia arruntak	82.952	11.256	2.071	1.002	97.281	3
6. Inbertsio errealak	62.236	26.406	9.249	974	98.865	3
7. Kapital-transferentziak	140.536	71.400	12.802	10.216	234.954	6
8. Finantza-aktiboak	2.850	2.350	1.350	0	6.550	0
9. Finantza-pasiboak	234.529	261.340	213.760	1.955.080	2.664.708	72
Etorkizuneko ekitaldietako gastuak, guztira	808.373	461.397	296.256	2.154.440	3.720.465	100
<i>Ehunekoa/urtea</i>	<i>22</i>	<i>12</i>	<i>8</i>	<i>58</i>	<i>100</i>	

Aurreko gastuek ez dituzte jasotzen ez funtzionarioen montepioen betebeharrak aktuarialak, ez itzaleko bidesarrietatik datozen gastuak, ez eta interes aldakorra duten maileguengatik zenbatetsitako interesak ere.

Horri buruz, nabarmendu behar dugu oroitidazkian itzaleko bidesarrietatik heldu diren eta aurreikus daitezkeen ordainketa-fluxuekin lotutako informazioa jaso dela, etorkizuneko gastu-konpromisoetan jaso gabe baitaude, haien munta zein den ezin delako jakin. Honako hauek dira:

(milakotan)

Azpiegitura	2024	2026	2026	Gainerako	Guztira
Nafarroako Ubidea, 1. fasea	19.207	19.736	20.280	218.099	277.322
Nafarroako Ubidearen zabalkuntza, 1. fasea	14.157	17.309	17.742	393.268	442.476
Donejakue Bideko autobia	57.730	65.679	67.792	69.977	261.178
Pirinioetako autobia	21.207	25.936	26.802	431.251	505.096
Guztira	112.301	128.560	132.616	1.112.595	1.486.072

Iturria: NFKAko urteko kontuen oroitidazkia.

5.3. AURREKONTU-EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN PRINTZPIOAK

COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioz, eten egin zen 2020-2021 urteetarako egonkortasunari, zorrari eta gastu-arauari buruzko zerga-arauak betetzea. Ondoren, Ministro Kontseiluaren 2022ko uztailaren 26ko Erabakiaren bidez, arau fiskalak 2023an ezabatzeari eustea onartu zen.

2023ko kontu orokorren oroitidazkiak dakarrenez, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa Koordinatzeko Batzordeak erabaki zuen, 2022ko abenduaren 2an, berrestea Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioko Ogasuneko Estatu Idazkaritzaren eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren artean defizitaren eta zor publikoaren erreferentziatzko tasei buruz sinatutako akordioa. Honako hauek dira:

- % 0,6ko defizita 2023rako. 2023ko kontu orokorren oroitidazkiaren arabera, ez dago defizitik eta superabita % 1,4ekoa da. Beraz, adostutakoa betetzen ari da.
- BPGaren % 14,5eko zor publikoa 2023rako. Zor publikoa, 2023ko kontu orokorren oroitidazkiaren arabera, % 12koa da, eta, beraz, adostutakoa betetzen ari da.
- Gastu-arauaren kasuan, aipatutako akordioan ez zen horri buruzko ezer zehaztu, Kongresuko Osoko Bilkurak onartutako etetearekin ondorioz gabe geratu baitzen. Nolanahi ere, 2023ko kontu orokorren memoriak adierazten du Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioa, 2024ko maiatzean, AEFILOren 17. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, arau horren ondorioetarako konputagarria den gastua kalkulatzera mugatzen dela, helburu hori bete den edo ez balioesten hasi gabe, eta Nafarroako Foru Komunitatearentzat % 5,9ko aldakuntza-tasa dela.

Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren sektoreak, zeina kontabilitate nazionaleko terminoetan (EKS 2010) mugatuta baitago, 2023an finantza-iraunkortasunaren printzipioaren araberrako eskakizun hauek bakarrik bete behar zituen:

- Merkataritza-zorraren iraunkortasuna: hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldiaren adierazleak ez du gainditu behar berankortasunari buruzko araudian finkatutako ordainketarako gehieneko epea. Araudi hori Merkataritza-eragiketarako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legeak ezarri zuen. Oro har, epe hori 30 egunekoa da.

Horri dagokionez, Nafarroako Gobernuak hilerok argitaratzen du adierazlearen balioa Administrazio Publikoaren sektorearen ordaintzeko batez besteko epeari dagokionez. Honako hauek dira datuak:

2023	Ordaintzeko batez besteko aldia (egunetan)
Urtarrila	22,40
Otsaila	24,82
Martxoa	23,46
Apirila	24,24
Maiatza	26,14
Ekaina	22,87
Uztaila	28,34
Abuztua	31,56
Iraila	28,68
Urria	29,17
Azaroa	25,37
Abendua	24,11

Iturria: Nafarroako Gobernuak.

Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren sektoreak merkataritza-zorraren iraunkortasunaren printzipioa bete zuen 2023an, eta ez zuen gainditu araudian ezarritako epea 12 hilabeteetatik 11tan. Egiaztatu dugu ez dela atzerapen nabarmenik izan hornitzaileei egindako ordainketetan, berandutze-interesengatik gastuak eragin dituztenik.

- Zuhurtzia finantzarioa, edo finantza-eragiketek arriskua eta kostua ahal den guztian gutxitzeko bete beharreko baldintzen multzoa; honako honetan gauzatzen da:

a) Finantza-pasiboak edo zorpetzea. Zorpetze-eragiketen gehieneko guztizko kostuak, komisioak eta bestelako gastuak barne, ezin izanen du gainditu Estatuaren finantzaketaren kostua eragiketaren epe ertainean, diferentzial jakin batzuk gehituta, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiaren 2015eko uztailaren 31ko eta 2017ko uztailaren 4ko ebazpenei jarraituz.

Egiaztatu dugu baldintza hori betetzen dela 2023an gauzatu diren zorpetze-eragiketetan.

b) Abalak, berrabakak edo bestelako berme publikoak. Koordinazio Autonomikoaren eta Tokikoaren Idazkaritza Nagusiaren 2015eko irailaren 9ko Ebazpenari jarraituz, bi muga ezartzen dira EKSen arabera bateratze-perimetroa osatzen ez duten entitateei abalak emateko: alde batetik, muga orokor bat, zeinaren arabera abenduaren 31n abalen eta emandako gainerako bermeen zenbatekoak gehi hurrengo ekitaldirako aurreikusitako baimenek ezin izanen baitute gainditu Nafarroaren BPGaren % 1,5; bestetik, banakako muga bat, zeinaren arabera emandako abal edo berme batek ezin izanen baitu gainditu 25 milioiko edo Nafarroaren BPGaren % 0,1eko muga.

Ondorio horietarako, Foru Komunitateak, 2023ko abenduaren 31n, abalen eta bestelako bermeen bolumen bat aurkeztu zuen, 100 milioikoa, EKS 2020 sistemaren arabera definitutako Administrazio Publikoaren Sektorea osatzen duten pertsona fisiko eta/edo juridikoez bestelako pertsona juridikoei emandakoa. Bestalde, Nafarroako 2024rako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeak 93 milioiko abalak ematea aurreikusten du.

Horrenbestez, 2023an emandako eta 2024rako aurreikusitako abalen zenbatekoa 193 milioikoa da, eta zenbateko horrek Nafarroaren BPGaren % 1 egiten du. Portzentajea legeriak aipatzen duen % 1,5eko mugatik behera dago; hortaz, arau hori bete egin da.

Bestalde, ez dago jasota inongo hirugarrenek banakako zenbatekoetan abalik edo beste bermerik jaso duenik 25 milioiko edo Nafarroaren BPGaren % 0,1eko mugatik gora.

c) Finantza-aktiboak. Aipatutako irailaren 9ko Ebazpenaren arabera, eta zor publikoaren helburua betetzen ez duten autonomia erkidegoei zuzenduta, azken horiek ezin izanen dute finantza-aktiboen alde garbi positiborik izan ez-betetzearen hurrengo aurrekontu-ekitaldiaren itxieran. Nafarroak 2022an helburu hori bete zuenez, betebeharrak ezin zaio aplikatu 2023ko ekitaldiari.

Labur esanda, Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren sektoreak, 2023ko ekitaldian, Hitzarmenaren Koordinazio Batzordean ezarritako erreferentziazko parametroak bete ditu, baita finantza-iraunkortasunaren printzipioari buruz indarrean dauden eskakizunak ere.

Hala ere, geroko egitate gisa, adierazten dugu AIREFek, 2024ko uztailaren 17ko aurrekontu-betearazpenari, zor publikoari eta 2024ko gastu-arauari buruzko txostenean, autonomia-erkidegoetan (Nafarroako Foru Komunitatea barne) *“... gastu-araua ez betetzearen arriskuak bere horretan dirauela. Egoera horrek eta herrialdekako gomendioa betetzean eta kontu publikoen epe ertaineko narriaduran dituen ondorioek AEFILOn aurreikusitako neurriak abian jartzea gomendatzen dute”*.

5.4 LANGILERIA-GASTUAK

2023an, langileria-gastuak 1.734,28 milioi eurokoak izan dira, gastu guztien % 30, hain zuzen. Langile-gastuen % 42 Osasun Departamentuari dagokio; % 32, Hezkuntza Departamentuari; eta % 16, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Barneko eta Justiziako Departamentuari.

Hauxe da aurrekontuko artikuluen arabera banaketa:

(milakotan)			
Aurrekontuko artikulua	Aitortutako betebeharrak, 2022	Aitortutako betebeharrak, 2023	Aldea (%) 2023/2022
Goi kargudunak	4.877	5.069	4
Behin-behineko langileak	3.538	3.535	-
Lanpostuko ordainsariak	978.922	1.025.742	5
Langileen ordainsariak	158.226	166.883	5
Kuota, prestazio eta gastu sozialak	370.817	407.266	10
Ordainsari aldakorak	84.574	99.399	18
Beste ordainsari batzuk	8.655	26.387	205
Guztira	1.609.608	1.734.281	8

2022. urtearen aldean, langile-gastuak % 8 (124,67 milioi) igo ziren. Hauek dira alde horren arrazoi nagusiak:

- 2022arekiko benetako soldata-igoera % 3,5ekoa izan zen¹⁷, nahiz eta 0,5eko azken igoera 2024ko aurrekontuan aplikatu zen; beraz, 2023ko aurrekontuak % 3ko igoera jasotzen du.

- Lanpostuaren ordainsariei buruzko informazioa aurrekontu-kontzeptuari dagokionez bereizten badugu, informazio hau lortuko dugu:

(milakotan)				
Aurrekontu-kontzeptua	Aitortutako betebeharrak, (ABG), 2022	Aitortutako betebeharrak, (ABG), 2023	Aldea	Aldea (%)
Langile finkoen ordainsariak	517.797	568.721	50.924	10
Lanpostu erreserbatuetarako kontratatutako langileen ordainsariak	48.475	49.797	1.322	3
Lanpostu hutsak betetzeko kontratatutako langileen ordainsariak	134.385	127.521	-6.863	-5
Aldi baterako langile lan-kontratudunen ordainsariak	181.408	174.115	-7.293	-4
Kanpainetarako kontratatutako langileen ordainsariak	21.752	23.933	2.181	10
Ordezko lanak egiteko kontratatutako langileen ordainsariak	75.105	81.654	6.549	9
	978.922	1.025.742	46.819	5

Honako hau ikusten da:

- % 10eko igoera gertatu da, termino absolutuetan, 50,92 milioi langile finkoen ordainsarietan. % 3a arestian aipatutako soldata-igoeratik dator, eta gainerakoa 2023an langile finkoek izandako gehikuntzagaratik azaltzen da, 2022an 15.725 langile finko izatetik 2023an 17.211 langile finko izatera igaro baita, egonkortze-prozesuen ondorioz.

- Aldi baterako kontratatutako langileen ordainsariak % 4 gutxitu dira, eta hori arestian aipatutako langile finkoen gehikuntzarekin azaltzen da.

¹⁷Hasieran onartutako igoera % 2,5ekoa izan zen, eta horri beste bi igoera gehitu zitzaizkion: % 0,5ekoa, 2023ko urrian inflazioaren ondorioak konpentsatzeko, eta beste % 0,5 handiagoa, 2024ko martxoan erregularizatu zen BPGaren igoeratik.

- Bestalde, lanpostu hutsak betetzeko kontratatutako langileen ordainsariak % 5 murriztu dira, langile finkoekin bete gabe dauden eta egonkorte-prozesuetan sortutako plantilla organikoko plaza berrien gastua kontzeptu horri egotzi baitzitzaion iaz.

- Hala ere, kontratatutako langileen guztizko gastua % 1 baino ez da murriztu, kontratatutako langileei dagozkien gainerako kontzeptuak (erreserbatutako plazetarako, ordezkapenentarako eta kanpainentarako) % 7 igo baitira.

• Funtzionarioen pentsio arrunten gastua % 8 igo da (8,85 milioi), eta pentsiodunentzat onartutako igoerarekin (% 8,5) eta pentsiodunen kopuruaren jaitsierarekin (taula honetan ikus daiteke) azaltzen da:

Pentsiodunak	Kopurua
Pentsiodunak 2022an	4.005
Bajak 2023an	243
Pentsiodun berriak 2023an	134
Pentsiodunak 2023an, guztira	3.896

• Ordainsari aldakorren artean, 1,57 milioiko igoera ikusten da Foruzaingoan, nagusiki 2023ko azaroan, 227/2023 Foru Dekretua, Nafarroako Foruzaingoaren lanaldien, ordutegien eta ordainsarien araudia onartzen duena, indarrean sartzearen ondorioz.

Produktibitate-osagarriaren gastua 9,85 milioi handitu da, hau da, aurreko urtean baino % 46 gehiago.

Legebiltzarrak O-NOZen produktibitateari buruz egindako eskaerari erantzunez, igoera hori erakunde autonomo horri dagokio, 9,02 milioi, honako xehetasun hauekin:

(eurotan)				
O-NOZ	2022	2023	Aldea	Aldea (%)
Produktibitate-osagarria	19.307.158	28.323.395	9.016.238	47

Igoera horren arrazoi nagusia medikuei emandako 400 euroko soldata-hobekuntza da, martxoaren 29ko 11/2023 Foru Legea indarrean sartu zenetik produktibitate gisa gauzatu dena¹⁸.

Nomina-kontzeptuen arabera banakapenak honako informazio hau ematen du:

O-NOZen produktibitate-osagarria	2022	2023	Aldea	Aldea (%)
400 €-ko soldata egoeraren kontzeptua	-	8.362.138	8.362.138	
Gainerako soldataren kontzeptuak	19.307.158	19.961.258	654.100	
Guztira	19.307.158	28.323.396	9.016.238	% 47

Hau da, O-NOZeko produktibitate-osagarriaren igoeraren % 93 emandako soldatarik onenari zor zaio, lehen aipatu bezala.

• Aurreko ekitaldietako langileen ordainsariak % 223 igo dira. Igoeraren % 89 Foruzaingoari dagokio, eta lehen aipatutako 227/2023 Foru Dekretua aplikatzearen ondorioei erantzuten die; dekretu horrek 2019tik aurrerako ordainsarien erregularizazioa jasotzen du.

¹⁸11/2023 Foru Legea, martxoaren 29koa, Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideari atxikitako langileen berriazko erregimena arautzen duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legea aldatzen duena (78. NAO, 2023ko apirilaren 18koa).

Plantilla organikoa eta enplegu publikoaren eskaintza

NFKAneta haren erakunde autonomoetan 2023ko abenduaren 31n izendapen askeko zuzendaritza-karguak betetzen dituzten langile finkoen eta behin-behinekoen zerrenda eta plantilla organikoa ez dira argitaratu txosten hau eman den egunean. Ganbera honek, aurreko txostenetan behin eta berriz egin duen moduan, nabarmentzen du informazio hori atzerapenez argitaratu zela.

Hala ere, Funtzio Publikoak eman digun informazioarekin, plantilla organikoko plazak 26.101 ziren 2023ko abenduaren 31n, 2022koa baino 241 plaza gehiago. Honako hau da lanpostu beteen eta hutsen azalpena:

Lanpostuak	Administrazio Erroa		Hezkuntza		O-NOZ		Guztira	
	2022	2023	2022	2023	2022	2023	2022	2023
Beteta	4.484	4.758	6.158	6.475	6.156	7.311	16.798	18.544
Hutsik	2.588	2.460	2.617	2.396	3.857	2.701	9.062	7.557
Lanpostuak, guztira	7.072	7.218	8.775	8.871	10.013	10.012	25.860	26.101

Lanpostuen % 38 O-NOZi dagozkio; % 34 Hezkuntzari, eta gainerako % 28a Administrazio Erroari. Plaza guztietatik, % 71 beteta daude eta % 29 hutsik daude. Ehuneko horiek aurreko ekitaldiarekin alderatuta izan duten aldaketa nabarmendu behar dugu, % 65 eta 35eko aldaketak izan baitira, hurrenez hurren.

2022an eta 2023an honako hau da betetako lanpostuen banaketa tipologiaren arabera:

Betetako lanpostu mota	2022	2023
Lanpostu ez-oinarrizkoak		
Behin-behineko langileak	148	154
Burutzak	1.543	1.561
Oinarrizko lanpostuak	15.107	16.829
Betetako lanpostuak, guztira	16.798	18.544

2023an, guztira, 18.544 plaza bete dira, 2022koa baino % 10 gehiago (1.746 plaza). 2022arekin alderatuta, aldaketarik handiena oinarrizko plazetan izan da, % 11 gehitu baitira (1.722 plaza).

Kontu orokorren oroitidazkian ageri denez, 2.546 lanpostu beren titularrek betetzen dituzte, hainbat arrazoi tarteko: eszedentziak, burutzengatik erreserbak, zerbitzu-eginkizunak, prestakuntzarako, hobekuntzarako edo ikerketarako zerbitzu bereziak, eta abar.

Hutsik dauden lanpostuen egoera eta bilakaera, lanpostuen guztizkoari erreferentzia eginda, honako taula honetan ageri dira:

Kontzeptua	2022	2023
Lanpostuak, guztira	25.860	26.101
Hutsik	9.062	7.557
Lanpostu hutsak lanpostu guztien gainean (%)	35	29
Betetako lanpostu hutsak	5.768	4.510
Betetako lanpostu hutsak lanpostu huts guztien gainean (%)	64	60

2023an, lanpostu guztien % 29 hutsik zeuden, eta, horien barruan, % 60 behin-behinean beteta zeuden. Ehuneko horiek 2022koak baino txikiagoak dira.

Egiaztatu dugu argitaratu beharreko txantilo organikoaren dokumentuan oinarri gisa erabiltzen diren datuak eta kontu orokorren memorian horri buruz emandako informazioa bat datozela.

Gobernuak 17 foru-dekreturen bidez plantilla aldatzea onartu zuen, 61 plaza amortizatzeko (27 Administrazio Errokoak, hiru Hezkuntza Departamentuak eta 31 Osasun Departamentukoak) eta 247 sortzeko (98 Administrazio Errokoak, 113 Hezkuntza Departamentukoak eta 36 Osasun Departamentukoak).

Aldaketa horiez gain, 55 plazako aldaketa garbia dago (147 plaza berri eta 92 kendu egin dira), gobernu berriarekin onartzen diren egitura-aldaketen ondorioz, hauteskunde autonomikoen ondorioz. Hona hemen xehetasuna:

Kontzeptua	Plazak
Plantilla organikoaren plazak 2022an	25.860
Plazak sortzea Foru-dekretuaren bidez eta NAO on argitaratzea	247
Gobernuak sortua	147
Plazak amortizatzeko Foru-dekretuaren bidez eta NAO on argitaratzea	-61
Gobernu berria sortzeagatik bertan behera utzitako plazak	-92
Plantilla organikoaren plazak 2023an	26.101

Egiaztatu dugu aldaketa horiek guztiak argitaratu beharreko txantiloaren dokumentuan sartu direla.

Berezarpen- eta egonkortze-tasen azterketa

2023an, Lan Eskaintza Publikoak (aurrerantzean, LEP) onartu dira, eta honako plaza hauek aurreikusi dira:

	Administrazio erroa	Hezkuntza	Osasuna	Guztira
Ohiko ordezte-tasa	306	260	290	856
Ordezte-tasa espezifikoak	601	267	281	1.149
Guztira	907	527	571	2.005

Ikus daitekeenez, 2.005 lanpostuetatik 907 (% 45) Administrazio Erroari dagozkio, 571 (% 28) Osasun Departamentuari, eta gainerako 527 lanpostuak (% 26) Hezkuntza Departamentuari.

Ordezte-tasa arautzen duen araudia Estatuaren 2023rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 22ko 31/2022 Legearen 20. artikuluan dago. Bertan, aurreko urteetan bezala, ordezte-tasaren kalkulua arautzen da, ekitaldian zehar langileen alden eta bajen arabera. Hala ere, aurten berritasun gisa, honako hau sartu da artikuluan honetan:

“Administrazio bakoitzak, aparteko izaeraz, Enplegu Publikoan dagoen Behin-behinekotasuna Murrizteko Premiazko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean aurreikusitako helburua betetzeko beharrezkoa den tasa espezifiko bat baimendu ahal izanen du, enplegu publikoaren behin-behinekotasuna ez dadin izan bere eremu bakoitzeko egiturazko plazen % 8 baino handiagoa, betiere, izan beharko duen urte anitzeko plangintza-tresnaren arabera justifikatuta badago”.

Beraz, aurtengo erregulazioak ohiko ordezte-tasa bat definitzea ekarri du, eta 856 lanpostutan zenbatu da, hiru eremuetarako 307/2023, 305/2023 eta 306/2023 foru-dekretuetan arautu den bezala.

Gainera, eremu bakoitzerako berriazko ordezte-tasa bat definitu da, 308/2023, 303/2023 eta 304/2023 foru-dekretuetan arautua, guztira 1.149 plaza barne.

- Ohiko ordezte-tasari dagozkion plazak sartzeko legez eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten aztertu dugu, eta emaitza zuzena da.

• Berriazko ordezte-tasaren aplikazioari dagokionez, tasa horri buruzko enplegu-eskaintza partzialak onartzen dituzten dekretuen hitzaurrean adierazten da lanpostuen proposamena plantillaren azterketa egin eta NFKAko funtzionarioen eta estatutupeko langileen negoziatio-mahai orokorrarekin negoziatu ondoren egiten dela. Gainera, lanpostu huts gisa ageri dira horiek guztiak plantilla organikoan (aurrerantzean, PO), eta horiek betetzeko aurrekontu-zuzkidura nahikoa dute.

Foru-dekretuetan, berriazko ordezteko LEPko plazak definitzeko egindako prozesua azaltzen da. Horietan % 40,35eko behin-behinekotasuna aipatzen da, tasa espezifiko hori onartu beharra justifikatzen duena. Horretarako, hutsik dauden plaza guztiak deialdi berririk ez duten lanpostuetan edo plantillan duten ordezkaritza handia dela-eta laster finkatzea beharrezkotzat jotzen den lanpostuetan sartzea proposatu dute.

Tasa hori aukerakoa da, eta beharrezkotzat jotzen diren plazetarako deialdia egiteko aukera ematen du, erabakia berriaz tasatutako baldintzak betetzearen mende egon gabe, ohiko ordezte-tasaren kasuan bezala.

Horren guztiaren ondorioz, 584 lanpostuko deialdia egin da Administrazio erroan, 267koa Osasunean eta 281ekoa Hezkuntzan, 1.132 plazarekin. Ondorengo txosten osagarri batean, Administrazio erroaren plaza kopurua 601era igo da, hau da, 1.149 plaza guztira.

Ekitaldiko eta aurreko ekitaldietako EPEen egoera taula hauetan laburbiltzen da:

Administrazio Erroa	2022an deitzeke dauden plazak	2023an eskainitako plazak	2023an deitutako plazak eta ebatzteke daudenak	2022an egonkortzeko EPEa pasatutako plazak	2023an deitzeke dauden plazak
2021 Egonkortzeko EPEa 2017 % 10	10	0	0	7	3
Hezkuntza egonkortasuna 2018	10	0	0	8	2
Ordeztea 2021	76	0	35	0	41
Ordeztea 2022	254	0	125	0	129
Ohiko ordezte 2023	0	306	40	0	266
Ordezte espezifikoa 2023	0	601	0	0	601
Guztira	350	907	200	15	1.042

Osasuna	2022an deitzeke dauden plazak	2023an eskainitako plazak	2023an deitutako plazak eta ebatzteke daudenak	2023an deitzeke dauden plazak
2019 arteko EPEak	0	0	107	0
2022 arteko EPEak	888	0	634	254
Egonkortzeko EPEa 2022	0	0	1.100	0
2023. OPE	0	527	39	488
Guztira	888	527	1.880	742

Hezkuntza	2022an deitzeke dauden plazak	2023an eskainitako plazak	2023an deitutako plazak eta ebazteke daudenak	2023an deitzeke dauden plazak
Ordezteko EPEa 2022	253	0	160	93
Ohiko ordezteko EPEa 2023	0	290	0	290
Ordezte espezifikorako EPEa 2023	0	281	0	281
Guztira	253	571	160	664

Nabarmentzekoa da EPEetako datuak etengabe eguneratzen direla, datuak lortu ziren dataren arabera. Taula horietan jasotako datuak 2023ko abenduaren 31koak dira, eta fiskalizazioaren landa-lana egitean lortu dira.

Jarraian, eskainitako lanpostuen eta plantilla organikoan dauden lanpostu hutsen arteko konparazioa aztertuko dugu. Honako hauek dira datuak:

Plazak	Kopurua
Plantilla organikoko plazak	26.101
Justizia Administrazioiko plazak	586
Plantilla organikoko plazak Justizia gabe*	25.515
Hutsik ez dauden plazak	18.196
Hutsik dauden plazak	7.319

*Plaza horien behin-behinekotasuna murrizteko gaitasuna ez du NFKAk, Justizia Ministerioak baizik.

Deialdirik egin gabe eskainitako plazen eta amaitu gabe deitutako plazen egoera, SAP RRHH aplikazioko informaziotik abiatuta, taula honetan islatzen da:

NFKA	Prozesu betean, SAP RRHHren arabera
Administrazio Erroa	2.704
Osasuna	1.786
Hezkuntza	1.065
Guztira	5.555

Hau da, plantillan hutsik dauden plazen % 76 arestian aipatutako prozesuren batean daude, eta horrek esan nahi du, datu horiekin, gainerako % 24a (1.782 plaza) etorkizuneko EPEetan sartu ahal izanen lirakeela. Informazio horrek agerian uzten du NFKA neurri egokiak hartzen ari dela behin-behinekotasuna nahitaez murrizteko, plantilla organikoan definitutako lanpostuei dagokienez.

NFKAko langile finkoei eta aldi baterako langileei buruzko azterketa

2019-2023 aldiko langile finkoen alten eta bajen kopurua aztertu dugu, lanpostuaren erreserbak kontuan izan gabe (zeren eta ez baitira administrazioko behin betiko bajak), eta honako hauek dira emaitzak:

	2019	2020	2021	2022	2023	Guztira
Altak:	381	616	388	892	1.292	3.569
Hezkuntza	303	501	110	578	756	2.248
Osasuna	34	44	141	243	297	759
Administrazio Erroa	44	71	137	71	239	562
Bajak:	753	620	658	684	669	3.384
Hezkuntza	380	246	322	243	330	1.521
Osasuna	215	233	200	244	173	1.065
Administrazio Erroa	158	141	136	197	166	798
Alde garbia (altak – bajak)	-372	-4	-270	208	623	185

Ikusten da, alde garbi negatiboa dagoela 2019-2023 aldian, 185 pertsonarena, 2018-2022 aldi diko 972 pertsonako alde garbi negatiboaren aldean. 2022a altek bajak gainditzen dituzten lehen ekitaldia izan zen, eta nabarmen igo zen 2023an. Hala ere, Nafarroako Aurrekontu Orokorren 5.1 atalean, gehigarri honetan, langileen gastuen bilakaerari eta arau fiskalak 2025etik aurrera indarrean sartzeari buruz islatu dugun informazioaz ohartarazi nahi dugu.

Halaber, lortu dugu 2019-2023 bitarteko urteetan abenduaren 31n lanean ari ziren langile finkoen eta aldi baterako langileen datua, NFKA osoan data horretan izandako behin-behinekotasunaren indizea¹⁹ lortzeko; honako hauek dira emaitzak:

	2019	2020	2021	2022	2023
Egiazko langileak	29.943	31.731	32.125	31.865	32.537
Langile finkoak	15.062	14.673	14.953	15.725	17.211
Aldi baterako langileak	14.881	17.058	17.172	16.140	15.326
Langile finkoak/egiazko langileak (%)	50	46	47	49	53
Aldi baterako langileak/egiazko langileak (%)	50	54	53	51	47

Ikus daitekeenez, 2023an langile finkoen indizeak gora egin du aurreko ekitaldiekin alderatuta, behin-behinekotasun-indizearen kaltetan. Halaber, adierazi beharra dago 2020ko eta 2021eko ekitaldietako balioetan balitekeela eragina izatea COVID-19aren ondorioz egindako aldi baterako kontratazioek.

Aurreko informazioari dagokionez, abenduaren 31n lanean ari ziren baina 2021-2023 aldira mugatuta zeuden NFKAren eremuko langileen sailkapena honako hau da:

	Langile finkoak			Aldi baterako langileak			Langileak, guztira			Aldi baterako langileak (%)		
	2021	2022	2023	2021	2022	2023	2021	2022	2023	2021	2022	2023
Erroa	4.394	4.332	4.454	2.230	2.240	2.237	6.624	6.572	6.691	34	34	33
Hezkuntza	5.662	5.934	6.251	6.052	6.028	6.178	11.714	11.962	12.429	52	50	50
O-NOZ	4.897	5.459	6.506	8.890	7.872	6.911	13.787	13.331	13.417	64	59	52
	14.953	15.725	17.211	17.172	16.140	15.326	32.125	31.865	32.537	53	51	47

Pixkanakako jaitziera agertzen da 2021eko ekitalditik aurrera. Behin-behinekotasun indizea 2021ekoaren ia parekoa da Administrazio Erroan eta jaitzi egin da Hezkuntzan eta O-NOZen; azken eremu horretan agertzen da jaitzierarik handiena.

¹⁹ Behin-behinekotasun honek barruan hartzen du premia iraunkorren eta unekoen ondoriozkoa.

Aurreko taulako informazioari dagokionez (justiziako langileak kenduta, lanpostu horietan jardutea Justizia Ministerioari baitagokio), pertsona horiek lanean ari diren plaza motei buruzko informazioa sartu dugu, plantillakoak diren edo plantillatik kanpokoak diren kontuan hartuta.

Pertsonak	Finkoa	Aldi batera-koak	Guztira	% finkoa	% behin behin-ekoa
Plantilla organikoko plazak	16.231	7.496	23.130	70	30
Plantilla organikotik kanpoko plazak	655	7.568	8.820	7	93
Guztira	16.886	15.064	31.950	53	47

Hau da, 2023ko abenduaren 31n 31.950 pertsona zeuden lanean; horietatik % 53 langile finko gisa eta % 47 aldi baterako kontratuarekin. Plaza motaren arabera aztertuz gero, plantillan behin-behinekotasuna % 30ekoa da; plantillatik kanpoko plazetan, berriz, aldi baterakoak langileen % 93 dira. Azterketa honen alderdi garrantzitsuenak honako hauek dira:

- 8.820 pertsona, hau da, % 27,6 plantillatik kanpoko lanpostuetan ari dira lanean.
- Pertsona horietatik, 4.051 pertsona, hau da, % 46 irakasle-plazei dagozkie, eta 1.387 pertsona, hau da, % 16, O-NOZi.

Osasun- eta hezkuntza-arloetako aldi baterako kontratazioari dagokionez, testuinguruan kokatu behar da funtsezkoa dela hezkuntza- eta osasun-sistemaren beharrei erantzuteko. Hezkuntza-sistemaren funtzionamenduaren berezko dinamismoak, bai eta langileak nahitaez ordezkatu behar diren egoerek ere, hezkuntza-eremuan zein osasun-eremuan, langile-premien zati handi baten aldakortasuna dakar.

Bestetik, 2019-2023 aldiko langile finkoen adina aztertu dugu, eta honako hauek dira urte bakoitzeko abenduaren 31n lortutako datuak:

	2019		2020		2021		2022		2023	
	Pertsonak	Guztizko-aren gainean (%)	Pertsonak	Guztizko-aren gainean (%)	Pertsonak	Guztizko-aren gainean (%)	Pertsonak	Guztizko-aren gainean (%)	Pertsonak	Guztizko-aren gainean (%)
30 urtetik beherakoak	280	2	256	2	315	2	459	3	437	3
31 eta 40 urte bitarte	1.955	13	1.795	12	1.874	13	2.175	14	2.690	16
41 eta 50 urte bitarte	5.096	34	4.877	33	4.935	33	5.168	33	5.600	33
51 eta 55 urte bitarte	3.299	22	3.214	22	3.125	21	3.107	20	3.278	19
55 urtetik gorakoak	4.432	29	4.538	31	4.704	31	4.816	31	5.206	30
Langileria finkoa, guztira	15.064	100	14.680	100	14.953	100	15.725	100	17.211	
Batez besteko adina	50	-	50		50		50		49	

Nabarmentzekoa da 55 urtetik gorako pertsonak % 30 inguru direla aztertutako aldian, eta aurreko ekitaldiarekiko beherakada txiki bat izan duen lehen ekitaldia izan dela. Halaber, 60 urtetik gorakoek % 13 izaten jarraitzen dute, aurreko ekitaldian bezala.

Azken batean, NFKAk dauden lanpostu hutsak betetzeko beharrezko neurriak hartzen jarraitu behar du, ahal den neurrian enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murriztuz egitura-plazetan eta plantillaren zahartzea murriztuz.

Langileria-gastuari buruzko egiaztapenak

Aztertu dugu ea SAP RRHH aplikazioan (hartan, nominak sortzen dira) kontabilizatutako gastua bat datorren SAPGE'21en eta aurrekontuan erregistratutakoarekin, eta egiaztatu dugu bat datozela nomina osatzen duten ordainsari-kontzeptu guztietako gastuak eta behar bezala kontabilizatuta daudela.

Gainera, NFKAko eta haren erakunde autonomoetako langileen 2023. urte osoan sortutako nominaren ordainsari-kontzeptuen lagin bat berrikusi dugu, pasiboen erregimeneko langileak sartu gabe.

Zehazki, nominako 31 kontzeptu aztertu ditugu²⁰, guztira 1.154.371 erregistrotan jasoak, 33.507 laguni dagozkienak, guztira 713.535 milioi euroko zenbatekoarekin. Zenbateko hori urte osoan NFKAko langileek kontzeptu horiengatik sortutako nominaren guztizkoaren % 49,95 da.

Egindako probetan, desberdintasun ez esanguratsuak antzeman ditugu, Funtzio Publikoari jakinarazi zaizkionak eta, ondoren, ukitutako langileen nominetan zuzendu direnak. Azken emaitza da aztertutako langileek egoki jaso dituztela aztertutako ordainsari-kontzeptu guztiak, plantillan ezarritakoari jarraituz.

Langileen absentiak

Atal honetan egin dugun azterketa honako premisa hauetan oinarrituta dago:

- Langileen datuak langile baliokideei buruzkoak dira: NFKAn lan egin duten langileen ordu teorikoak, kontratuaren iraupena kontuan hartuta, zati 1.790 orduko lanaldia²¹ urtean.
- Informazioa kontrastatu du Tableauren (datuen ustiapen masiboak egiteko aukera ematen duen emaitzak aztertzeko plataforma) eta SAP Recursos Humanos (aurrerantzean, SAPRRH) aplikazioen artean.
- Azterketan, langilearen absentsiatzat hartu dira osasun-arrazoia (lan-istripua/lanbide-gaixotasuna eta lanerako ezintasuna) eta beste arrazoi batzuk²². Ez da kontuan hartu oporregatik/norberaren kontuengatik langileak ez egotea; izan ere, irakasleek eta justiziaren absentsia horiek ez dira erregistratzen SAPRRHn, eta, beraz, informazioaren tratamendua ez zen homoginoa izan, eta informazioa desitxuratu egiten zen.

Taula honetan, lanpostuan egoteari, absentsiari eta 2023ko absentsia-tasari buruzko datuak jaso ditugu:

Estamentua	Okupazioa	Ez egoteak			Tasa Ezin./Gaix.	Tasa beste batzuk	Tasa Ez egoteak
		Ezin./Gaix. Prof.	Beste batzuk	Guztira Ez egoteak			
Behin-behinekoak	147,04	2,02	0,63	2,65	1,37	0,43	1,8
Administrazioa	7.413,89	468,41	176,86	645,27	6,32	2,39	8,7
Sanitarioak	10.243,09	659,11	356,34	1.015,45	6,43	3,48	9,91
Irakasleak	10.057,13	498,65	275,45	774,1	4,96	2,74	7,7
Polizia	1.108,73	71,57	55,21	126,78	6,46	4,98	11,43
Suhiltzaileak	543,93	19,05	7,72	26,77	3,5	1,42	4,92
Justizia	612,78	31,39	17,55	48,94	5,12	2,86	7,99
Guztira	30.126,59	1.750,20	889,76	2.639,96	5,81	2,95	8,76

2023an, 2.639,96 langile baliokide falta ziren. % 66,3 (1.750,2 pertsona) arrazoi medikoengatik izan da, eta % 33,7 (889,76 pertsona) beste arrazoi batzuegatik. Langileen absentsia-tasa, guztira, % 8,76koa da, hau da, kontratatutako 100 pertsonatik (finkoak edo aldi baterakoak) 8,76 falta izan ziren 2023an: 5,81 osasun-arrazoiengatik, eta 2,95 beste arrazoi batzuegatik.

²⁰Honako hauek dira berrikusitako kontzeptu nagusiak: oinarritzko soldata, maila, destinoa, arriskua, txandaka aritzea, lanpostua, zuzendaritza-postua, irakasle-zuzendaria, irakasle espezifikoa, O-NOZ espezifikoa, eskusibotasuna, bateraezintasuna, lanaldi-luzapena eta arrisku berezia. Halaber, gradua, antzintasuna eta oinarritzko soldatari lotutako hainbat kontzeptu aztertu dira.

²¹1.592 ordu gehi opor eta norberaren gauzetarako 198 ordu.

²²Amatasuna/aitatasuna, beste absentsia batzuk, ordaindu gabeko baimena, familia-arrazoia, guardiagatiko/proba fisikoengatik librantza, ezkontzagatiko lizentzia, enplegua banatzeko baimena, baimen sindikala.

Estamentuen arabera, polizien kolektiboa da absentzia-tasa handiena duena, bai arrazoi sanitarioengatik, bai gainerako kausengatik. Bestalde, absentzia-tasa txikiena behin-behineko langileek eta suhiltzaileek dute.

2023an lortutako datuak testuinguruan kokatzeko, 2018-2023 aldiko datuak aztertu ditugu, eta hurrengo koadroan, 2018tik 2023ra bitartean izan den aldaketa islatzen dugu:

	2018	2023	Aldea (%) 2023/2018
Okupazioa	26.036,93	30.126,59	15,71
Ezgaitasungatiko/lanbide-gaixotasungatiko absentzia	1.359,23	1.750,20	28,76
Beste arrazoi batzuegatiko absentzia	705,12	889,76	26,19
Absentzia-tasa, guztira	% 7,93	% 8,76	10,47
Ezgaitasungatiko/lanbide-gaixotasungatiko absentzia-tasa	% 5,22	% 5,81	11,30
Beste arrazoi batzuegatiko absentzia-tasa	2,71	2,95	8,86

Ondorio hauek ateratzen dira analisi horretatik:

- Enplegatutako pertsona baliokideak % 15,71 hazi dira 2018-2023 aldian. Enplegatuen hazkunde handiena izan duten estamentuak irakasleak eta behin-behinekoak izan dira.
- Langileen absentzia handitu egin da 2018tik 2023ra, % 28,76 arrazoi medikoengatik eta % 26,19 beste arrazoi batzuegatik.
- 2018an, enplegatuen % 7,93 falta izan zen lanean, eta 2023an, berriz, % 8,76 falta izan da, eta horrek % 10,47ko igoera ekarri du, honela banakatuta: % 11,30 arrazoi medikoengatik eta % 8,86 beste arrazoi batzuegatik.

5.5 KONTRATAZIO PUBLIKOA

Kontratazio espedienteen berrikuspena

Kontu orokor hauen fiskalizazioan kontratazio-espedienteak berrikusteko, kontratuen lagin handiago bat hautatu da, eta esleipen-prozesuan bereziki garrantzitsutzat jo ditugun gai jakin batzuen irismena mugatu da. Honako hauek dira:

Lizitatuak kopurua (konpetentzia maila)
Esleipen-irizpideen haztapena (formulak + balio-judizioa)
Formula ekonomikoaren proportzionaltasuna
Eskaintzen balorazio teknikoaren egiteko motibazioa
Behin betiko irizpidea kontratuen esleipenean
Esleipenean izandako bajen %
Gizarte- eta ingurumen-irizpideak + Gauzatzeko Baldintza Bereziak
<ul style="list-style-type: none"> • Inklusioa • Kontratuaren xedearekiko lotura • Jarraipena eta egiaztatzea

Ez dira lanaren irismenaren parte obra- eta zerbitzu publikoen emakida-kontratuak, ez eta kontratua gauzatzeko fasea ere. Berrikusi diren espedienteak eta hautatutako laginaren parte izan direnak txostenaren 7. gehigarrian daude erreferentziatuta, eta honako hau adierazten dugu:

- Obra-kontratuan 23 kontratuko lagin bat hautatu da, eta horietatik bitan bi lote daude, hurrenez hurren. Beraz, gure berrikuspenaren ondorioetarako, 25 kontratuko lagina hartu dugu kontuan.
- Hornidura-kontratuan 11 kontratuko lagin bat hautatu da; horietatik bostetan ez dago loterik, eta gainerakoetan loteak daude. Beraz, gure berrikuspenaren ondorioetarako, 31 kontratuko lagina hartu dugu kontuan.

• Zerbitzu-kontratuan 13 kontratuko lagin bat hautatu da; horietatik zazpitan ez dago loterik, eta gainerakoetan loteak daude. Beraz, gure berrikuspenaren ondorioetarako, 26 kontratuko lagina hartu dugu kontuan.

Emaitzak taula hauetan ageri dira:

Zenbat lizitatuzaile	Eraikuntza-lana		Hornidura		Zerbitzua	
	Kontratu kopurua	%	Kontratu kopurua	%	Kontratu kopurua	%
0	-	-	2	6	-	-
1	4	16	16	52	13	50
2	5	20	10	32	4	15
3	4	16	3	10	6	23
4	5	20	-	-	-	-
5 eta 7 bitarte	7	28			2	8
16					1	4
Guztira	25	100	31	100	26	100

Formula objektiboen haztapena	Eraikuntza-lana		Hornidura		Zerbitzua	
	Kontratu kopurua	%	Kontratu kopurua	%	Kontratu kopurua	%
30					3	12
40					3	12
50	7	28	1	3	3	12
53			1	3		
60	6	24				
70	4	16				
75			1	3		
76					2	8
80	1	4				
85						
86					2	8
89					2	8
90			2	6	1	4
100	7	28	25	81	10	38
Guztira	25	100	31	100	26	100

Formula lineala eta proportzionala	Eraikuntza-lana		Hornidura		Zerbitzua	
	Kontratu kopurua	%	Kontratu kopurua	%	Kontratu kopurua	%
Proportzionala	22	% 88	28	% 90	23	88
Ez proportzionala	3	% 12	2	% 7	3	12
Ez dago formula ekonomikorik			1	% 3		
Guztira	25	% 100	31	% 100	26	100

Balorazio teknikoaren arrazoia	Eraikuntza-lana		Hornidura		Zerbitzua	
	Kontratu kopurua	%	Kontratu kopurua	%	Kontratu kopurua	%
Ez dago nahiko arrazoitua	11	44			6	23
Arrazoitua	4	16	2	6	1	4
Ez du aplikatzen lizitatuzaile bakarra dagoelako	10	40	18	58	19	73
Formula objektiboak aplikatzen dira			9	29		
Adjudikatu gabe			2	6		
Guztira	25	100	31	100	26	100

Esleipenerako irizpide erabakigarria	Eraikuntza-lana		Hornidura		Zerbitzua	
	Kontratu kopurua	%	Kontratu kopurua	%	Kontratu kopurua	%
Eskaintza teknikoa	12	48	7	23	6	23
Eskaintza ekonomikoa	8	32	4	13	4	15
Ez du aplikatzen lizitazaila bakarra dagoelako	4	16	18	58	16	62
Ez dago irizpide erabakigarrik	1	4				
Adjudikatu gabe			2	6		
Guztira	25	100	31	100	26	100

Baja	Eraikuntza-lana	Hornidura	Zerbitzua
Maila	% 0-% 20	% 0-% 26,18	% 0-% 19,75
Batezbestekoa	% 9	% 4	% 7

Irizpideak	Eraikuntza-lana		Hornidura		Zerbitzua	
	Kontratu kopurua	Objektuarekiko harremana	Kontratu kopurua	Objektuarekiko harremana	Kontratu kopurua	Objektuarekiko harremana
Sozialak	21	% 100	10	% 100	12	% 100
Ingurumenekoak	5	% 100	1	% 100	1	% 100

Exekuzio-baldintza bereziak	Eraikuntza-lana	Hornidura	Zerbitzua
Inklusioa	24	31	26
Kontratuaren xedearekiko lotura	19	6	3
Jarraipena eta kontrola*			
• Jarraipena eta kontrola badago	15	6	5
• Ez dago jarraipenik eta kontrolik		13	13
• Ez da aldi baterako aplikatzen, kontratua gauzatzen ari delako	8	10	5
Kontratuak, guztira	25	31	26

* Bi hornidura-kontratu eta beste bi zerbitzu-kontratu hutsik geratu dira.

Hauek dira egindako ebaluaziotik lortu ditugun ondorio nagusiak:

- Benetako lehia-mailari dagokionez, esanguratsua da hornidura- eta zerbitzu-kontratuetan, lo-teen dibertsifikazio handia eta sortzen duten konkurrentzia urria.
- Zerbitzu-kontratuetan soilik ikusi da kontratu horien % 24tan ez dela egiaztatu legez eskatzen denik esleipen-irizpideen gutxienez % 50 formula objektiboak aplikatuz egitea.
- Kontratuen batez besteko % 10ean, ez da irizpide lineal eta proportzional bati erantzuten dion formularik aplikatzen eskaintza ekonomikorako.

Gai horri dagokionez, egia da kontratazio-araudiak ez duela legez ezartzen formula jakin bat erabiltzea, baina arrazoizkoa da aukeratutako formulak proportzionalak ez izatea edo baja ekonomikoen eta lortutako puntuazioaren arteko lotura nabarmen desitxuratzen duten eskaintzen artean kurbak edo arintzeak sortzea saihestea. Hala ere, geroagoko egitate gisa, adierazten dugu 2024ko martxoan Auzitegi Gorenak gai horri buruzko epaia eman duela, baliozkoak izan daitezkeen formula alternatiboak erabiltzeko aukera planteatuz²³.

Halaber, 25 obra-kontratuetatik bitan, formulak puntuak esleitzen ditu, nahiz eta prezioa jaitsei ez.

²³Paragrafo hori Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiaren bigarren alegazioak aldatu zuen

- Nabarmendu behar dugu baldintza-agirietan ezarritako balio-judizioaren mende dauden irizpide kualitatiboek ez dutela esleitutako puntuazioen justifikazio-txostena egitea errazteko behar besteko zehaztasuna eta haztapena.

Gabezia hori, batez ere obra-kontratuetan, gero agertzen da, gure ustez balio-judizioaren mende dagoen eskaintza teknikoaren balorazioaren arrazoi nahikorik ez dakarrenean; izan ere, oro har, izaera deskriptiboa ikusten da, eta ez konparatiboa, ezta homogeneoa ere eskaintzen artean.

Hala ere, kontuan izan behar da ehuneko esanguratsu batean ez dela aplikatzen, lizitatzailerak bakarria dagoelako. Berrikusitako laginean egoera hori analisitik kanpo geratuko balitz, ehunekoak nabarmen igoko liriteke.

- Kontratuak esleitzeko irizpide erabakigarria, lizitatzailerak bakarria egon den egoerak ezabatzen badira edo kontratuak esleitu gabe utzi direla adierazi bada, honako hau izan da, kontratu motaren arabera:

Kontratuak	Eraikuntza-lana	Hornidura	Zerbitzua
Eskaintza teknikoa	% 60	% 64	% 60
Eskaintza ekonomikoa	% 40.	% 36	% 40

Esleipenean irizpide erabakigarritzat jo dugu, ez pleguetan hasieran aurreikusitako haztapena, baizik eta kontratu bakoitzean erabakigarria den faktorea, lizitatzaileraren eskaintzak ebaluatu ondoren. Aztertutako emaitzen batez bestekoa eginez gero, eskaintza teknikoa erabakigarria izan da kontratuen % 61etan, eta eskaintza ekonomikoa % 39tan.

Hala ere, Obra eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiaren bost obra-kontratuen kasuan, aztertu ditugunak (besteak beste, "Belateko tunelaren bikoizketa" eta 6. gehigarrian garatzen duguna), lizitatzailerak aurkezten dituzten eskaintza ekonomikoko guztiek edo ia guztiek baja bera dute, eta, gainera, bat dator baldintza-agirietan ezarritako gehieneko bajarekin. Hori dela eta, lizitatzailerak guztiek puntuazio gorena dute, eta, beraz, eskaintza ekonomikokoaren balorazioa ez da garrantzitsua esleipenean, eta balio-judizioaren mende jarritako balorazioa da irizpide erabakigarria.

Bestalde, berrikusitako bost kontratu horietatik, kontu-hartzailetza delegatuak eragindako hiru eragozpen argitaratu dira; egoera hori ez da gertatu fiskalizatutako gainerako kontratuetan.

Nolanahi ere, kontratu askotan egiaztatu dugu ez zaiola puntuaziorik eman, lizitatzailerak bakarria dagoelako. Eskaintza teknikoaren balioespen nahikoa konkurrentzia dagoenean egiten bada ere, komenigarria litzateke, konkurrentziarik egon ez arren, emandako balioespenari buruzko informazio zehatzagoa ematea.

- Kontratuen batez besteko jaitsiera % 7koa izan da. Hala ere, kontuan izan behar da kontratazio-araudian baimendutako kontratu-aldaketek gehiago eragiten diotela obra-kontratuari hornidura- eta zerbitzu-kontratuari baino. Beraz, kontratazioaren behin betiko aurrekia ebaluatu nahi bada, kontratuen azken likidazioa egin arte itxaron behar da, eta azken kostua eskaintzan esleipen-baja gisa hasieran onartutako aurrezkiarekin alderatu behar da.

- Esleipen-irizpide gisa gizarte- eta ingurumen-irizpideak dituzten kontratuen kasuan, zentzuz betetzen da kontratuaren xedearekiko lotura.

- Obra-kontratu bat izan ezik, hornidura- eta zerbitzu-kontratu guztietan bete da kontratuaren exekuzio-baldintza bereziak sartzeko legezko betebeharra. Hala ere, kontratuaren xedearekin legez eskatzen den loturari dagokionez, batez beste kontratuen % 35etan baino ez da betetzen.

Deigarria da hornidura- eta zerbitzu-kontratuaren batez besteko % 32an ez dagoela jasota baldintza horien jarraipena eta kontrola.

Hori guztia dela-eta, *gomendio* hauek egiten ditugu:

- *Adjudikazio-irizpide ugari dituzten kontratu guztietan gutxienez % 50 aplikatzea, formula objektiboak aplikatuz, prestazio artistikoak edo intelektualak dituzten kontratuetan izan ezik; kasu horretan, gutxienekoa % 20koa izanen da²⁴.*
- *Saihestu puntuazioak esleitzen dituzten formulak aplikatzea eskaintzek prezioa jaisten ez dutenean.*
- *Baldintza-agirietan esleipen-irizpide kualitatiboak definitzea, behar besteko desagregazioarekin, kontratazio-mahaiek balioesteko behar bezain objektiboak diren parametroak eduki ahal izan ditzaten. Era berean, balio-judizioaren mende jarritako balorazioak behar bezala arrazoitu behar dira, aurkeztutako eskaintzei esleitutako puntuazioak ahalik eta objektiboen egiaztatze aldera.*
- *Aurkeztutako eskaintzen eta esleitutako puntuazioen arteko proportzionaltasuna gordeko duten formulak aukeratzea, konfigurazioa edozein dela ere.*
- *Kontratu bakoitzaren xedearekin loturarik ez duten exekuzio-baldintza bereziak sartzea saihestea, edo lege-aginduz nahitaez bete behar diren xedapen jakin batzuen erreferentzia baldintza berezizat hartzea.*

KFLren 36. artikulua betetzea NFKAren kontratuetan.

Txostenaren II. paragrafoan adierazitako eskaera parlamentarioari dagokionez, KFLren 36. artikuluen betetze-mailaren fiskalizazioa egin dugu, NFKAren kontratuetan.

Arrazoi sozialengatik gordetako kontratua kontratuen legerian berariaz jasotako legezko figura bat da, eta horren bidez ezartzen da kontratu publiko bat esleitzeko prozeduran enpresa-tipologia jakin batek baino ezin izanen duela parte hartu. KFLren kasuan, irabazi-asmorik gabeko enplegu-zentro bereziak edo gizarte-ekimeneko enplegu-zentro bereziak, laneratzeko enpresak edo irabazi-asmorik gabeko erakundeak dira, laneratzeko enpresen % 100 sustatzen dutenak, eta aurretik gizarteratze- eta laneratzeko gisa kalifikatuak izan direnak.

Horrela, kontratu bat erreserbatutzat kalifikatzen denean, deskribatutakoak ez diren beste erakunde mota batzuk baztertzen ditu, eta berehalako eragina eta onura bermatzen ditu; izan ere, esleipena erakunde horiei ematen zaenez, zuzenean sustatzen da desgaitasuna duten, baztertuta dauden eta baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonen enplegua. Horretarako, 36.4 artikuluan nahitaezko figura gisa ezarri da, legez ezarritako gutxienekoekin; gutxienez "... aurreko aurrekontu-ekitaldian esleitutako kontratuen zenbatekoaren % 6" gorde behar da.

Hona hemen berrikusteko egin ditugun egiaztapenak:

- Nafarroako Kontratazio Atariaren (aurrerantzean Ataria) informazioa esportatzea eta aurreko ekitaldiko esleipen-iragarkiak egiaztatzea.
- Departamentuetako Idazkaritza Tekniko Nagusi guztiak zirkularizatzea, bai eta CPEN ere, eta honako informazio hau eskatzea:
 - Kontratuei buruzko Foru Legearen 36. artikuluan ezarritako kontratazio-erreserba ezarri zaien lizitazioen zerrenda.
 - KFLren 36.5 artikuluan aurreikusitako aukera posibleak ezarri diren lizitazioen zerrenda.
 - KFLren 36.5 artikuluko lehen atalean eta 36.10 artikuluan ezarritako publizitate-betebeharrak betetzea, bai eta betebeharrak horiek betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa ere.

Beharrezkoa da zehaztea, Ataritik datuak ateratzeko, gure lana baldintzatu duten muga askori aurre egin behar izan zaiela. Batez ere honako hauek izan dira:

a) Atarian jasotako informazioa ez da guztiz fidagarria. Atariko lizitazio-iragarkia beharrezkoa da esleipen-prozedura gehienak gauzatzeko, baina kontratazio-organoak esleitu ondoren, askotan

²⁴Paragrafo hori Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Idazkaritza Nagusiaren lehenengo alegazioak aldatu zuen

ez da esleipen-iragarkia argitaratzen, "NFKAren kontratazio publikoko arriskuen azterketa (2019-2023)" gure hurrengo txostenean adieraziko dugun bezala.

b) Esparru-akordioen kasuan, gehienez ere lau aurrekontu-ekitalditarako balio zenbatetsia onartzen da, eta ondoren kontratuak esleituko zaizkien enpresak hautatzen dira. Esparru-akordio horietan oinarritutako ondorengo kontratuak hautatutako enpresaburuei esleitzen zaizkie, beharrak sortu ahala. Hau da, kontratazio-prozesu honek onartzen den urtean izanen duen balio zenbatetsia ezin da esleipen-zenbateko gisa aukeratu, eta horri KFLn ezarritako % 6ko gutxienekoa aplikatu.

c) BEZaren zenbatekoari dagokionez, Atarian sartutako datuak araztu behar izan ditugu, ez baitira homogeenok, hau da, kasu batzuetan BEZa barne ageri dira, beste batzuetan BEZik gabe, eta ezin izan dugu zifra koherenterik lortu ²⁵argitaratutako esleipen-iragarkiei buruzko informazio guztian aplikatu beharreko BEZaren tasagatik. Kasu horietan, Atariaren zenbatekoa onartu behar izan dugu, akats hori onartuta.

Arestian aipatutako mugez gain, honako gai garrantzitsu hauek nabarmentzen ditugu lege-agindu honi dagokionez:

a) Urtebetean esleitutako kontratuen zenbatekoaren datua nahiko aldakorra da. Urte batean oso zenbateko handiko lizitazio gutxi edo asko egon daitezke, eta beste urte batean lizitazioak ez dira hain handiak izanen. Bestela esanda, denboran nahitaez egonkorra ez den magnitudea da.

b) Hornidura- eta zerbitzu-kontratuen gehieneko iraupena, oro har, bost urtekoa da, luzapen guztiak barne. Egoera horrek arrazoizko zalantza sortzen du, hau da, hurrengo ekitaldi bakoitzean luzatutako kontratuen zenbatekoa esleipen-zenbateko gisa zenbatu behar ote den. Hala ez bada, nabarmendu behar da "*justu aurreko aurrekontu-ekitaldian esleitutako kontratuak*" erreferentzia ekitaldi bakar batean zenbatuko litzatekeela, eta horrek nahitaez murriztuko luke magnitude hori hurrengo lau ekitaldietan.

c) Bestalde, munta txikiko kontratua²⁶ esleipen-prozedura baten bidez esleitzen den kontratua da, zehazki, zenbateko txikiko kontratuetarako araubide berezia. Zentzu hertsian, kontratazio mota horrek dakarren fakturazio osoa zenbatu egin beharko litzateke, esleitutako kontratuei erantzuten dielako. Sortzen duen zalantza gorabehera, kontratazio horri buruzko informazioa hartu dugu kon-tuan.

Agerian jartzen ditugun ahuleziak testuinguruan kokatzen saiatzeko, eta gai hori beste ikuspegi batetik aztertzen saiatzeko, gainera, gastu-zenbatekoen arteko konparazioa egitea pentsatu dugu, printzipioz, parametro egonkorragoa baita denbora-tarte batean.

Azaldutakoagatik, 36. artikuluaaren ehunekoa bi ikuspuntutatik aztertu dugu:

- 2022ko ekitaldiko aurrekontu-betearazpena, 2. eta 6. kapitulueterako, departamentuka, SAPGE21etik aterata. Datu horietan munta txikiko kontratu guztiak daudela adierazten dugu.

- Atarian 2022an argitaratutako kontratuen esleipen-zenbatekoa.

- Enpresa publikoen kasuan, Atarian 2022an esleitutako zenbatekoa bakarrik hartu dugu erreferentziatzat; izan ere, enpresa horiek ez dute kontabilitate-araudi publikoa betetzen kontuak emateko, eta, beraz, ezin dira beren gastuak eta inbertsioak aurrekontuak gauzatzeko moduan lekualdatu.

²⁵% 21eko tasa orokorra, eta % 10era eta % 4ra murriztuak, edo % 0ra ere bai, salbuetsitako eragiketak badira.

²⁶Hornidura- eta zerbitzu-kontratuetan: 15.000 eurotik beherako balio zenbatetsia (BEZik gabe) eta obra-kontratuetan: 40.000 eurotik beherako balio zenbatetsia (BEZik gabe).

CPENen informazioa eta informazio-eskaerari eta gure egiaztapenei erantzun dieten 13 departamentuetako hamar departamenturen eta erakunde autonomo baten (ISPLN) informazioa jaso ondoren, lortutako emaitzak taula hauetan jaso ditugu:

NAFKren departamentuak	Lizitazio erre-serbatuak	Kontratu txikiak	Alternatiba	Zerrendaren argitalpena eta zenbatekoa
Etxebizitza, Gazteria eta Migrazio Politikak	EZ	BAI	EZ	EZ
Unibertsitatea, Berrikuntza eta Erald. Dig.	EZ	EZ	EZ	EZ
NOPLOI	EZ	BAI	EZ	EZ
Industria eta Trantsizio Ekologiko eta Digitala	EZ	BAI	EZ	EZ
Ekonomia eta Ogasuna	BAI	BAI	EZ	EZ
Hezkuntza	BAI	BAI	EZ	EZ
Barnea, Funtzio Publikoa eta Justizia	BAI	BAI	EZ	EZ
Lehendakaritza eta Berdintasuna	BAI	BAI	EZ	EZ
Eskubide Sozialak	BAI	BAI	BAI	EZ
Lurralde Kohesioa	EZ	BAI	EZ	EZ
Landa Garapena	EZ	BAI	EZ	EZ
CPEN	Lizitazio erre-serbatuak	Kontratu txikiak	Alternatiba	Zerrendaren argitalpena eta zenbatekoa
Sozietate publikoak	BAI	BAI	BAI	BAI

Departamentua Sozietatea	Guztira 36. art. zenbate- koa 2023an	Aitortutako bete- behar garbiak (ABG) 2 eta 6 kap. 2022an	Zenbateko esleituak 2022an	Kontratu txikiak 2022an	ABGren gainean (%)	Esleipenaren gainean (%)
Etxebizitza, Gazteria eta M.P.	48.629	3.656.201	2.474.918	890.163	1,33	1,45
Unibertsitatea, Berrikuntza eta Erald. Dig. ²⁷	0	34.775.784	8.389.141	1.311.854	0,00	0,00
NOPLOI	115.066	10.574.650	283.658	307.817	1,09	19,45
Industria, Trantsizio ekol. eta digitala	25.875	12.620.376	1.281.559	5.532.785	0,21	0,38
Ekonomia eta Ogasuna	1.007.074	25.311.481	19.952.379	1.105.861	3,98	4,78
Hezkuntza	206.774	70.941.001	16.809.291	9.382.675	0,29	0,79
Barnea, Funtzio Publikoa eta Justizia	30.378	11.884.217	193.115	1.869.924	0,26	1,47
Lehendakaritza eta Berdintasuna	258.859	31.045.310	1.191.891	10.101.750	0,83	2,29
Eskubide Sozialak	943.033	168.398.813	52.132.202	5.766.228	0,56	1,63
Lurralde Kohesioa	6.280	172.368.549	38.800.565	1.693.029	0,00	0,02
Landa Garapena	26.154	25.637.920	1.690.747	4.955.950	0,10	0,39
ACFN, guztira	2.668.122	567.214.304	143.199.466	42.918.034	0,47	1,43
NIK	408.871	-	2.465.473	966.747	-	11,91
NILSA	221.180	-	7.020.935	498.662	-	2,94
NICDO	103.458	-	620.941	2.636.203	-	3,18
CEIN	3.147	-	0	490.635	-	0,64
NASUVINSA	1.079.961	-	32.263.019	2.159.647	-	3,14
CPEN	1.111	-	0	204.906	-	0,54
NASERTIC	6.863	-	2.016.268	564.397	-	0,27
SODENA	1.400	-	0	1.281.814	-	0,11
POSUSA	0	-	0	63.835	-	0,00
START UP	0	-	0	580	-	0,00
TRACASAI	48.343	-	304.100	419.271	-	6,68
TRACASA	1.451	-	148.386	254.232	-	0,36
CAT	4.143	-	0	466.314	-	0,89
INTIA	47.382	-	252.764	1.071.728	-	3,58
CNAI	14.635	-	1.367	199.326	-	7,29
Sozietate publikoak, guztira	1.941.943	-	45.093.254	11.278.298	-	3,44

²⁷Unibertsitatea, Berrikuntza eta Eraldaketa Departamentuak adierazi du, prestazioen ezaugarriak direla eta, ez dagoela lanak egin ditzakeen enpresa sozialik; izan ere, gai horiek akordioak eskatzen dituzte produktuen fabrikatzaileekin edo ezagutza tekniko espezializatu handia dute.

Maila agregatuko emaitzak taula honetan daude:

	Kontratuen zenbatekoa 36. art.	ABG 2. eta 6. kap.	Kontratuaren % 36. art.
NFKA	2.668.122	567.214.304	0,47

	Kontratuen zenbatekoa 36. art.	Esleitutako zenbatekoa 2022 + Munta txikiko kontratazioa 2022	Kontratuaren % 36. art.
NFKA	2.668.122	186.117.500	1,43
Sozietateak	1.941.943	56.371.552	3,44

Aurreko tauletan jaso ditugun datuei dagokionez, honako alderdi garrantzitsu hauek nabarmenduko ditugu:

- 2023ko ekitaldian erreserbatutako zenbatekoak barne hartzen ditu bai zenbateko txikiko kontratuetako gastua, bai 2023ko ekitaldian erreserbatutako lizitazioetatik eratorritako gastua, edo aurreko ekitaldiren batean jatorria duena. Irizpide hori sozietate publikoetan oro har ezarritakoa bada ere, uste dugu ez dela homogeneoa NAFKren kasuan, heterogeneotasuna baitago gauzatutako gastuaren datuen eta lizitazioaren zenbatekoen artean, aurrekontuaren exekuzioa edozein dela ere.

- ISPLNren datuak erakunde autonomo horri bakarrik dagozkie, Osasun Departamentuaren informazioa kontuan hartu gabe, informazio hori ez zaigulako bidali. Nolanahi ere, erakunde horren informazioari dagokionez, honako hau adierazten dugu:

- ISPLNk azaldu du informaziotik kanpo utzi behar dela sendagaietan egindako gastu handia, ez desitxuratzeko; izan ere, uste dute gastu mota horrek nekez duela loturarik arrazoi sozialengatik erreserbatutako kontratuekin. Ganbera honek arrazoizkotzat jotzen du irizpide hori, eta, beraz, komenigarria litzateke gainerako departamentuek antzeko azterketa egitea, informazioari tratamendu homogeneoagoa emateko.

- Erreserba-ehuneko handia (% 19,45) esanguratsua bada ere, datu hori ezin da halakotzat hartu, aurreko ekitaldiko esleipen-aldagaiak baldintzatu egiten baitu haren emaitza, eta ez baitu fidagarritasunik ematen kontratu-mota horren erreserba handiago edo txikiagoarekiko. Erakunde horretan, hain zuzen ere, aurreko ekitaldiko esleipenaren zenbatekoa bezalako faktore aldakor batek duen eragina ikusten da.

- KFLren 36.5 artikulua²⁸ aurreikusten dituen alternatiben kasuan, beste muga bat dagoela uste dugu, hau da, ezin dela haren eragin ekonomikoa kuantifikatu kontratu bakoitza amaitu arte, betiere kontratazio-organismoek horiek betetzen direla egiaztatzeko eta kontrolatzeko jarduketak egiten badituzte.

- Kuantifikatu ditugun erreserba-ehunekoek, azaldu ditugun interpretazio-mugak eta -zalantzak direla eta, ez dute esan nahi Ganbera honek KFLn aurreikusitakoa betetzeari edo ez betetzeari buruzko adierazpenik egin duenik.

Hala ere, nabarmendu nahi dugu sozietate publikoek bakarrik egiaztatu dutela urtero argitaratzen dituztela enplegu-zentro bereziei eta laneratzeko enpresei gordetako kontratuen zerrenda eta zenbateko osoa.

Ondorioz, amaierako hausnarketa gisa, honako hau esanen dugu:

- KFLn kontratuak arrazoi sozialengatik erreserbatzeko betebeharra ezarri da, gutxienez % 6koa, aurreko ekitaldiko esleipenaren zenbatekoari dagokionez.

Hain adierazle orokorra lege ezartzeak, izan ditugun interpretazioari buruzko arrazoizko zalantzez gain, beste muga garrantzitsu bat ere eragiten du, eta argi dago mugak erakunde onura-

²⁸Azpiktratazioa CEErekin, desgaitasuna duten pertsonentzako lan-eskaintzaren konpromisoa eta desgaitasuna duten edo gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonentzako lan-praktikak.

dunek egiten duten jarduerak baldintzatuko dituela. Bestela esanda, arrazoizkoa da ulertzea kontratu guztiek eta ez kontratazio publikoarekin baliatzen diren sektore guztietan, horrelako erakundeek ezin dutela esku hartu.

- Kontratu-mota horien helburua desgaitasunen bat duten ahalik eta pertsona gehien artatzea eta integratzea denez, zentzuzkoa dirudi eskulaneko jarduera intentsiboak izatea erreserbatzen zaizkien jarduera-motak, baina ez dago araututa, eta ez daude araututa erreserba hori egin dezaketen jarduera-eremuak eta horiek betetzen direla bermatzeko gutxieneko baldintzak.

- Nolanahi ere, horrelako erakundeen artean lehia askearen murrizketarik ez dagoela bermatu behar da. Munta txikiko kontratuaren figurak manu horri buruzko zalantzak sor ditzake, esleipen-prozedura ireki eta sinplifikatuetan ez bezala. Esleipen-prozedura horretara jotzea ere ez dago araututa.

Nolanahi ere, SAPen munta txikiko kontratu erreserbatuen identifikazio egokiaren falta sumatzen da.

- Arrazoi horiengatik, Ganbera honen iritziz, eta kontratu-mota horien erreserbak kontzeptu estrategiko bati eta konpromiso politiko-sozial bati erantzun behar diolakoan, ez da nahikoa aurreko ekitaldiko esleipenaren moduko datu bati buruz eska daitekeen legezko gutxieneko bat ezartzea; izan ere, datu hori aplikatzeko zailtasunak agerian geratzen dira, eta, ondorioz, arrazoizkoa baino gehiago da plangintza estrategiko egokirik gabe sistematikoki ez betetzea, horrelako erakundeak kontratazio publikoan modu logiko eta arrazoizkoan integratzea baita helburua.

Hori guztia dela-eta, *gomendio* hauek egiten ditugu:

- *KFLaren 36.4 artikulua berrikustea, eta, nolanahi ere, alde aurretik eta kontratazio-organoei segurtasun handiagoa emate aldera, Nafarroako Gobernuak jarraibide estrategiko egokiak (urtekoak/urte anitzekoak) ezartzea entitate horiek integratzeko baldintzei buruz, eta haien kontratu-erreserba modurik egokienean bermatzea.*

- *Kontratazio-atarian atal espezifiko bat inplementatzea, mota horretako kontratuei buruzko informazioa identifikagarria eta eskuragarria izan dadin.*

- *NAFKk urtero argitaratu behar ditu erreserbatutako kontratuen zerrenda eta zenbateko osoa.*

5.6. TRANSFERENTZIA ARRUNTETAKO ETA KAPITAL-TRANSFERENTZIETAKO GASTUAK

Transferentzia arruntak

Transferentzia arruntetan egindako gastua 2.331,70 milioikoa izan zen 2023an, eta aitortutako obligazio guztien % 40 izan ziren. Gastu horiek % 1 egin zuten gora 2022koekin (32,78 milioi) alderatuta, ondoren erakusten dugun bezala:

(milakotan)

Aurrekontuko artikulua	Aitortutako betebehargarbiak, 2022	Aitortutako betebehargarbiak, 2023	Aldea (%) 2023-2022
Estatuko Administrazioari	882.687	911.730	3
Fundazioei	13.712	13.409	-2
Enpresa publikoei eta beste ente publiko batzuei	114.579	120.961	6
Toki entitateei	368.869	421.542	14
Enpresa pribatuei	304.604	152.853	-50
Familiei eta irabazi-asmorik gabeko erakundeek	614.407	711.148	16
Kanpora	51	54	4
Guztira	2.298.909	2.331.696	1

Gastu-kapitulu honetako hazkunderik handiena, batez ere, familiei eta irabazi-asmorik gabeko erakundeek egindako transferentziak 96,74 milioi gehiago izan direlako izan da. Hala ere, nabarmentzekoa da enpresa pribatuei egindako transferentzietan 151,75 milioi gutxiago izan direla (% 50). Beherakada hori honako gertakari hauek eragin dute:

- Erregaien hobariak 132,89 milioi euro murriztea 2022an, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko Plan Nazionalaren esparruan, 2022ko abenduaren 31ra arte.
- 18,87 milioiko murrizketa energiaren prezio altuek eragindako enpresentzako laguntzetan, lehen aipatutako planaren esparruan.

Familiei eta irabazi-asmorik gabeko erakundeek egindako transferentzien igoerari dagokionez (96,74 milioi), igoera hori batez ere biltzen duten aurrekontuko partidak nabarmentzen dira:

- Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera, 42,07 milioiko hazkundearekin, prestazio honen kudeaketan eskumenen eskualdaketa 2022ko azaroan hasi baitzen.
- Otik 3ra bitarteko adingabeak dituzten familiei laguntzeko laguntza ekonomikoak, 7,72 milioitan (2022an ez zegoen laguntza hori jasota).
- Bonu sozial termikoa, 6,29 milioiko igoerarekin.

Aurrekontuko kapitulu honetan, honako hau berrikusi dugu:

Laguntza ekonomikoak Otik 3 urtera bitarteko adingabeak dituzten familientzat

2023ko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean Familien Legearen aurreproiektuan Estatu osoan ezarritako hazkuntzagatiko prestazioa, eta, beraz, departamentu horrek egokitzen jo zuen 2023ko ekitaldian Nafarroako Foru Komunitateko laguntza arautzea, Nafarroako familiekiko desabantaila saihesteko.

Apirilaren 24ko 1/2023 Foru Lege-Dekretuaren bidez, kreditu gehigarri bat onartu zen zenbait departamentutarako, horien artean Gizarte Eskubideen Departamentua, 10 milioiko finantzaketarekin, ondoren Otik 3 urtera bitarteko adingabeak ardurapean dituzten familiei laguntzeko dirulaguntzen deialdi publiko bat onartzeko.

2023ko uztailaren 31ko NAO-n laguntza-deialdia eta haren oinarri arautzaileak argitaratu ziren, bana-kako ebaluazio-araubidean, eta 10 milioiko gastua baimendu zen. Azpimarratzekoa da laguntza horiek bateraezinak direla errenta bermatua jasotzearekin eta KPlarekin, eta onuradunen diru-sarreraren mailak baldintzatzen dituela.

Jasotako eskaeren emaitza taula honetan ageri da:

Eskaeren egoera	Kopurua	Zenbatekoa
Onartutakoak	7.716	7.722.000
Ukatuak	1.120	
Artxibatuak	694	
Guztira	9.530	7.722.000

Egin dugun berrikuspenetik, laguntza horiek ematea dirulaguntzen araudian ezarritakora egokitzen da, baina nabarmendu behar dugu ez dagoela jasota dirulaguntzaren xede den onura publiko edo sozialik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean (aurrerantzean, DFL) ezarritakoaren arabera.

Laguntzen deialdietan helburu duten onura publikoko edo sozialeko helburua identifikatzea gomentatzen dugu.

2017 eta 2021 artean enplegua sustatzeko kontrataziorako laguntzen eraginkortasunari eta efizientziari buruzko txostenaren gomendioen jarraipena

2022ko irailean, Ganbera honek txosten hau argitaratu zuen: "Eraginkorrak eta efizienteak izan al dira 2017tik 2021era enplegua sustatzeko kontrataziorako laguntzak?". Txosten horretan honako gomendio hauek eman ziren, besteak beste: *"Enplegu programa garrantzitsuenen inpaktua ebaluatzea, eta, horren barruan, lortutako emaitzak kontrol-talde batekin alderatzea"*.

Gure txostenean, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak (aurrerantzean, NEZ) programen gainean egindako ebaluazioari buruzkoan, azaltzen zen 2015. urtera arte NEZeko zerbitzu bakoitzak finantzatzen zituen programen jarraipena egiten zuela. 2019an, legealdia aldatzearekin batera, ebaluazio hori egiteko atal espezifiko bat sortu zen. Hala ere, ebaluazio horiek ez ziren emaitzak kontrol-talde batekin alderatuz egiten.

Gomendio horri egin diogun jarraipenean ikusi dugunez, inpaktua ebaluatzeko bi txosten daude, eta txosten horietan zehazten da konparazio- edo kontrol-taldeak erabili dituztela azterketa egiteko.

Txosten horiek 2023an egin dira, eta 2021eko gastu-partidei buruzkoak dira. Bi txostenen artean 0,87 milioiko gastua ebaluatzen ari da (Desgaitasuna duten eta gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonentzako lanbide-orientazioko zerbitzuaren eraginaren ebaluazioa) eta 1,8 milioikoa (Formazio eta Enpleguko Programa Integratuen eraginaren ebaluazioa).

Beraz, uste dugu gomendioa zentzuz bete dela.

Dirulaguntza-plan estrategikoak

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen (aurrerantzean, DFL) 5.bis artikulua ezartzen duenez, NAFKak ematen duen Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (aurrerantzean, DPE) hiru urtean behin egin behar da, departamentuka eta jarduera-lerroka banakatuta. Plan hori urtero berrikusi behar da, egin beharreko aldaketak eta doikuntzak gehituta, eta Nafarroako Parlamentuan ekonomia arloan eskumena duen batzordeari aurkeztu behar da. Plan horrek, onetsia izan aurretik, Ekonomia eta Ogasun departamentuaren baimena lortu behar du.

Urte bakoitzeko lehen lauhilabetekoan, departamentu eta erakunde autonomoek aurreko ekitaldiko deialdien ebaluazio-txostenak prestatuko dituzte. Txosten horietan aztertuko dira deialdi bakoitzean banaka planteatutako helburuen eta helburu estrategikoen betetzea eta diru-laguntza emateko prozeduran ezarritako epeen betetze-maila, bai eta deialdiei lotutako gai garrantzitsuak ere. Departamentu bakoitzaren txostena Kontu-hartzailetzako Zuzendaritza Nagusiari eta Nafarroako Parlamentuan ekonomiaren arloan eskumena duen batzordeari igorriko zaie.

Nafarroako Gobernuaren 2017ko abenduko Akordioaren bidez, NAFKaren 2018-2020 urteetako lehen DPEa onartu zen. Nafarroako Gobernuak, 2023ko apirilko erabakiaren bidez, 2023-2025 DPEa berrikustea eta eguneratzea onartu zuen. DPE honek txosten orokor bat dauka, eta, departamentu bakoitzeko, 2023ko ekitaldiko aurrekontuetan sartutako partiden fitxa bat dirulaguntza lerro bakoitzeko.

Bestalde, Kontu-hartzailetzako Zuzendaritza Nagusiak, 2020ko irailean, "Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzen plangintza estrategikoaren auditoria" izeneko txostena egin zuen. Txosten horretan, 2018-2020 DPEn eta 2019-2021 DPEn azterketa globala egin zen, bai eta 2018-2020 DPEaren ebaluazioa ere, ordura arte bakarra izan zelako. Bestalde, Ganbera honek, 2021ean, "Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak enpresa pribatuei emandako dirulaguntzak, 2020" txostenari buruzko txosten bat egin zuen. Txosten horretan, DPEi buruzko bost gomendio jaso ziren.

2019ko apirilean, Aurrekontuen eta Finantza Politikaren Zerbitzuak "DPEn helburu eta adierazleen gida" onartu zuen. Gida hau lantalde baten emaitza gisa sortu zen, eta lantalde hori berriaz eratu zen NFAKk DPEak egiteko eta horien jarraipena egiteko jarraitu beharreko jarraibideak hobetzeko.

Aurrekontuen, Ondarearen eta Politika Ekonomikoaren zuzendari nagusiaren apirilaren 23ko Ebazpenaren bidez, 2024-2026 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa berrikusteko eta 2023ko deialdien ebaluazio-txostenak egiteko jarraibideak eman ziren.

2023ko deialdietako ebaluazio-txostenetatik, honako lagin hau²⁹ hautatu dugu:

			(milioitan)
Departamentua	Deialdia	Emate-arabidea	Zenbatekoa
Etxebizitza, Gazteria eta Migrazio Politikak	Etxebizitzaren arloko jarduketetarako dirulaguntzak eta subsidioak	Banakako ebaluazioa (DFL 17.1 art.)	38,23
Eskubide Sozialak, Ekonomia Soziala eta Enplegua	Garapen bidean dauden herrialdeetan esku-hartze sozialak eta ekonomikoak egiteko dirulaguntzak	Norgehiagoka (DFL 17.1 art.)	14,42
Landa Garapena eta Ingurumena	2014-2020 aldirako Nafarroako Landa Garapenerako Programako "Inbertsioak nekazaritza ustiattegietan" neurriko laguntzak	Norgehiagoka (DFL 17.1)	11,32
Garapen Ekonomiko eta Enpresariala	PDR LGENF 2014-2020. Industrializazio inbertsiorako dirulaguntzak	Norgehiagoka (DFL 17.1 art.)	10
Unibertsitatea, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala	SINAko eragileentzako laguntzak, lankidetzako I+G proiektuak egiteko	Norgehiagoka (DFL 17.1)	5,55
Hezkuntza	Enplegu-prestakuntzarako ekintzak prestakuntzarako beste zentro batzuetan Konferentzia sektoriala	Norgehiagoka (DFL 17.1)	5,36
Lurralde Kohesioa	20.000 biztanlelik beherako Nafarroako udalerrien sareen hornidura hobetzeko eta galerak murrizteko dirulaguntzak	Norgehiagoka (DFL 17.1)	3,15
Kultura, Kirola eta Turismoa	Nafarroako Kirol Federazioei dirulaguntzak 2022ko irailaren 1etik 2023ko abuztuaren 31ra bitartean	Norgehiagoka (DFL 17.1)	2,8
Memoria eta Bizikidetzak, Kanpo Ekintza eta Euskarara	Helduentzako euskararen irakaskuntza sustatzen duten entitateentzako dirulaguntza	Norgehiagoka (DFL 17.1)	2,3
Osasuna	Farmazia-prestazioak	Banakako ebaluazioa (DFL 17.1)	1,73
Lehendakaritza eta Berdintasuna	Nafarroako telebista autonomikoak Ikus-entzunezkoen ekoizpenerako laguntzak	Salbuespenetzko Zuzeneko (17.2.c art.) - lege-mailako arau bidezko zerga...	1,4
Barnea, Funtzio Publikoa eta Justizia	Gurutze Gorriarekiko hitzarmena, gastu arruntetarako	Zuzeneko (17.2.a art.)	0,19

Egindako berrikuspenean honako hau nabarmendu behar da:

- Berrikusitako 12 dirulaguntzetatik 11ren ebaluazio-txostena PDF formatuan dago. Beraz, formatuak ezin dira ustiatu, "Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren dirulaguntzak enpresa pribatuei, 2020" txostenean gomendatzen dugun bezala.

- Gure 2020ko txostenean egindako bost gomendioetatik bakarra³⁰ aplikatu dela egiaztatu dugu.

- Ez dago korrelaziorik partiden izenaren eta dirulaguntzen tituluen artean deialdietan eta Dirulaguntzen Estatuko Datu Basean, berrikusitako 12 lerroetatik bitan.

Helburu estrategikoak. Berrikusitako fitxa guztietan helburu estrategikoen eta helburu operatiboaren eremuak betetzen dira. Gure ustez, helburu estrategikoak, oro har, arrazoizkoak dira deskribapenean, baina ez daude lotuta aurrekontu-programen helburuekin.

Bestalde, gehigarri honen 5.1 atalean, NFAKren aurrekontu orokorretako aurrekontu-programen ahuleziak islatu ditugu.

- Helburu operatiboak.
 - Bi fitxatan, helburu estrategikoa dirulaguntzak ematea da. Dirulaguntzen jarduera helburu bat bete zeko bitartekoa da, ez helburua.

²⁹Zenbateko handieneko laguntza-lerroa aukeratu da.

³⁰Dirulaguntzak emateko arabidearen definizioa: norgehiagoka edo zuzeneko emakida.

- Helburuak eta adierazleak formulatzeko gidak hausnarketa bat egiteko beharra jasotzen du. Hausnarketa horretan, alde batetik, lortu nahi diren emaitzak ezarritako helburuarekin lotu behar dira, eta, bestetik, ebidentzia ukigarri bat dago emaitza horiek lortu direla egiaztatzeko. Ez dago ebidentziarik helburu operatiboak definitzean gogoeta-lan hori egin denik.

- Adierazleak

- Berrikusitako hamabi fitxetatik hirutan hutsuneak daude, zehazki, aurrekontua gauzatzearen ehuneko (baliozkoa ez den adierazlea), DPEko adierazleekin bat ez etortzea, eta eskuragarri dagoen informazio eguneratua falta da.

- Hamabi fitxetatik zazpitan, deskribapen formaletatik harago, ez dira behar bezala baloratzen hasierako datuen, jomugen eta datu errealen artean adierazleek (emaitzari edo jarduerari buruzkoak) dituzten desbideratzeak.

- Emaizta- eta jarduera-adierazleak helburu operatiboekin lotuta dauden arren, uste dugu ez direla nahikoak dirulaguntzarekin helburu estrategikoa lortzen laguntzen den baloratzeko.

- Kostua

Ebaluazio-txostenetan ez dira behar bezala baloratzen aurreikusitako zenbatekoaren eta azkenean gauzatutakoaren arteko aurrekontu-desbideratzeak.

- Deialdiko beste gai garrantzitsu batzuei buruzko fitxaren eremua ez dago beteta 12 txostenetatik bostetan³¹, edo ez da aztertu helburu estrategikoei egindako ekarpena. Gainerakoetan, iruzkin deskribatzaileak egiten dira, aipatutako helburuei egin beharreko ekarpena azaldu gabe.

Hori guztia dela-eta, *gomendio* hauek egiten ditugu:

- *Ebaluazio-txostenen formatua aldatzea, datuak ustigarriak izan daitezen eta informazioaren tratamendu eraginkorragoa ahalbidetu dezaten.*

- *DPEren ildoetarako helburu estrategikoak definitzea, aurrekontu-programekin benetan lotuta dauden egiaztatzeko.*

- *Departamentu bakoitzak egiten dituen ebaluazioetan, desbideraketei eta, ondorioz, neurrien eraginkortasunari buruzko azterketa eta ondorio eraginkorrak sartzeari, dirulaguntzen eragina ebaluatu ahal izateko.*

- *Helburu estrategikoen eta operatiboaren arteko lotura ezartzea, agerian gera dadin helburu estrategikoekin lehenengoak lortzen laguntzen dela.*

Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa

Nafarroak, bere foru-araubidearen indarrez, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean 1990eko uztailaren 31n sinatutako hitzarmen ekonomikoari jarraituz gauzatzen du bere finantza- eta tributua-jarduera. Hitzarmen hori abenduaren 26ko 28/1990 Legean araututa dago. Hitzarmen horrek harmonizazio fiskalerako irizpideak ezartzen ditu, bai eta Nafarroak —Foru Komunitateak bere gain hartzen ez dituen estatuaren zamak direla-eta eta tributuen diru-bilketaren doikuntzetarako— egin beharreko ekarpena kalkulatzeko metodoa ere. Ekarpene hori bost urteko epe-etarako ezartzen da eta epe horiei aplikatzen zaie.

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomiko indardunak hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusten du ezen, Estatuko ordenamendu juridikoan funtsezko erreformaren bat gertatzen bada, bi administrazioek, ados jarrita, Hitzarmen Ekonomikoa moldatu edo egokituko dutela.

Kontu orokorren aurreko txostenean adierazi genuen bezala, 2022an urriaren 19ko 22/2022 Legea onartu zen, 28/1990 Legea aldatzen zuena. 2022an, aldaketak 2018tik 2022ra bitarteko ekitaldiak erregularizatzea ekarri zuen, eta horrek atzeraeraginezko doikuntzak ekarri zituen, bai gas-tuetan, bai diru-sarreretan.

³¹Helburu estrategikoetarako kontribuzioa.

2023ko hitzarmenetik eratorritako aurrekontu-datuak eta 2022ko ekitaldiarekin duten konparazioa taula honetan ikus daitezke:

	(milakotan)	
	2022	2023
Hitzarmena-Aurrekontuko partidak		
Estatuarentzako behin-behineko ekarpena	738.845	771.286
Lik.Def. Aurreko ekitaldiko ekarpena	143.841	140.444
Gastu-partiden guztizkoa - Hitzarmena	882.687	911.730
PFEZeko lanaren eta kapitalaren etekinen atxikipenengatiko doikuntza	303.075	146.576
BEZarengatiko doikuntzak	1.363.868	1.137.116
Alkoholaren eta edari eratorrien gaineko zerga bereziengatiko doikuntza fiskala	-41.383	-29.473
Garagardoaren gaineko zerga bereziengatiko doikuntza fiskala	6.902	6.273
Tabakogaien gaineko zerga bereziengatiko doikuntza fiskala	6.352	14.881
Hidrokarburoen gaineko zerga bereziengatiko doikuntza fiskala	165.714	89.373
Estatuarentzako ekarpenaren behin betiko likidazioa	22.802	-
<i>Berrerabili ezin diren plastikozko zerga bereziengatiko doikuntza fiskala</i>	-	6.394
<i>Gas fluordunen gaineko zerga bereziengatiko doikuntza fiskala</i>	-	867
<i>Aldi baterako karga energetikoagatiko doikuntza fiskala</i>	-	26.312
<i>Aldi baterako kargagatiko doikuntza fiskala</i>	-	20.226
<i>PFEZeko atxikipenen, BEZaren, zerga berezien eta gainerakoen ondoriozko doikuntzak, guztira</i>	<i>1.827.330</i>	<i>1.418.544</i>
Diputazioen parte-hartzea Estatuaren diru-sarreretan	114	119
Diru-sarreren partidak, guztira - Hitzarmena	1.827.443	1.418.663

• Hitzarmenaren ondoriozko 2023ko guztizko gastuak 1.418,66 milioioak dira, eta horietan honako kontzeptu hauek bereizi behar dira:

a) Ekitaldiaren beraren 146,57 milioiko PFEZko lan- eta kapital-atxikipenengatiko doikuntzak aurreko ekitaldian baino txikiagoak dira; izan ere, 2022an, ekitaldi horretako 117,38 milioiez gain, 185,70 milioi sartu ziren, 2020ko eta 2021eko ekitaldietako lan- eta kapital-atxikipenak erregularizatzeko.

b) BEZaren eta zerga berezien doikuntzek (2023an bi zerga berezi berri sartu dira), guztira 1.225,43 milioi eurokoak, 2023ko doikuntzak eta 2022ko ekitaldiari dagozkion erregularizazioei dagozkienak barne hartzen dituzte. Aurreko ekitaldian, 2020ko eta 2021eko ekitaldiak erregularizatu behar izan ziren.

c) 2023ko ekitaldian, 2022ko ekitaldian ez bezala, hitzarmenaren aldaketan sartu ziren aldi baterako karga berriei dagozkien doikuntzak sartu dira.

- Taula honetan, hitzarmenetik eratorritako finantza-fluxuak eta 2023ko saldoa jaso ditugu:

Doikuntza fiskalak		Zenbatekoa
Kobratzeke dauden doikuntzen saldoa		1.225.430.593
Beste diru-sarrera batzuk		118.980
Diru-ekarpena 2023	A+B	642.612.107
Ekarpen likidoa		911.729.710
Lanaren eta kapitalaren atxikipenengatiko doikuntzak		-146.575.820
Ekarpen garbia 2023	A	765.153.890
Ordainketa-kompentsazioa		
SAAD		- 24.849.412
Foruzaingoaren erretiro aurreratua		- 2.446.658
Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera 2023		- 48.708.333
Energia-kargaren aldi baterako partaidetza		- 26.311.652
Kreditu-erakundearen aldi baterako partaidetza		- 20.225.728
Guztira	B	- 122.541.783
Nafarroa-Estatua 2023ko finantza-fluxuen guztizko saldoa		582.937.466
Nafarroaren aldeko saldo garbia 2023an		460.395.684

Kapital-transferentziak

2023an aitortutako kapital-transferentziak 258,66 milioi eurokoak izan ziren. Ekitaldian aitortutako betebeharrak guztien % 4 egiten dute, eta % 25eko igoera (51,23 milioikoa) izan zuten 2022koekin alderatuta, ondoren erakusten den bezala:

(milakotan)

Aurrekontuko artikulua	Aitortutako betebeharrak, 2022 garbiak,	Aitortutako betebeharrak, 2023 garbiak,	Aldea (%) 2023/2022
Fundazioei	4.109	3.282	-20
Enpresa publikoei eta beste ente publiko batzuei	10.023	21.811	118
Toki entitateei	84.617	83.929	-1
Enpresa pribatuei	57.335	68.596	20
Familiei eta irabazi-asmorik gabeko erakundeei	51.342	81.040	58
Guztira	207.426	258.658	25

Familiei eta irabazi-asmorik gabeko erakundeei egindako transferentziak % 58 igo dira (29,69 milioi), batez ere arrazoi hauengatik:

- 10,55 milioi gehiago etxebizitzako jardueretarako dirulaguntzetan eta sorospenetan.
- 14,72 milioiko igoera MMR, REACT eta PDR LGENF funtsen dirulaguntzetan.

5.7. ZERGAK, TASAK, PREZIO PUBLIKOAK ETA BESTELAKO DIRU-SARRERAK

Zergak

2023ko ekitaldian zergengatik aitortutako eskubide garbiek 5.145,90 milioi euro egin zuten. Eskubideen guztizkoaren % 87 egiten dute.

Ondoren, eskubide horiek erakusten ditugu, zerga-figura desberdinetarako, bai eta aurreko ekitaldikoekiko alderaketa ere:

(milakotan)			
Aurrekontuko artikulua	Aitortutako eskubide garbiak, 2022	Aitortutako eskubide garbiak, 2023	Aldea (%) 2023-2022
PFEZ	2.143.022	2.091.120	-2,4
Sozietateak	369.547	531.796	44
Egoiliar ez direnen errenta	3.446	12.804	272
Ondarea	31.768	35.053	10
Oinordetzak eta dohaintzak	68.345	59.587	-13
Banku-gordailuak	6.457	6.465	0,1
Energia-ekoizpenaren balioa	-597	1.036	273
Saltoki handiak	2.503	2.063	-18
Loterietako eta apustuetako sariak	4.080	1.278	-69
1. Zuzeneko zergak	2.628.572	2.741.203	4
BEZa	1.616.899	1.755.606	9
Zerga bereziak	548.744	524.669	-6
Kontsumoen gaineko beste zerga berarri-azko batzuk	-	-	-
Aseguru primen gaineko zerga	30.357	32.952	9
Ondare eskualdaketak	66.696	58.253	-13
Egintza juridiko dokumentatuak	16.561	17.618	6
Joko-jarduerak	1.620	3.377	108
Berotegi-efektuko gas fluordunak	1.000	1.571	57
Finantza-transakzioak	-	3.214	-
Zerbitzu digital jakin batzuk	-	7.441	-
2. Zeharkako zergak	2.281.877	2.404.700	5
1+2, guztira	4.910.449	5.145.903	5

Azterketa egin ondoren, honako alderdi hauek nabarmentzen ditugu:

- Zergen bidez aitortutako eskubideak % 5 igo dira 2022aren aldean, 4.910,44 milioitik 5.145,90era igaro baitira, eta horrek 235,46 milioiko hazkundera ekarri du. Zerga gehienek gora egin dute neurri handiagoan edo txikiagoan, eta hauek dira garrantzitsuenak: Sozietateen gaineko Zerga, 117,95 milioi (% 32) eta BEZa, 138,71 milioi (% 9).

- PFEZri dagokionez, urte arteko aldakuntza negatiboa bada ere (51,9 milioi) (-% 2,4), azpimarratu behar da jaitsiera hori termino garbietan dela, batez ere bi faktoreren agregazioagatik, kontabilitateko egoera-orrietatik ondorioztatzen denaren arabera:

- 105 milioiko igoera zergaren bilakaera positiboaren ondorio da.

- 156,50 milioiko murrizketa "Lan- eta kapital-atxikipenengatik doikuntzak" kontzeptuagatik, kontzeptu horri ematen zaion tratamendu berriagatik, lehen Hitzarmen Ekonomikoaren atalean adierazi den bezala.

- BEZari dagokionez, kontuan hartu behar da ea zerga horrengatik aitortutako eskubideak Nafarroaren zuzeneko kudeaketatik datozen edo Estatutik datozen, Hitzarmen Ekonomikoan zerga-figura horri buruz ezarritako doikuntzak direla-eta. Hona diru-sarrera horien jatorria banakatuta:

(milakotan)

Aitortutako BEZa	2021		2022		2023	
	Zenbatekoa	Ehunekoak	Zenbatekoa	Ehunekoak	Zenbatekoa	Ehunekoak
Zuzeneko kudeaketa	433.831	30	253.031	16	618.490	35
Hitzarmeneko doikuntza	1.027.452	70	1.363.868	84	1.137.116	65
BEZa, guztira	1.461.283	100	1.616.899	100	1.755.606	100

Hitzarmenean aplikatu beharreko metodologiaren arabera, ikusten da 2023an aitortutako eskubide gehienak Hitzarmenaren doikuntzen ondorioz sortu direla. Hala ere, 2022ko ekitaldiari dagokionez (hitzarmena aldatu zen urtea eta hura kalkulatzeko metodologia), zuzeneko kudeaketaren ataleko igoera esanguratsua da, hitzarmeneko doikuntzen kaltetan. Nolanahi ere, 2021eko ekitaldiarekin alderatuz gero, 2023ko ehunekoak nahiko antzekoak dira.

- CATetik kudeatutako eta orokorrean aurrekontu-likidaziora aldatutako itzulketak 1.810 milioi eurokoak izan dira; zenbateko hori % 7 handiagoa izan da 2022koa baino. Itzulketen izaerari erreparatuta, haien % 15 beste zor batzuekiko konpentsazioaren bidez egin dira.

Hurrengo taulan, 2023ko zerga garrantzitsuenen itzulketak azaltzen ditugu, aurreko ekitaldian izandakoekin alderatuta:

(milakotan)

Zergen itzulketa*	2022	2023
BEZa, zuzeneko kudeaketa	1.365.518	1.378.939
PFEZa	208.120	281.169
Sozietateak	77.325	130.608
Guztira	1.650.963	1.790.716

*Iturria: Diru-bilketa Zerbitzuaren txosten batean jasotako informazioa

Azken urteetan gertatu den bezala, zuzenean kudeatutako BEZa da itzulketen bolumen handiena sortzen duena. 2023an guztizkoaren % 76 hartu du.

- Aurrekontu arruntean edo itxitako ekitaldietako aurrekontuan baliogabetutako edo ezeztatutako eskubideei buruzko informaziorik ez da jaso aurrekontua betearazteko memorian. Borondatezko aldiaren nahiz betearazpen aldiaren eskatutako zerga-itzulketei, geroratzei edo zatikatzei buruzko informaziorik ere ez da ematen.

- Memorian ez da zerga garrantzitsuenetan izandako aldaketen arrazoiei buruzko nahikoa informazio jaso.³²

Hori guztia dela-eta, *gomendio* hauek egiten ditugu:

- *Aurrekontua betetzeari buruzko oroitidazkian behar den informazioa jasotzea zerga-bilketa-ren prozesuan eragiten duten egoera guztiei buruz.*
- *Aurrekontua gauzatzeko memorian informazio gehiago sartzea zerga esanguratsuenen (PFEZ, SZ eta BEZa) bilakaeran izan diren zerga-arrazoi garrantzitsuenei buruz.*

³²Pertsona fisikoen aitortpenen kopuruan izandako aldaketa PFEZn, zerga-oinarrietan, zergak SZn ordaintzen dituzten pertsona juridikoen erroldan, zerga-ordainketaren ondorioak SZn eta BEZean, etab.).

Kontu orokorren oroitidazkiak informazioa dauka zerga-onuren exekuzioari buruz; honako hau da haren laburpena:

(milakotan)

Zergak	Aurrekontua 2023ko onura fisk.	Emitzak 2023	Ehuneko Errealiza- zioa
PFEZa	438.634	441.432	101
Sozietateak	131.466	155.784	118
Ondarea	28.500	26.898	94
Egoiliar ez direnen errenta	1.565	8.426	438
Oinordetzak eta dohaintzak	8.993	10.567	118
1. Zuzeneko zergak	609.158	643.107	106
BEZa	797.988	884.158	111
Zerga bereziak	56.681	50.743	90
Aseguru primen gaineko zerga	11.655	13.684	117
Ondare eskualdaketak eta egintza juridiko dokumentatuak	8.930	7.610	85
2. Zeharkako zergak	875.254	956.195	109
Onura fiskalak, guztira	1.484.412	1.599.302	108

2023ko zerga-onurak, memorian jasotako informazioaren arabera, 1.599,30 milioikoak dira, aurreikusitakoa baino % 8 handiagoak. Memorian ez da daturik ematen zerga-onura bakoitzarekin lortu nahi diren helburuei buruz, ezta helburu horiek lortzeari buruz ere. Halaber, Ganbera honen txostenetan azken urte hauetan aipatu bezala, adierazgarria da onura fiskal horiek, 2023ko ekitaldian, onura fiskalik ez balego izanen genituzkeen aitortutako eskubide garbien % 31 izatea.

Zerga iruzurraren kontrako borroka

Nafarroako Zerga Ogasunak Ganbera honi emandako informazioaren arabera, 2011tik 2023ra bitartean zerga iruzurraren aurkako borrokak diru-sarrera hauek sortu ditu:

(milakotan)

Ekitaldia	Tributuen kudea- keta	Ikuskapena	Tributu arloko beste- lako jard.*	Guztizko zen- batekoa	Indizea
2011	52.045	38.808	-	90.853	100
2012	58.648	69.499	-	128.147	141
2013	57.358	37.826	-	95.184	105
2014	56.137	28.681	-	84.818	93
2015	50.992	45.610	8.129	104.731	115
2016	58.774	46.142	19.363	124.279	137
2017	94.408	33.586	20.984	148.978	164
2018	88.961	53.993	27.154	170.108	187
2019	93.514	38.536	23.487	155.537	171
2020	56.782	27.154	74.380	158.316	174
2021	55.447	53.375	11.480	120.302	132
2022	69.864	33.098	74.394	177.356	195
2023	157.898	78.407	23.175	259.480	286

* 2015ean hasi zen bestelako tributu jarduketaren kontaketa.

Zerga iruzurraren aurkako borrokak sortutako diru-sarrerek gorabehera nabarmenak izan dituzte, eta 2014an izan dute balio txikiena. Geroztik, ordea, gora egin dute eta 2023an 259,48 milioioak izan dira, 2022an baino % 46 apalagoak.

Taula honetan, xehetasun handiagoz alderatuko ditugu 2022ko eta 2023ko ekitaldietako iruzurraren aurkako jarduerak, Iruzur Fiskalaren aurkako Batzordean aurkeztutako NFOren informazioaren arabera:

(milakotan)

Zerga iruzurraren kontrako borroka	2022		2023	
Ikuskapena	Jarduketa kop.	Zenbatekoa	Jarduketa kop.	Zenbatekoa
Ikuskapen aktak	3.675	12.598	3.709	13.747
Zehapen espedienteak	1.327	10.751	1.255	6.207
Erantzukizun zibila, delituengatik (1)	3	4.195	3	54.324
Ikuskapenak eragindako erregularizazioak	55	3.071	21	2.585
Kreditu fiskalak deuseztatzea	57	2.483	57	1.544
Ikuskapena, guztira	5.117	33.098	5.045	78.407
Zergen kudeaketa	Likidazioen kop.	Zenbatekoa	Likidazioen kop.	Zenbatekoa
BEZa	5.196	8.174	4.485	110.438
PFEZa	3.904	4.674	4.037	4.500
Sozietateak	936	4.163	1.286	7.224
Gainerako zergak	1.818	13.523	1.868	5.727
Zehapenak	15.216	7.286	3.962	3.904
Garaiz kanpoko aitortpenen errekarquak	3.345	880	6.164	2.406
Errekerimenduak	9.387	2.778	7.475	2.321
Kudeaketak eragindako diru-sarrerak	5.822	28.387	10.361	21.378
Kudeaketa, guztira	45.624	69.864	39.648	157.898
Beste tributu-jarduketa batzuk	Jarduketa kop.	Zenbatekoa	Jarduketa kop.	Zenbatekoa
Guztira	60	74.394	32	23.175

(1) Delitu fiskaletik eratorritako zenbatekoak

2023an, ikuskapen-arloko jarduketak % 137 igo dira 2022arekin alderatuta (45,31 milioi), batez ere "Erantzukizun zibila, delituagatik" atalean izandako gorakadaren ondorioz. Aurrekoari buruz adierazi behar dugu urtero jarduketa plan bat egiten dela eta lortutako sortzapenek ez dutela zertan joera baten arabera izan.

Bereziki esanguratsua da zerga-kudeaketaren arloko 88,03 milioiko igoera (% 126), batez ere BEZaren 102,26 milioiko igoerak (% 1.251) eraginda. Igoera hori, funtsean, NFOko zerga-ordainketaren zifra erlatiboa erregularizatzeko espediente baten ondorio da. Erregularizazioak berekin ekarri du beste zerga-administrazio batzuetan bidegabeki sartutako funtsak erreklamatzeari.

Diru-sarrera horiek sortu izanak ez du esan nahi zenbateko horiek kobratu direnik. Arestian aipatu dugun bezala, CATen diseinuan eta tributuen kudeaketarako eta kontabilitaterako erabiltzen diren aplikazio informatikoen artean dauden arazoak direla-eta, ezin dugu identifikatu zerga iruzurraren aurkako borrokan detektatutako kopurutik zenbat diru bildu den egiazki.

Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk

Tasak, prezio publikoak eta aitortutako bestelako diru-sarrera garbiak 155,27 milioi eurokoak izan dira 2023. urtean. Ekitaldiko eskubide guztien ehuneko hiru egiten dute, eta honako kontzeptu hauei dagozkie:

(milakotan)

Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	Aitortutako eskubide garbiak, 2022	Aitortutako eskubide garbiak, 2023	Aldea (%) 2023/2022
Tasak	16.191	16.160	-
Prezio publikoak	66.940	70.695	6
Ondasunak saltzea	2.488	2.798	12
Eragiketen itzulketak	14.615	21.448	47
Beste diru-sarrera batzuk	56.510	44.173	-22
Guztira	156.745	155.275	-1

Kapitulu honen osagairik aipagarriena prezio publikoen bidezko diru-sarrerari dagokie; 70,69 milioi eurokoak izan baitziren, eta horien artean nabarmentzekoak dira gizarte-zerbitzuak emateagatik diru-sarrerak (57,17 milioi) eta beste erakunde batzuekin asistentzia medikoagatik egindako itunak (9,78 milioi).

Bestetik, tasen bidezko diru-sarrerak 16,16 milioi eurokoak izan ziren, eta horietatik 11,57 milioi joko-jardueratik heldutako tasei dagozkie. Honako hauek dira "bestelako diru-sarrerak" izendapenaren pean sartzen diren kontzeptu nagusiak: isunak eta zehapenak, 16,87 milioi; errekaratuak, 12,71 milioi; eta berandutze-interesak, 2,75 milioi.

5.8. BESTE DIRU-SARRERA BATZUK**Ondareko diru-sarrerak**

(milakotan)

Ondareko diru-sarrerak	Aitortutako eskubide garbiak, 2022	Aitortutako eskubide garbiak, 2023	Aldea (%) 2023/2022
Emandako aurrerakin eta maileguen interesak	8	5	-32
Gordailuen eta atzerapenen interesak	1.811	23.776	1.213
Ondasun higiezinak errentak	861	647	-25
Emakida produktuak	607	648	7
Bestelako ondare diru-sarrerak	1.973	0	-100
Guztira	5.260	25.076	

Gordailuen interesengatik sarrerak berrikusi ditugu, 21,49 milioi eurokoak, nabarmen hazi baitira. Izan ere, 2022an gordailatzeko erraztasuna³³ negatiboa eta zero zen nagusiki, eta 2023an % 2 eta % 4 artean egon da. Gainera, 2023ko eguneko saldoa 2022koa baino handiagoa izan da.

³³ Gordailatzeko erraztasunari esker, finantza-erakundeek egun bateko gordailuak egin ditzakete estatuetako banku zentraletan, eta horiek EBZak ezarritako interes-tasan ordainduko dira (gordailatzeko erraztasunaren tasa).

Transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak

Transferentzia arrunten eta kapital-transferentzien bidezko diru-sarrerak 334,76 eta 189,6 milioikoak izan ziren, hurrenez hurren, ondoren azaltzen dugun bezala:

(milakotan)

Aurrekontuko artikulua	Eskubide aitortuak Garbiak, 2022	Eskubide aitortuak Garbiak, 2023	Aldea (%) 2023-2022
Estatuko Administrazioaren transferentzia arruntak	199.927	312.836	56
Fundazioen transferentzia arruntak	203	429	111
Enpresa publikoen eta beste ente publiko batzuen transferentzia arruntak	183	165	-10
Toki entitateen transferentzia arruntak	2.041	2.013	-1
Enpresa pribatuen transferentzia arruntak	179	170	-5
Familien eta irabazi-asmorik gabeko erakundeen transferentzia arruntak	6	6	-
Kanpotik datozen transferentzia arruntak	14.361	19.139	33
Transferentzia arruntak, guztira	216.900	334.759	54
Estatuko Administrazioaren kapital-transferentziak	177.473	158.537	-11
Toki entitateen kapital-transferentziak	136	3.250	2.293
Kanpotik datozen kapital-transferentziak	19.305	27.813	44
Kapital-transferentziak, guztira	196.914	189.600	-4

- Transferentzia arrunten bidezko diru-sarrerek % 54 egin dute gora (117,85 milioi) 2022koekin alderatuta, eta arrazoi nagusia da Estatutik jasotako transferentziak % 56 handitu direla (112,91 milioi gehiago). Igoera horren arrazoi nagusia honako hau da:

- 46,54 milioi euro sartu dira “Aldi baterako energia-kargan parte hartzea” (26,31 milioi) eta “Kreditu-erakundeen aldi baterako kargan parte hartzea” (20,22 milioi) kontzeptuekin. Finantzaketa hori berria da, 2023an sartu baitzen indarrean abenduaren 27ko 38/2022 Legea, ordenamendu juridikoan, besteak beste, aldi baterako bi karga berri sartzen dituen: aldi baterako karga energetikoa eta kreditu-erakundeen eta kredituko finantza-establezimenduen aldi baterako karga. Nafarroak zerga-figura horietan duen parte-hartzea Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoaren esparruan gauzatzen da, eta gehigarri honetako 5.6 atalean dago jasota horren xehetasuna.

- Estatuak 147,88 milioi finantzatu zituen erregaiaren hobarietarako laguntzetarako; horietatik 49,33 milioi 2022an eta 98,55 milioi 2023an.

- 2023an 43,10 milioi gehiago sartu dira Bizitzeko gutxieneko diru-sarreretatik 2022an baino.

- Kapital-transferentziengatik diru-sarrerek % 4 murriztu ziren (7,31 milioi), batez ere Erreku-perazio eta Erresilientzia Mekanisмотik Estatutik jasotako diru-sarrera txikiagoengatik (18,93 milioi). Bestalde, kanpoko transferentziengatik diru-sarrerak (EGEF eta LGENF funtsak) ehuneko 44 handitu dira (8,51 milioi) toki-erakundeen diru-sarrei dagokienez, batez ere Lurralde Kohesiorako Departamentuak Barañain eta Landaben lotzeko bide berria eraikitzeko jaso dituen 2,78 milioiengatik.

5.9. EPE LABURREKO ZORDUNAK ETA HARTZEKODUNAK

Zordunak

203ko abenduaren 31n, zordunen saldoa 450,73 milioi eurokoa zen, eta honako datu hauei zegokien:

(milakotan)			
Zordunak	2022/12/31	2023/12/31	2023/2022 aldea (%)
Aurrekontuko zordunak	979.416	955.893	-2
Aurrekontukoak ez diren zordunak	93.118	110.447	19
Beste ente publiko batzuen baliabideetako zordunak	3.417	3.260	-5
Bestelako zordunak	6.322	5.998	-5
Kaudimengabeziatarako hornidura	(622.391)	(624.869)	-
Zordunak, guztira	459.882	450.729	-2

2023ko abenduaren 31n, saldoaren % 58 zegoen kaudimengabeziatarako hornituta (624,87 milioi euro). Hornidura horri buruz, urteko kalkulua historikoki egiten da, ekitaldiaren itxieran saldoari aplikatzen zaizkion portzentaje konstante batzuk aplikatuz, eta portzentaje horiek saldoaren izaeraren arabera aldatzen dira.

Honako hau da aurrekontuko zordunen osaera:

(milakotan)			
Aurrekontuko zordunak	2022/12/31	2023/12/31	Aldea (%) 2023/2022
Departamentuetako zordunak	39.011	28.187	-28
Kudeaketa arrunteko zordunak	227.298	182.593	-20
Luzapena eman zaien zordunak	67.007	75.889	13
Premiamendu bideko zordunak	640.367	650.591	2
Egoera berezietako zordunak	9.873	23.517	138
Erosketak itzultzeagatiko zordunak	554	548	-1
Zordunak, guztira	984.110	961.335	-2
Sortu ez diren korrituak eta errekarquak	-4.693	-5.442	16
Aurrekontuko zordunak, guztira	979.416	955.893	-2

Aurrekontuko zordunen 2023ko saldo orokorra aurreko ekitaldikoa baino % 2 (23,52 milioi) txikiagoa da. Nolanahi ere, kontzeptu garrantzitsuena premiamendu bideko zordunena da, 650,59 milioi egiten baitu, hau da, zordunen guztizko zifraren % 68.

“Aurrekontukoak ez diren zordunak” epigrafean, “Diru-laguntzen aurrerakinengatiko zordunak” kontua sartu da; kontu horren saldoa 110,40 milioiokoa zen 2023ko abenduaren 31n.

Kontu honetan daude jasota araudi aplikagarriaren arabera aurrerakintzat hartzen diren eta onuradunak ondoren justifikatu behar dituen diru-laguntzak. Haren saldoa ezeztatu egin behar da dirulaguntza emateko baldintzak betetzen direla egiaztatzen denean, orduan egotziko baitzaio gas-tua emaitzen kontuari.

Kontu hau kontabilizatzeko prozedura zehaztu bat badago ere, eta zenbait erregularizazio egin diren arren, ezin izan dugu egiaztatu kasu guztietan haren saldoa murriztu ote den justifikatutako zenbatekoan edo justifikatu gabeko zatian. Hortaz, ezin dugu zehaztu balantzeko saldo hori zuzena den. Akats hori jada agerian jarri zen Ganbera honek 2021eko eta 2022ko ekitaldietako kontu orokorreki buruz egin zuen txostenean.

Bestalde, luzapena eman zaien zordunen saldoak epe luzeko 25 milioi biltzen ditu, eta horregatik birsailkatu egin beharko litzateke eta epe laburreko zatitik bereizi.

“Beste zordun batzuk” xehatzeari dagokionez, nabarmentzekoa da CATen formalizatzeko dauden eragiketen kontua (CATen eta kontabilitatearen arteko lotura-kontua), 5,22 milioiko saldoa

baitu, osorik hornitua. Ganbera honek aurreko txostenetan ohartarazi duenez, zenbateko hori ez dago behar bezala oinarrituta.

Epe laburreko hartzekodunak

Epe laburreko hartzekodunen saldoa, obligazioen jaulkipenari eta beste balio negoziagarri batzuei dagozkienak jaso gabe, zeren eta jadanik aztertuta baitaude, 452,63 milioi eurokoa da 2023ko abenduaren 31n, eta honako hauei dagokie:

(milakotan)			
Epe laburreko hartzekodunak	2022/12/ 31	2023/12/ 31	2022/2021 aldea (%)
Aurrekontuko hartzekodunak	350.899	338.446	-4
Beste entitate batzuen konturako baliabideak administratzeagatiko hartzekodunak	11.348	10.414	-8
Administrazio publikoak	4.974	5.388	8
Bestelako hartzekodunak	125.197	91.101	-27
Epe laburreko fidantzak eta gordailuak	7.327	7.279	-1
Guztira	499.745	452.628	-9

Hartzekodun horiek % 9 (47,12 milioi) egin dute behera. Osagai garrantzitsuena aurrekontuko hartzekodunak dira, zeinak guztizkoaren % 75 baitira eta % 4 jaitsi baitira (12,45 milioi) 2022koekin alderatuta.

Jada adierazi dugunez, bere horretan jarraitzen du CATen eta SAPGE21en arteko loturaren arazoak, eta horren ondorioz bi aplikazioen arteko informazio trukea ez da egokia. Hori dela-eta, zergen itzulketagatiko aurrekontuko hartzekodunen eta beste hartzekodun batzuen ataletako emaitzak lortzeko, kontabilitateaz kanpoko doikuntza egiten da CATen zordunei eta hartzekodunei buruz dagoen zerga-informazioarekin. 2023an, doikuntza orokorra 157 milioi eurokoa izan zen.

5.10 DIRUZAINNTZA

2023ko abenduaren 31ko diruzaintza 780,23 milioi eurokoa zen, eta honako kontu mota hauetan zegoen:

(milakotan)			
Kontzeptua	Saldoa 2022/12/31n	Saldoa 2023/12/31n	2023/2022 aldea (%)
Diru-sarreraren kontu bereziak	14.055	19.259	7
Diru-bilketarako kontu murriztuak	48.904	19.809	-59
Kontu korrante operatiboak	659.006	741.159	12
Guztira	721.965	780.228	8

Diruzaintzako saldoak % 8 (58,26 milioi) igo dira, funtsean, kontu operatiboaren saldoa % 12 handitu delako (82,15 milioi gehiago).

Bestalde, diru-bilketarako kontu murriztuak % 59 (29,09 milioi) murriztu direla ikusten da. Urtero foru agindu bat argitaratzen da, Nafarroako Foru Ogasunaren bilketan laguntzen duten erakundeek funtsak sartzeko eta dokumentu eta bidalketa telematikoak aurkezteko epeak eta datak ezartzen dituen. Epe horien finkapena aldatu egiten da ekitaldi batetik bestera, eta horrek justifikatzen du saldoen arteko aldea ekitaldi bakoitzaren itxieran.

Egindako banku zirkularizazioa³⁴ aztertu dugu, eta ondorioztatu ahal dugu saldoak justifikatuta daudela eta sinadura baimenduak zuzenak direla, oro har.

³⁴Egindako banku zirkularizazioaren azterketatik ondoriozta dezakegu saldoak justifikatuta daudela eta baimendutako sinadurak, oro har, zuzenak direla.

5.11. ZORPETZEA ETA BESTE FINANTZA-ERAGIKETA BATZUK

Zorpetzea

NFKAren eta haren erakunde autonomoen zorpetzea 2.695, 27 milioi eurokoa zen 2023ko abenduaren 31n, kostua amortizatuta, eta honako modalitate hauei zegokien:

Zorra	2022/12/31	2023/12/31	(milakotan) 2023/2022 aldea (%)
Nafarroako zor publikoa	1.060.323	956.718	-10
Epe luzeko maileguak finantza-entitateekin	1.551.500	1.471.100	-5
Epe luzeko maileguak sektore publikoarekin	10.120	9.690	-4
Epe luzeko zorpetzea (A)	2.621.943	2.437.508	-7
Nafarroako epe laburreko zor publikoa	121.000	103.796	-14
Epe laburreko maileguak finantza-entitateekin	101.260	130.400	29
Epe laburreko zorrak sektore publikoarekin	1.955	329	-83
Zor publikoaren epe laburreko interesak	13.686	13.457	-2
Maileguen epe laburreko interesak	7.888	9.778	24
Epe laburreko zorpetzea (B)	245.789	257.760	5
Zorpetzea, guztira (A+B)	2.867.732	2.695.268	-6

Egin den berrikuspenetik honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- Zorpetze-bolumena % 6 jaitsi da, hau da, 172,46 milioi gutxiago.
- 2023an, zor publikoak zorpetze osoaren % 40 hartzen du; 2022an, berriz, % 42 hartzen zuen. Bestalde, finantza-erakundeekiko maileguak (EIB barne) ehuneko 60 dira, aurreko ekitaldiko ehuneko 58ren aldean.
- Finantza-entitateekiko epe luzeko maileguak murriztu dira, % 5 hain zuzen ere, 2022an 1.551,5 milioi izatetik 2023an 1.471,1 milioi izatera igarota (80,4 milioi gutxiago).
- 2023an itundutako zorpetzearen eta guztizko zorpetzearen motaren araberrako batez besteko interesa ondoren erakusten duguna da:

Zorpetze modalitatea	Itundutako zorpetzea, 2023	Batez besteko interes-tasa, 2023	Zorpetzea, guztira, 2023/12/31	Batez besteko interes-tasa
Nafarroako Zor Publikoa	-	-	1.060.518	1,74
Finantza-entitateen maileguak	50.000	3,07	1.251.500	1,29
Europako Inbertsio Bankuaren maileguak	-	-	350.000	1,23
Gizarte Segurantzaren mailegua	-	-	9.160	-
Beste sektore publiko baten maileguak	-	-	408	0,82
Zorpetzea, guztira	50.000	3,07	2.671.586	1,46

Zorraren batez besteko interes-tasa globala % 1,46koa da 2023an; hamarren bat igo da aurreko ekitaldiko % 1,36ko tasaren aldean.

- NFKAren zorraren guztizkotik heldu den finantza-zamaren bilakaera (aurrekontuaren 3. eta 9. kapituluak) hurrengo taulan erakusten da, diru-sarrera arrunten gainean egiten duen ehunekoa-ren ondoan.

	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Finantza-zama (milioiak)	469,45	412,05	355,57	681,37	425,11	266,35
Indizea	100	88	76	145	91	57
Diru-sarrera arrunten gainean (%)	12	10	9	14	8	5

Finantza-zama % 43 murriztu da aztertutako aldian, eta diru-sarrera arruntetan duen pisu erlatiboa % 12tik % 5era pasatu da aztertutako aldi osoan.

Hala ere, azpimarratu behar da urteko finantza-zama hainbat faktoreren mendeko aldagaia dela, amortizazio aurreratuak egiteko aukeraren mende dagoela neurri handian (horrelako amortizazio bat egin zen 2021ean eta 2022an), eta interes-tasaren aldaketek ere eragiten diotela. Ondorioz gorabehera esanguratsuak izan ditzake, eta ez diote beti erantzuten portaera lineal bati.

Hurrengo taulan erakusten dira zorraren guztizkoa datozen ekitaldietan amortizatzeko dauden aurreikuspenak:

	(milakotan)		
Ekitaldia	Amortizatu beharreko zenbatekoa, guztira	Ehunekoa	Ehuneko metatua
2024	234.529	% 9	
2025	261.340	% 10	% 19
2026	213.690	% 8	% 27
2027	232.420	% 9	% 35
2028	286.545	% 11	% 46
2029	241.700	% 9	% 55
2030	212.700	% 8	% 63
2031	189.537	% 7	% 70
2032	114.000	% 4	% 75
2033	126.987	% 5	% 80
2034	32.000	% 1	% 81
2035	159.871	% 6	% 87
2036	0	% 0	% 87
2037	65.709	% 2	% 89
2038	43.000	% 2	% 91
2039	0	% 0	% 91
2040	74.620	% 3	% 94
2041	0	% 0	% 94
2042	124.262	% 5	% 98
2043	0	% 0	% 98
2044	49.516	% 2	% 100
Guztira	2.662.426³⁵		

Ikusten denez, zorraren erdia (% 55) 2029 baino lehen amortizatu behar da.

³⁵ Zenbateko horri Gizarte Segurantzarekiko mailegu baten 9,16 milioi gehitu beharko litzaizkioke.

- Guztira 50 milioi euroko zorpetze-eragiketak fiskalizatu ditugu, eta gure berrikuspenaren emaitza ona izan da.

- Rating agentzia baten kreditu kalifikazioa (rating) Nafarroako epe luzeko zorrari esleitu zitzaion, azken eguneratzearen ondoren, "AA-, perspektiba egonkorrekin" (baimendutako gehieneko maila, Estatuaren balorazioa kontuan hartuta). Hala, aurreko ekitaldiko kalifikazioari eutsi zaio.

Emandako abalak

- Foru Komunitateak emandako abalen saldoa 43,84 milioikoa zen abenduaren 31n, eta honako sailkapen honi zegokion:

Emandako abalak	(milakotan)		
	Saldoa, 2022/12/31	Saldoa, 2023/12/31	Aldea (%) 2023/2022
Zailtasunak dituzten enpresak eta inbertsiorako laguntzak	789	648	-18
"Nafarroa Abala" programa	37	-	
Club Atlético Osasuna	9.594	5.766	-40
NICDO-Los Arcosko zirkuitua	4.038	-	
Sodena-Europako Inbertsio Bankua	27.659	13.830	-50
Nasuvinsa-Europako Inbertsio Bankua	-	23.592	
Guztira	42.118	43.836	4

Guztizko saldo bizia 1,72 milioi handitu da, hau da, % 4ko hazkundea izan du. Igoera, batez ere, Nasuvinsa – EIB abal berriaren eraketari zor zaio (23,59 milioi). Gainerako saldoak murriztu egin dira.

Nasuvinsako abalak EIBrekin egindako kreditu-kontratua bermatzen du, udal-lagapeneko lurzoruan 144 babes ofizialeko etxebizitza garatzea ziurtatzeko, Navarra Social Housing alokairu-plan foralaren bigarren fasearen esparruan.

Bestalde, 2023ko ekitaldian, NFKAk bertan behera utzi ditu "Nafarroako Abala" programan indarrean zituen abalak, NICDO sozietatearen alde emandakoaz gain. 2023an ez zen abalak gauzatzearen ondoriozko gasturik izan.

5.12. SOZIETATE PUBLIKOAK ETA FUNDAZIO PUBLIKOAK

Sozietate publikoak

Ondoren, Foru Komunitateko sozietate publikoei buruzko datuak ematen ditugu, kontu orokorren oroitazkian bildutako informazioaren arabera:

(milakotan, zenbakiekin adierazitakoak izan ezik)

Sozietate publikoa	Emaizta ekitaldia	Foru Administrazioaren dirulag. (3)	Ekarpenak CPEN	Zorpetzea e/l (2)	Ondare garbia	Batez bestekoa langileak
Bidean	0	41	-	-	53	0,08
CEIN	50	1.374	-	16	1.522	64
CNAI	33	-	-	-	192	51
CAT	-872	-	-	77	60.221	2
NIK	117	258	-	2	3.928	117
NBI	182	-	9.000	-	18.261	0,17
Intia	-142	7.568	-	25	3.129	196
Nafarbide	-	-	-	-	-	-
Nasertic	957	609	-	1.062	13.147	145
Nasuvinsa	-8.762	21.778	1.000	3.658	264.697	166
NICDO	-5.286	3.760	7.972	2	36.847	60
Nilsa	-	-	-	-	902	53
Potasas de Subiza SAU	2.435	225	-	-	8.922	-
Salinas de Navarra SA	6.398	-	-	-	23.963	79
Sodena	-4.924	878	8.000	18	84.801	25
Start Up Capital Navarra SA	-188	-	-	-	703	-
Tracasa	300	84	-	-	11.095	57
Tracasa Instrumental	509	83	-	-	23.635	572
CPEN	673	56	-	0,29	486.110	16
Guztira (1)	-8.520	36.172	25.972	4.859	1.042.127	1.604

(1) Bateratu gabeko datuak.

(2) Zorpetzean, ez dira sartzen taldeko enpresekiko eta enpresa elkartuekiko zorrak.

(3) CPENi buruzko datuen iturria: kontu bateratuak eta kudeaketari buruzko txosten bateratua

Informazio horri dagokionez, adierazten dugu CPEN enpresa-talde bat izanik, eta merkataritza-legeriarekin bat etorritz, 2023ko ekitaldiko emaitza kontsolidatua negatiboa dela (5,5 milioi). Hala ere, talde horretan sozietate publikoaren izaera ez duen sozietateren bat sartzen denez, koadroan sozietate publikoen informazio kontsolidatu gabea bakarrik sartu dugu.

Taula honetan, enpresa-taldeko langileen bilakaera eta sozietate publikoen kopurua jaso ditugu:

	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2023/2015 aldea (%)
Enplegatuen batez besteko kopurua	1.061	1.115	1.106	1.106	1.241	1.284	1.361	1.496	1.604	% 51
Sozietate kopurua	16	17 ³⁶	17	17	16 ³⁷	16	16	17	19	% 19

³⁶Tracasa sozietatea Tracasa Instrumental SL eta Tracasa sozietateetan banantzen da.

³⁷Nature Climate Systems SA sozietatea desagertu egin zen. Nolanahi ere, ez zegoen langile konputagaririk.

2015-2023 aldian, enplegatuen batez besteko kopurua % 51 igo da, eta sozietateen kopurua, berriz, % 19. Hala ere, datu horiei buruz honako hau ohartarazten dugu:

- INI sozietate publikoak kudeatzaile bat eta inbertsio-zuzendari bat baino ez ditu, eta Nafarbi-dek kudeatzaile bat eta teknikari bat. Aurreikuspenen arabera, langile-plantillarekin hornitu beharko dira, eta horrek langileen datuari eraginaren lioke etorkizuneko ekitaldietan.
- Bidean sozietate publikoan gerente bat dago, eta subrogatzeko asmoa dago, gaur egun zerbitzu-kontratu baten bidez zerbitzua ematen duten enpresetako 392 langile subrogatuko baitira, eta horrek nabarmen handituko ditu langileen kopuruak.

Honako hauek dira Nafarroako enpresen sektore publikoaren 2023ko adierazle nagusiak eta aurreko ekitaldikoekiko alderaketa:

CPEN Taldearen adierazle bateratuak	2022	2023	2023/2022 aldea (%)
Ondare garbia	667.324	694.866	4
Epe luzerako zorrak	47.844	4.861	-90
Pasibo korrontea	98.979	149.375	51
Maniobra-funtsa	291.884	268.987	-8
Eskudirua eta bestelako aktibo likidoak	111.400	65.754	-41
Negozio-zifraren zenbateko garbia	201.179	230.862	15
Negozio-zifraren ehunekoa, NFKArekin batera egindakoa	33	35	4
NFKAtik jasotako kapital-dirulaguntzak ⁽¹⁾	1.053	21.467	1.939
NFKAtik jasotako ustiapeneko dirulaguntzak	17.886	19.423	9
Langileria-gastuak	77.712	86.049	11
Ustiapeneko emaitza	-7.355	14.680	-300
Ekitaldiko emaitza bateratua	-19.493	-4.035	-79
Sozietate nagusiari esleitutako emaitza	-20.329	-5.512	-73
Hirugarrenei emandako abalak eta bermeak ⁽²⁾	42.853	48.037	12
CEPNeko Administrazio Kontseiluko ordainsariak	7	7	0
CEPNeko goi zuzendaritzako ordainsariak	96	99	3
Goi zuzendarien batez besteko kopurua ⁽²⁾	14	20	47

(1) Zerga-eraginaren aurretiko zenbatekoa.

(2) Soilik menpeko enpresei dagokienez, bateratzean integrazio orokorraren bidetik sarturik.

Datu horiek aztertuta, honako alderdi hauek azpimarra ditzakegu:

- 2023ko epe luzeko zorrak % 90 txikiagoak dira aurreko ekitaldikoak baino, eta 4,86 milioi euro egiten dute guztira. Hala ere, adierazi nahi dugu Nasuvinsa sozietate publikoan 39,75 milioi esku-aldatu direla epe laburreko zorrera³⁸. Kontabilitatea birsailkatu ezean, epe luzeko zorra % 7 murriztuko zen.
- 2023ko pasibo korrontea % 51 handitu da 2022koarekin alderatuta, eta 149,37 milioikoa izatera iritsi da.
- NFKAtik 2023an jasotako dirulaguntzak 40,89 milioi eurokoak dira, 2022koak baino % 116 handiagoak.
- Ekitaldiko emaitza kontsolidatua eta sozietate nagusiari egotzitakoa, negatiboa izaten jarraitu arren, nabarmen hobetu dira 2023an, % 79 eta % 73 murriztuz, hurrenez hurren.

³⁸EIBk ematen dituen maileguengatik ratioak betetzeko baldintzak.

CPENen enpresa taldearen osaera, honako hau zen kontabilitate-bateratzearen ondorioetarako:

CPEN Taldearen osaera	2022	2023
Menpekoak-Sozietate publikoak	17	18
Elkartuak eta talde anitzekoak	11	11
Parte hartutako beste batzuk	56	58

Mendeko sozietateei beste bat gehitu zaie, 2023an “Transporte sanitario de Navarra Bidean S.L.” sortu baita, eta parte hartutako beste batzuen kopuruak gora egin du, bi sozietate gehitu baitira, urteko kontu bateratuetako informazioaren arabera.

Transporte sanitario de Navarra Bidean S.L

Nafarroako Gobernuak, 2023ko apirilaren bosteko Erabakiaren bidez, CPENi erantzukizun mugatuko sozietate bat eratzeko, “Transporte Sanitario de Navarra Bidean S.L.”, eta Osasun Departamentuari atxikitzeko baimena eman zion.

Sozietatearen helburu soziala *“Garraio sanitarioak ematea da, modalitate guztietan: urgentea, programatua eta programatu gabeko arrunta. Garraio sanitarioko planak osorik egitea, osasun-zerbitzu publikoekin eta Nafarroako Gobernuko Larrialdi eta Babes Zibileko zerbitzu-ekin koordinatuta”*.

Testuinguruan kokatu behar da garraio sanitarioaren prestazioa, gaur egun, duela zazpi urtetik kontraturik gabe jarduten ari diren bi enpresak ematen diotela NFKAri, O-NOZekin zuten kontratu-harremanak indarra galdu duelako.³⁹

Sozietate publikoa osasun-garraio kontinuitaren prestazioaren ikuspegitik planteatzen da (prestazioei dagokienez), hau da, zerbitzua enpresa pribatuek egindakoaren antzera ematen du.

2023an aipatutako sozietate publikoa sortzeari dagokionez, espediente administratiboa aztertu dugu eta bi gorabehera nagusi nabarmentzen ditugu:

- Sozietatea sortzea aurreikusita zegoen “2019-2023ko Bizikidetz, Berdintasun, Berrikuntza eta Aurrerakoiaren legealdirako Programa Akordioan”.

- O-NOZeko zuzendari gerenteak enpresa publikoa sortzeko egindako proposamenean, AMIA txostena⁴⁰ eta Jarduketa, Inbertsio eta Finantzaketa Plana (aurrerantzean, JIFP) daude jasota. Txosten horiei dagokienez, garraio sanitarioko enpresa publiko bat sortzeko arrazoiak justifikatzen dira. Sortzeko proposamenak CPENen txostena du, eta bertan, ahultasun jakin batzuk eta alderdi positibo batzuk aipatzen badira ere, sozietatearen sorreraren aldeko ondorioa ateratzen da.

- 2023ko apirilaren 4an, kontrako txostena eman zuen Sozietate Publikoen, Abalen eta Afera Ekonomikoen Ataleko buruak. Txosten hori Ondare Zerbitzuko zuzendariak, Aurrekontuen, Ondarearen eta Politika Ekonomikoen zuzendari nagusiak eta kontu-hartzaile nagusiak bermatzen dute.

Txosten honetan datuak aztertzen dira honako premisa hauen arabera: eraginkortasunaren (fin-katutako kalitate-helburuak lortzea), ekonomiaren (baliabideen kostua minimizatzea) eta efizientziaren (lortutako emaitzen eta horiek lortzeko erabilitako baliabideen artean ahalik eta erlaziorik onena lortzea) legezko printzipioak betetzea. Horretarako, azterketa konparatibo bat egin da Bidean, S.L. sozietate publikoak garatu nahi duen jarduerari, haren kostuari eta proposatutako kalitateari buruz, zerbitzuaren egungo prestazioaren egoerarekin.

Txosten horretan, besteak beste, honako ohartarazpen hauek egiten dira:

³⁹ Iruñea, Lizarra, Tafalla, Altsasu eta Bidasoa Baztango osasun-mugapeetan (Baztan-Bidasoa anbulantziak), kontratuaren indarraldia 2016ko abenduaren 31n amaitu zen, luzatzeko aukerarik gabe. Zangozako eta Tuterako osasun-mugapeen kontratua (Servicios Sociosanitarios Generales SL) interes publikoko arrazoiengatik deuseztatu zen 2017ko irailaren 5ean.

⁴⁰ Ahuleziei, mehatxuei, indarrei eta aukerei buruzko txostena.

a) Enpresek emandako zerbitzuan akats gisa argudiatutako gaiari dagokienez, ondorioztatzen da kontratu publiko bat arautzeko esparruan konpon daitezkeela.

b) Gaur egungo kontratazioarekin alderatuta, zerbitzuaren kostu handiagoa; izan ere, sozietate publikoen hitzarmena aplikatzeak arautuko dituen lan-baldintzak (enpresa pribatuetako langileak sozietate publikoan subrogatzearen ondoriozkoak) zerbitzua ematen duten enpresei sektore pribatuko hitzarmenean ezarritakoa baino txikiagoa izanen da urteko lanaldia.

Halaber, zerbitzua ematen zuten enpresa pribatuetako langileen subrogazioarekin, langile-bolumen horrekin plantilla bat koordinatu eta kudeatu ahal izateko antolaketa-egitura bat sortu beharko dela adierazi da. Gai horrek egiturazko gainkostu iraunkorra ekarriko du; alderdi hori ez da lantzen sorkuntza-proposamenean.

c) Langile kopurua (anbulantziak eta langileak) gaur egun kanpo-kontratazioaren bidez egiten denaren berdina izanen da, eta, beraz, ez da frogatzen kudeaketa-modua aldatzeak prestazioaren kalitate handiagoa eragingo duenik.

d) Proposatutako sozietateak NFKAren kontuekin bateratuko ditu bere kontuak, lortzen dituen diru-sarrerak NFKAtik etorriko baitira.

e) JIFPen adierazten denez, jardunean hasi eta urtebeteko epean, enpresa publikoaren plan estrategiko bat eginen da jarduketa-ildoak zehazteko eta eraginkortasunari eta efizientziari dagokienez ebaluatzeko. Gai horri dagokionez, jakinarazten da osasun-garraioa duela urte askotatik egiten den zerbitzua izanik, efizientziaren eta eraginkortasunaren azterketa sozietate publikoa sortzeko proposamena egin aurretik egin behar dela.

Txosten horrek honako hau ondorioztatzen du: *“Aurkeztutako txostenek ez dituzte behar bezala justifikatzen zerbitzua emateko eredia aldatzeko arrazoiak, eta ez dute justifikatzen erabaki hori hartu beharreko interes publikoetarako egokiena denik. Ez-betetzeen egungo egoera ere kontratu publiko baten lizitazioaren bidez konpon daiteke; izan ere, ez dira deskribatu, eta ez dirudi kexa-kopuru handiegirik sortzen dutenik, arestian azaldutako zifren arabera. (...)*

Gainera, ikus daiteke osasun-garraioko zerbitzua garestiagoa izanen dela diru-kutxa publiko-entzat sozietate publikoaren bitartez, eta ez dago frogatuta kudeaketa-modua aldatzeak prestazioaren kalitate handiagoa ekarriko duenik, eta, beraz, ez dira betetzen jardura publiko orotan gidatu behar diren ekonomia- eta efizientzia-printzipio gidariak”.

Azpimarratu behar da 2019-2023 Legegintzaldiko Akordioak berak, lehen aipatu dugunak, honako hau jasotzen duela garraio sanitarioari dagokionez: *“zerbitzua ematean ahalik eta kalitate handiena bilatzea eta baliabideen erabilera eraginkorragoa izatea”.* Gai horiek ez dira egiaztatu Nafarroako Gobernuak sozietate publikoaren sorreran onartu zuenean.

Nafarbide el camino de los navarros, sozietate mugatua

Nafarroako errepideen erabilera-kanona arautzen duen uztailaren 1eko 23/2022 Foru Legea indarrean sartzearen auzia testuinguruan kokatu behar da. Lege horren bidez, errepide-erabilerearen gaineko kanona Nafarroako Ogasun Publikoaren baliabide gisa sortzen da, eta aplikazio-xedetzat Nafarroako Edukiera Handiko Bideen Sareko zenbait azpiegituraren erabilera du.

Bildutako dirua bideak kontserbatzeko eta ustiatzeko jarduerak finantzatzeko erabiliko da, bai eta azpiegitura berriak eraikitzeko eta lotutako zerbitzuak ezartzeko ere. Zerbitzu horiek, hala badagokio, Nafarroako errepide sarean sartuko dira. Horretarako, aipatutako foru legeak aurreikusten du erabilera kanonaren ordainarazpena eta kudeaketa NFAKk egiten duela, berak edo horretarako sortutako sozietate publikoak.

Sozietate publiko hori sortzeko administrazio-izapideak 2023ko martxoan hasi ziren, eta gobernu-akordio bidez onartu zen CPENi baimena ematea erantzukizun mugatuko sozietate bat eratzeko, “Nafarbide, el Camino de los navarros, SL” (NAFARBIDE) izenarekin eta Lurralde Kohesiorako Departamentuari atxikita. Ondoren, 2024ko otsailean, eratzeko eskritura notarioaren aurrean formalizatu zen, eta 2024ko apirilean Merkataritza Erregistroan inskribatu zen.

		APRO 17/2024: Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuen Nafarroako Unibertsitate Ospitalerako desfibriladore automatiko ezargariak, elektrodoak eta sare antibiotikoa eskuratzeara 8. LOTEA	133.010	129.428	% 2,69	
M4	Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Batzordea	APRO 17/2024: Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuen Nafarroako Unibertsitate Ospitalerako desfibriladore automatiko ezargariak, elektrodoak eta sare antibiotikoa eskuratzeara 9. LOTEA	12.000	12.000	% 0,00	
		Nafarroako Gobernuaren ingurune banatua zerbitzatzeko azpiegituraren hardwarea eta softwarea handitzeko kontratazioa 1. LOTEA	1.155.473	1.071.671	% 7,25	Irekia, Europako atalasetik gora
M5	Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Batzordea	Nafarroako Gobernuaren ingurune banatua zerbitzatzeko azpiegituraren hardwarea eta softwarea handitzeko kontratazioa 2. LOTEA	43.773	41.135	% 6,03	Irekia, Europako atalasetik gora
		Software bidez definitutako Nafarroako Gobernuaren DPZ ezartzea	1.384.298	1.310.515,66	% 5,33	Irekia, Europako atalasetik gora
6. N	Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentua.	Lan-estazioak, monitoreak, eramangarriak, portuetako errepikatzaileak eta horiei lotutako lizentziak (2023-2025) 1. LOTEA	1.746.364	1.289.080	% 26,18	
		Lan-estazioak, monitoreak, eramangarriak, portuetako errepikatzaileak eta horiei lotutako lizentziak (2023-2025) 2. LOTEA	24.888	20.690	% 16,87	
		Lan-estazioak, monitoreak, eramangarriak, portuetako errepikatzaileak eta horiei lotutako lizentziak (2023-2025) 3. LOTEA	39.782	Adjudikatu gabe	Irekita	
		Lan-estazioak, monitoreak, eramangarriak, portuetako errepikatzaileak eta horiei lotutako lizentziak (2023-2025) 4. LOTEA	22.120	Adjudikatu gabe	Irekita	
M7	Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentua.	Iruñeko, Tuterako, Lizarrako, Tafallako eta Agoizko Justizia Jauregiak bista-aretoetan ikus-entzunezko ekipoa hornitzea eta berritzea.	466.164	386.630	% 17,06	Irekia, Europako atalasetik gora
		Nafarroako Artxibo Garaiak armairu trinkoak jartzea eta muntatzea. Bigarren lizitazioa.	500.000	500.000	% 0,00	Irekia, Europako atalasetik gora
M8	Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua	2024rako Nafarroako Txertaketan Egutegi Ofizialeko zenbait txerto hornitzeko kontratua 1. LOTEA	1.170.000	1.170.000	% 0,00	
		2025erako Nafarroako Txertaketan Egutegi Ofizialeko zenbait txerto hornitzeko kontratua 2. LOTEA	1.691.250	1.691.250	% 0,00	Irekia, Europako atalasetik gora
		2026rako Nafarroako Txertaketan Egutegi Ofizialeko zenbait txerto hornitzeko kontratua 3. LOTEA	400.200	400.200	% 0,00	
		2027rako Nafarroako Txertaketan Egutegi Ofizialeko zenbait txerto hornitzeko kontratua 4. LOTEA	255.000	255.000	% 0,00	

Lagin kop.	Kontratazio organoa	Kontratua	Lizitazioaren zenbatekoa	Esleipenaren zenbatekoa	Baja	Prozedura
M9	Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua	Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Instituturako tomosintesia duten hiru mamografo digital hornitzaileko kontratua	750.000	749.993	% 0,00	Irekita. Europako atalaseitk gora
M10	Gizarte Zerbitzu Publikoak Kudeatzeko Nafarroako Fundazioa	Unitate mugikor gisa egokituak furgonetak hornitzea	195.690	195.132	% 0,28	Irekita
11. N	Gizarte Zerbitzu Publikoak Kudeatzeko Nafarroako Fundazioa	Catering hornidura COAs 1. LOTEA	82.673	82.673	% 0,00	
		Catering hornidura COAs 2. LOTEA	44.092	44.092,00	% 0,00	Irekita

ZERBITZU KONTRATUA

Lagin zk.	Kontratazio organoa	Kontratua	Lizitazioaren zenbatekoa	Esleipenaren zenbatekoa	Baja	Prozedura
M1	Mendekotasunerako Nafarroako Agentzia	Oncineda, Las Torchias PF, Las Hayas eta Pilar Gogorcena EZ kudeatzeko kontratuak 1. LOTEA Oncineda, Las Torchias PF, Las Hayas eta Pilar Gogorcena EZ kudeatzeko kontratuak 2. LOTEA Oncineda, Las Torchias PF, Las Hayas eta Pilar Gogorcena EZ kudeatzeko kontratuak 3. LOTEA	406.307 440.648 155.016	400.507 432.058 153.369	% 1,43 % 1,95 % 1,06	Irekita, Europako atalasetik gora
2. N	Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua	PRESYCON 1/2023. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren onuradunel azterketa eta proba diagnostikoak egiteko kontratua 1. LOTEA PRESYCON 1/2023. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren onuradunel azterketa eta proba diagnostikoak egiteko kontratua 2. LOTEA PRESYCON 1/2023. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren onuradunel azterketa eta proba diagnostikoak egiteko kontratua 3. LOTEA PRESYCON 1/2023. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren onuradunel azterketa eta proba diagnostikoak egiteko kontratua 4. LOTEA	2.543.620 910.800 256.620 149.400	2.041.328 885.500 256.620 149.400	% 19,75 % 2,78 % 0,00 % 0,00	Irekita, Europako atalasetik gora
3. N	Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua	SER 116/2023: Osasun Mentaleko Gerezitziako pazienteen elikadura-zerbitzua eta San Francisco Javier Zentroko kafetegiri-zerbitzuaren kudeaketa.	1.026.168	944.149	% 7,99	Irekita
M4	Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua	SER 82/2023: Pazienteen eta guardiako langileen elikadura-zerbitzua, Tuterako Sofia Erregina Ospitaleko kafetegiararen kudeaketa eta osasun mentaleko zentroko paziententzako janari-zerbitzua.	847.067	804.838	% 4,99	Irekita, Europako atalasetik gora
M5	Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Batzordea	Kontratazio Atararen eta horrekin lotutako beste aplikazio batzuen proiektuen kudeaketa, bilakaera eta mantentzea 2023-2026	1.138.740	1.081.801	% 5,00	Irekita, Europako atalasetik gora
6. N	Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Batzordea	Microsoft arkitekturan aplikazioen zerbitzu osagarriak eta garapenerako laguntza teknikoak, SIMPA (Hornidura eta Sarbide Sistemak) suitearen aplikazio multzorako, 2023-2026 urteetan	678.051	650.929	% 4,00	Irekita, Europako atalasetik gora
M7	Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Batzordea	Proiektuen kudeaketa, orkestrazio-zerbitzuaren migrazio-proiektuen euskarria	494.971	492.793	% 0,44	Irekita
M9	Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentua.	Ondare-erantzukizuneko eta kalteetako aseguruaren kontratua Eusko Legebiltzarrean eta Kontuen Ganberan. 1. LOTEA Ondare-erantzukizuneko eta kalteetako aseguruaren kontratua Eusko Legebiltzarrean eta Kontuen Ganberan. 2. LOTEA	1.000.000 1.140.000	848.978 1.107.738	% 15,10 % 2,83	Irekita, Europako atalasearen gainetik
14. N	Hezkuntza Departamentua	Burilatan haur-eskola berri baten proiektua idazteko eta obrak zuzentzeko kontratazioa	165.785	140.000	% 15,55	Irekita

Lagin zk.	Kontratazio organoa	Kontratua	Lizitazioaren zenbatekoa	Esleipenaren zenbatekoa	Baja	Prozedura
15. N	Centro Navarro De Autoaprendizaje De Idiomas, S.A. (Cnai)	Susperitze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren (Next Generation EU) funtsen kontura finantzatuako egokitzapen fisiko eta animazio jardueren sektorerako prestakuntza-ekintzen zerbitzua kontratatzea 1. LOTEA	238.800	197.400	% 17,34	
		Susperitze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren (Next Generation EU) funtsen kontura finantzatuako egokitzapen fisiko eta animazio jardueren sektorerako prestakuntza-ekintzen zerbitzua kontratatzea 2. LOTEA	238.800	197.400	% 17,34	Irekia, Europako atalasetik gora
		Susperitze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren (Next Generation EU) funtsen kontura finantzatuako egokitzapen fisiko eta animazio jardueren sektorerako prestakuntza-ekintzen zerbitzua kontratatzea 3. LOTEA	304.800	Adjudikatu gabe	Adjudikatu gabe	
		Susperitze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren (Next Generation EU) funtsen kontura finantzatuako egokitzapen fisiko eta animazio jardueren sektorerako prestakuntza-ekintzen zerbitzua kontratatzea 4. LOTEA	140.400	124.200	% 11,54	
M16	Centro Navarro De Autoaprendizaje De Idiomas, S.A. (Cnai)	Susperitze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren (Next Generation EU) funtsen kontura finantzatuako enplegurako irakaskuntza-sektorerako prestakuntza-ekintzen zerbitzua kontratatzea 1. LOTEA	183.600	152.400	% 16,99	
		Susperitze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren (Next Generation EU) funtsen kontura finantzatuako enplegurako irakaskuntza-sektorerako prestakuntza-ekintzen zerbitzua kontratatzea 2. LOTEA	183.600	176.256	% 4,00	Irekia, Europako atalasetik gora
		Susperitze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren (Next Generation EU) funtsen kontura finantzatuako enplegurako irakaskuntza-sektorerako prestakuntza-ekintzen zerbitzua kontratatzea 3. LOTEA	183.600	152.400	% 16,99	
		Susperitze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren (Next Generation EU) funtsen kontura finantzatuako enplegurako irakaskuntza-sektorerako prestakuntza-ekintzen zerbitzua kontratatzea 4. LOTEA	183.600	Adjudikatu gabe	Adjudikatu gabe	
17. N	Navarra De Infraestructuras De Cultura, Deporte Y Ocio, S.L.	Eski-eskolak eta eskiak gordetzeako kontratatzea. 1. LOTE	266.400	266.400	% 0,00	Irekia, Europako atalasetik gora
		Eski-eskolak eta eskiak gordetzeako kontratatzea. 2. LOTE	18.739	18.739	% 0,00	
M18	Navarra De Infraestructuras De Cultura, Deporte Y Ocio, S.L.	Navarra Arenako harmailak eta pista nagusia soinu-ekipamendu teknikoaz hornitzea.	213.965	192.568	% 10,00	Irekia

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Nafarroako Gobernua

Ekonomia eta Ogasun Departamentua

“2023ko Nafarroako kontu orokorre” buruzko behin-behineko fiskalizazio-txostena onartzen duen Kontuen Ganberako lehendakariaren Ebazpenari erantzunez, non fiskalizatutako erakundeari helarazten baitzitzaion alegazioak egin zitzaizkion, honako hau jakinarazten dizut, zuzendaritza nagusi esku-dunek adierazi bezala:

Oro har:

Txostenean, kontratuaren xedearen lotura, arrazoiketaren existentzia edo nahikotasuna, klausularen baten baliozkotasuna eta abar zalantzan jartzen dituzten baieztapen batzuk sartu dira. Adierazi behar da kontratuaren xedearikiko lotura kontratuaren baliozkotasun-baldintza bat dela, eta, gainera, kontzeptu juridiko zehaztugabea dela¹, zeinaren edukia eta mugak, kontzeptu horren kasu zehaztean, oso dinamikoak izan baitira azken urteotan. Gauza bera gertatzen da espedientearen arrazoiekin eta beste eskakizun batzuekin. Arrazoiketaren nahikotasuna, kontratuaren xedearikiko lotura eta, azken batean, espedienteen baliozkotasun-baldintza guztiak *ad casum* interpretatzea kontratazio-organoari dagokio lehen auzialdian, bere zerbitzu juridikoen eta esku-hartzearen ezinbesteko parte-hartzearekin, espediente onartzean, eta berrikuspen-istantzian, horretarako eskumena duten organoei dagokie (Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegia bereziki, baina ez modu eskusiboan). Beraz, uste dugu beharrezkoa dela baieztapen horiek justifikatzea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 39.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, indarrean dauden kontratuei buruzkoak baitira, trafiko juridikoan ondorio guztiekin, eta organo eskudunek errekurritzen eta deuseztatzen ez dituzten bitartean (KPFLren 127.2 artikulua).

¹ Arauek erabiltzen duten kontzeptua. Kontzeptu horretatik ezin da ondorioztatu zehatz-mehatz zer lortu nahi izan duten, eta zaila da konponbide zehatza lortzea. Zailtasun horretatik sortu zen “hautemate-marjinaren” doktrina, nolabaiteko askatasuna uzten duena, edo, gutxienez, tolerantzia juridikoa, arau-kontzeptu bat zehaztean hainbat aukera jarraitu ahal izateko. (Espainiera juridikoaren hiztegi panhispanikoa).

1. Espedientearen barruko irizpide objektiboen haztapenari dagokionez, gogoratu behar da KPFLren 64.4. artikulua arabera "Adjudikatzeko irizpide ugari erabiltzen direnean, puntuazioaren erdia gutxienez formula objektiboak aplikatuz kalkulatu beharko da; pleguetan ezarriko dira formula horiek, bakoitzaren haztapen erlatiboa ere adierazita. Prestazioek izaera artistikoa edo intelektuala dutenean, puntuazioaren % 20 gutxienez formula objektiboen bitartez lortuko da. Haztapen hori adierazteko balio zerrenda bat finkatzen ahalko da, gehieneko zabalera egokiarekin." Beraz, puntuazioaren % 50 gutxienez irizpide objektiboekin emateko eskakizuna ez da aplikagarria kontratu guztietan, eta, zehazki, ez da aplikagarria kontratu intelektualetan, non proiektua idazteko zerbitzu-kontratuak sartzen diren, besteak beste, % 50 betetzen ez dutenen artean egon baitaitezke.
2. Txostenak eragozpenak agertzen ditu prezioa baloratzeko formulak erabiltzeari dagokionez, formula horiek ez badira proportzionalak, edo eskaintzen artean kurbak edo ahuldurak sortzen badituzte. Txostenaren jarrera hori ez da arrazoitu, eta ez dugu egokitzat jotzen; izan ere, txostenaren paragrafo berak onartzen du Kontratuei buruzko Foru Legeak (eta, gainera, KPFLk eragiten dituen kontratazio-zuzentarauek eta Espainiako zein Europako jurisprudentziak) ez duela formula jakin batzuk erabiltzea inposatzen. Jurisprudentziak ezarritako betebeharrak bakarrik da eskaintza merkeago batek merkeago batek baino puntuazio handiagoa lortzea, eta hori lortzeko formula linealak eta proportzionalak erabil daitezke, edo kurbak marrazten dituzten formulak, asetasun-atalaseak sortuz, Auzitegi Gorenaren 2024ko martxoaren 5eko Epaiak berariaz onartu duenez: ROJ: STS 1786/2024 ECLI:ES:TS:2024:1786. Beraz, aipatutako murrizketa hori betetzen duten formula guztiak a priori baliozkoak dira.
3. Txostenak adierazi du lizitatzailerik bakarrik duten espedienteetan ere puntuazioak ematea komeni dela. Hala ere, gure ustez, eskaintzak puntuazioaren bidez baloratzearen helburu bakarra haien artean alderatzea denez, pleguetan ezarritakoaren arabera, onena zein den erabakitzeko, ez dirudi puntuazioak ematea balorazioaren helburua lortzeko baldintza denik, eskaintza bakarra, definizioz, onena ere izanen baita. Beharrezkoak ez diren izapideak egitea (esleitutako helburua lortzeko baliorik ematen ez duelako) Administrazioaren jardueraren eraginkortasunaren aurkakoa denez, eskaintza bakarra dagoen kasuetan nahikoa eta egokia da, eta, beraz, efizientzia- eta sinplifikazio-jardunbide egokia, preskripzio teknikoak betetzeari buruzko iritzi positiboa, xehetasun gehiagorik gabe.

4. Testutik ondoriozta daitekeenez, 2. gutun-azaleko dokumentazioaren erabilera desiragarria ez dator bat administrazioak bere ohiko zereginetan darabilen beste edozein dokumentazioarekin. Hala ere, egia da ezein lege-xedapenetan ez dela ezartzen dokumentu horiek modu desberdinean tratatzeko betebeharra edo komenigarritasuna, eta hori horrela dela dirudi, arauak ez duelako uste dokumentu horiek erabiltzearekin lotutako arriskuak ohikoak baino handiagoak direnik (funtzionario publiko guztien jarduera-printzipioen arabera salbatu behar baitira). Aitzitik, kontratazio publikoaren printzipioak betetzeko arriskua dagoela ulertzen den kasuetan, KPFLk berme hori ahalbidetzen duten mekanismoak inplementatu eta nahitaezko bihurtu ditu, adibidez, lizitazio elektronikorako tresna bat egotea, aplikatzekoak diren estandar gorenen arabera ziurtatu behar duena eskaintzak sekretupean daudela kontratazio-mahaiak ireki arte. Lizitazioaren unean, eskaintzak oraindik formulatu daitezkeenean, edozein pertsonak (kontratazio-mahaiko pertsonak barne) enpresa guztien edo batzuen eskaintzen edukia ezagutzeak eskaintza horiek gaizki erabiltzeko arriskua dakar, eta, beraz, lizitazaille batzuen interesei kalte egiteko arriskua. Hortik dator KPFLk ezarritako zuhurtasun berezia.
5. 2023ko urriaren 4ko (txosteneko 120. orrialdea) altari buruzko aipamenean akats bat antze-man da, 2024. urtea aipatzen duenean.
6. Atzerapen-egunak kalkulatzeko moduari dagokionez (39. orrialdean adierazia), ez dakigu nola egin diren.

Iruñean, 2024ko azaroaren 20an

Idazkaritza Tekniko Nagusia
Araubide Administratiboaren Atala
Javier Miqueleiz Garayoa

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua

Aurreko ekitaldietako txostenetan proposatutako gomendioari dagokionez:

... J) Larrialdia dela-eta izapidetu diren kontratazio-espeditente guztiak formalizatzea eta Kontratazioaren Atarian argitaratzea.

O-NOZek hori betetzeko konpromiso irmoa adierazten du, eta jakinarazten dugu uste dugula espeditenteen prestakuntza erritmo onean doala aurrera, eta datozen hilabeteetan amaitzea espero dugula.

Iruñean, 2024ko azaroaren 20an

O-NOZeko Kudeaketa Ekonomikoaren eta Zerbitzu Orokorren zuzendaria

Patxi Esparza Sánchez

CPEN.**NAFARROAKO KONTUEN GANBERAK EGINDAKO 2023ko KONTU OROKORREN FISKALIZAZIOAREN BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI EGINDAKO ALEGAZIOAK**

Francisco Fernández Nistal jaunak, CORPORACIÓN PÚBLICA EMPRESARIAL DE NAVARRA S.L.U. (aurrerantzean CPEN) merkataritza-sozietatearen zuzendari nagusia den aldetik (IFZ: B/71018360; helbidea: Sarasate pasealekua 38, 2. esk., Iruña), errespetu osoz

HONAKO HAU AZALTZEN DU

1. 2024ko azaroaren 20an bidali zuen Nafarroako Gobernuko Kontu-hartzaitzako Zuzendaritza Nagusiak Nafarroako Kontuen Ganberako presidentearen ebazpena, "2023ko Nafarroako kontu orokorren" gaineko behin-behineko fiskalizazio txostena onartzen duena.

2.- Txostena helaraztean egokitzen diren alegazioak aurkezteko aukera ematen da, eta epea 2024ko azaroaren 20an bertan amaitzen da; zehazki, honako hau xedatzen da:

Behin-behineko txosten hori fiskalizatutako erakundeari helaraztea, azter dezan eta, hala badagokio, alegazioak egin ditzan, azaroaren 20ra arte. Era berean, ohartaraziko zaio txostenean jasotako ondorioei eta iritziei argi eta zuzenean buruzkoak ez direnak ez direla aintzat hartuko, ez eta txostenean sartuko ere.

3.- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren sozietate publikoen matrizea den CPENen nahia da honako hauek formulatzea, horretarako ezarritako epearen barruan:

ALEGAZIOAK**LEHENENGOA.- 29. orrialdea (2. gehigarria. Nafarroako Foru Sektore Publikoaren mugaketa, 2.1 Foru Sektore Publikoa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen arabera) eta 99 (5.12 atala Sozietate Publikoak eta Fundazio Publikoak)**

Sozietate publikoei dagokienez, datu ez-finkatu gisa ekitaldiko emaitza islatzen da, 8.520 euroko zifra negatiboa, hain zuzen ere.

Kopuru hori, gure ustez, Nafarroako Kontuen Ganberak kalkulatu du, sozietate publiko bakoitzaren banakako kontuen emaitzak batuz.

Merkataritza Kodearen 42.1 artikulua honako hau ezartzen du:

Sozietateen talde bateko sozietate nagusi orok urteko kontuak eta kudeaketa-txosten bate-ratuak egin beharko ditu atal honetan aurreikusitako moduan.

Sozietateen talde bat egonen da sozietate batek beste baten edo gehiagoren kontrola duenean edo izan dezakeenean, zuzenean nahiz zeharka. Bereziki, kontrola dagoela joko da nagusitzat kalifikatuko den sozietate bat beste sozietate batekin harremanetan dagoenean, eta mendeko gisa kalifikatuko da, honako egoera hauetakoren batean:

a) *Boto-eskubideen gehiengoa izatea.*

b) *Administrazio organoko kide gehienak izendatzeko edo kargutik kentzeko ahalmena izatea.*

c) *Hirugarrenekin egindako akordioen arabera, boto-eskubideen gehiengoa xedatu ahal izatea.*

d) *Kontu bateratuak formulatu behar diren unean eta aurreko bi ekitaldietan beren kargua beteko duten administrazio organoko kideen gehiengoa izendatu badu bere botoekin. Bereiziki, egoera hori dagoela ulertuko da sozietate menderatuaren administrazio-organoko kide gehienak sozietate menderatzaileko edo sozietate menderatuaren mendeko beste sozietate bateko administrazio-organoko edo goi-zuzendaritzako kideak direnean. Kasu horrek ez du bateratasuna ekarriko, baldin eta administratzaileak izendatu diren sozietatea beste sozietate bati lotuta badago paragrafo honen lehen bi letretan aurreikusitako kasuetako batean. Paragrafo honen ondorioetarako, erakunde nagusiaren boto-eskubideez gain, mendeko beste sozietate batzuen bidez dituenak edo bere izenean baina erakunde nagusiaren edo mendeko beste batzuen kontura jarduten duten pertsonen bitartez dituenak edo beste edozein pertsonarekin hitzartuta dituenak ere gehituko dira.*

Corporación Pública Empresarial de Navarra, S.L. erakundeak eta haren mendeko sozietateek sozietateen talde bat osatzen dute merkataritza-kodearen artikulua horren babesean.

Merkataritza-kodearen 2, 3, 4 eta 5. atalek honako hau adierazten dute:

2. Urteko kontuak eta kudeaketa-txosten bateratuak egiteko betebeharrak ez ditu salbuesten taldea osatzen duten sozietateak beren urteko kontuak eta dagokien kudeaketa-txostena formulatzetik, beren araubide espezifikoaren arabera.

3. *Urteko kontu bateratuak egiteko betebeharra duen sozietateak taldea osatzen duten sozietateak sartu beharko ditu kontu horietan, artikulua honen 1. paragrafoan ezarritako baldintzetan, bai eta horiek menderatzen dituzten enpresak ere, edozein dela ere haien forma juridikoa eta sozietatearen egoitza edozein dela ere.*

4. *Urteko kontu bateratuak egiteko betebeharra duen sozietatearen batzar orokorrak urteko kontuak eta taldearen kudeaketa-txostena kontrolatu beharko dituzten kontu-auditoreak izendatu beharko ditu. Auditoreek egiaztatuko dute kudeaketa-txostena bat datorrela urteko kontu bateratuekin.*

5. *Kontu bateratuak eta taldearen kudeaketa-txostena sozietatearen batzar orokorrak onartu beharko ditu, eta sozietatearen urteko kontuekin batera bateratu beharko ditu. Taldeko sozietateetako bazkideek urteko kontu bateratuak formulatzeko betebeharra duen sozietatearengandik lortu ahal izanen dituzte Batzarrak onartu beharreko agiriak, bai eta taldearen kudeaketa-txostena eta auditoreen txostena ere. Kontu bateratuak, taldearen kudeaketa-txostena eta kontu-auditoreen txostena Merkataritza Erregistroan gordailutzea eta argitaratzea sozietate anonimoen urteko kontuetarako ezarritakoaren arabera eginen dira.*

Enpresa-talde bat dagoenez, errorea da enpresa-taldea osatzen duten sozietate publiko bakoitzaren banakako kontuetan agertzen diren ekitaldiko emaitzen batukari bat aurkeztea; izan ere, merkataritza-eremutik, egiaztatuta geratu denez, araudiak eskatzen du kontu bateratu batzuk onartzea, non taldea osatzen duten sozietate guztien emaitza kontsolidatua agertzen den, eta dokumentu horretan agertzen den datua islatu behar da, eta ez txostenaren zirriborroan egindako batukaria.

Nafarroako Merkataritza Erregistroan bateratu, ikuskatu eta inskribatutako kontuen arabera (Nafarroako Gobernuaren webgunean eta CPENen webgunean daude eskuragarri), ekitaldiko emaitza kontsolidatua 5.501.51 euro negatiboa da.

BIGARRENA.- 100. orrialdea (5.12. atala, Sozietate Publikoak eta Fundazio Publikoak)

Behin-behineko txostenean honako hau xedatzen da:

- *Bidean sozietate publikoan gerente bat dago, eta subrogatzeko asmoa dago, gaur egun zerbitzu-kontratu baten bidez zerbitzua ematen duten enpresetako 392 langile subrogatuko baitira, eta horrek nabarmen handituko ditu langileen kopuruak.*

Behin-behineko txostena emateko egunean, Transporte Sanitario de Navarra Bidean, S.L. sozietate publikoak zuzendari kudeatzaile bat (goi-zuzendaritzako kontratuarekin) eta bost langile (lan-kontratuarekin) ditu.

HIRUGARRENA.- 101. orrialdea (5.12. atala, Sozietate Publikoak eta Fundazio Publikoak)

Zirriborroan honako hau xedatzen da:

- *NFKAtik 2023an jasotako dirulaguntzak 40,89 milioi eurokoak dira, 2022koak baino % 116 handiagoak.*

Gure iritziz, terminologia zuzena "transferentzia arruntak" edo "diruzko ekarpenak" litzateke, ez dirulaguntzak, Dirulaguntzei buruzko 11/2005 Foru Legearen 2.2 artikulua aurreikusten duena kontuan hartuta.

2. Foru lege honen aplikazio esparrutik kanpo gelditzen dira sektore publikoa osatzen duten entitateei egindako diruzko ekarpenak, haien aurrekontuak Nafarroako Aurrekontu Orokorretan sartzen badira, hala entitate horien jarduera oro har finantzatzeko erabiltzen direnak, nola esleiturik dituzten eginkizunen esparruan jarduketa zehatzak egiteko erabiltzen direnak, betiere deialdi publiko baten ondoriozkoak ez badira

LAUGARRENA.- 108. orrialdea (5.12. atala, Sozietate Publikoak eta Fundazio Publikoak)

Zirriborroan honako hau xedatzen da:

“Jarraibide horretan, sozietate horien jarduera-eremuak definitzen dira, eta, gure ustez, berretsi baino ez digute egiten ez dagoela funtsezko desberdintasunik sozietate horien artean, hau da, INIrako aurreikusita dagoen gutzia SODENAREN jarduera-eremuan sartzen dira.

Jarraibide horrek jasotzen dituen finantza-laguntzei dagokienez, gutxieneko eta gehieneko zenbatekoak ezartzen dira, banaketa honen arabera:

- *"INI: Finantza-laguntzaren gutxieneko zenbatekoa: bost milioi eragiketa bakoitzeko. Krisian edo finantza-arriskuen estalduran dauden enpresetan esku ez hartzea.*

- *SODENA: Finantza-laguntzaren gehieneko zenbatekoa: Eragiketa bakoitzeko bost milioi baino gutxiago, krisian dauden enpresen eta/edo finantza-arriskuen estalduren/zirkulatzailaren beharren kasuan izan ezik. Muga horrek ez dio eragiten abalak eta fidantzak emateari.”*

Beraz, Ganbera honen iritziz, argudio guztien artean, eskumenak INIren eta SODENAREN artean banatzeko faktore erabakigarria finantzaketaren gutxieneko eta/edo gehieneko zenbatekoa izanen litzateke. Horri dagokionez, honako hau adierazi behar dugu:

- *Finantza-mugei dagokienez, azken hamar urteetan, SODENAK 13 eragiketa egin ditu, bost milioitik gorakoak (batez beste 1,3 milioi urtean).*

Jarduera-sektoreei dagokienez, nabarmendu behar da SODENAK ez duela mugarik laguntza-sektoreei dagokienez. Bestela esanda, INIrako erabakitako sektoreak SODENAK gara

ditzake.

Nafarroako Kontuen Ganberak, 2022ko Nafarroako kontu orokorren fiskalizazio txostenean xedatu zuen:

Azterketa egin ondoren, hona gure konklusioa:

– INIren eta Sodenaren helburuak elkarren antzekoak dira, sozietate publiko horien jardueraren helburua Nafarroako Foru Komunitateko enpresa-garapena baita.

– INIren xede soziala jada Sodenaren baitan zegoen.

– Ez dago jasorik CPENen txostenean azaldutako jarduketak burutu direnik, ez eta Nafarroako Gobernuak Sodenaren xede soziala estatutuetan aldatzeko behar den baimena eman duenik ere. Txosten hau eman den egunean, beraz, bi sozietate publikoetako baten helburua beste sozietatean lehendik ezarrita dagoen berbera da.

Horri dagokionez, azpimarratzen dugu hitzez hitz honako hau ezartzen dela Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legearen zioen azalpenean: “ .. xedea izanik, batetik, Nafarroako Foru Komunitateko enpresa-ondare publikoaren zati funtsezko baten (batez ere sozietate publikoak) eraginkortasuna eta eragimena arrazionalizatu, koordinatu eta ahal den onena bilakatzeko testuinguru bat eta tresna bateratu eta berariazkoa sortzea.... ”.

Hori guztia dela-eta, honako hau gomendatzen dugu: Neurri egokiak hartzea IN eta Sodena sozietateek jarduera berberak izatea edo haien arteko bikoiztasuna saihesteko.

Gomendio horri jarraikiz, eta 8/2009 Foru Legean eta Kapital Sozietateei buruzko Legearen 161. artikuluan jasotako CPENen funtzioen babesean, 2024ko urtarrilaren 26an, kontseilari delegatuak jarraibide bat eman zuen bi sozietate publikok gauzatu beharreko jardueren irismenari buruz, bakoitzaren xede sozialetan agertzen diren finantza-laguntzak emateari buruz.

Ez da egia, Nafarroako Kontuen Ganberak egindako txostenaren zirriborroan adierazten den bezala, *“INI eta SODENAn arteko eskumen-banaketan erabakigarria den faktorea finantzaketaren gutxieneko eta/edo gehieneko zenbatekoa izanen litzatekeela”*, eta instrukzioan agertzen diren beste mugaketa batzuk ere zehaztu ditu:

1. Finantza-laguntzaren hartzaileei dagokienez:

- INIn pertsona juridikoei baino ezin zaie finantza-laguntza eman, eta inola ere ezin dira krisi ekonomikoko egoeran egon, ezta laguntzaren helburua finantza-arriskuen estaldura-beharrak arintzea izan ere.
- SODENAn, finantza-laguntza eman dakieke pertsona fisikoei zein juridikoei, inolako mugarik gabe.

2. Finantza-laguntzaren gehieneko zenbatekoari dagokionez:

- INIn, gutxienez 5.000.000 euroko finantza-laguntza baino ezin da eman.
- SODENAn gehienez 5.000.000 euroko finantza-laguntza baino ezin da eman; ez dago muga hori krisian dauden enpresentzako finantza-laguntzen kasuan eta/edo finantza-arriskuen estalduretarako eta zirkulatzailaren beharrerako, ez eta abalax eta fidantzak emateko ere.

3. Kapital sozialean duen partaidetzaren ehunekoari dagokionez

- INIn, kapital sozialean gehieneko partaidetza % 45ekoa da, eta atalase hori gainditu

nahi bada, CPENen administrazio-kontseiluaren baimena beharko da.

- SODENAn, urtarrilaren 2ko 1/1984 Foru Legearen babesean, kapital sozialean gehieneko partaidetza % 45ekoa da, eta atalase hori gainditu nahi bada, Nafarroako Gobernuaren baimena beharko da.

4. Finantza-laguntzaren epeari dagokionez:

- INIn, gehieneko epea urte batekoa da, eta atalase hori gainditu nahi bada, CPENen administrazio-kontseiluaren baimena beharko da.
- SODENAn, urtarrilaren 2ko 1/1984 Foru Legearen babesean, gehieneko epea 12 urtekoa da, eta atalase hori gainditu nahi bada, Nafarroako Gobernuaren baimena beharko da.

5. Laguntza-sektoreei dagokienez:

- INIn laguntza-sektoreak mugatzen dira, Espezializazio Adimenduneko Estrategian (S4) oinarrituta, Europako Batzordeak definitutako ekosistema industrialekin batera.
- SODENAn ez dago inolako mugarik laguntza-sektoreei dagokienez.

Beraz, instrukzioak ez ditu mugatzen finantza-laguntzaren gehieneko zenbatekoak bakarrik, egiaz-tatu den bezala.

Instrukzioaren helburua da bi sozietate publikoen estatutuetan jasotzen diren gizarte-xedeen idazketaren babesean horietako bakoitzaren jarduera-eremua mugatzea, egon daitezkeen bikoiztasunak saihesteko eta Nafarroako enpresa-ehunari laguntzeko tresna argiak ezartzeko. Hori guztia, Nafarroako Kontuen Ganberak 2022ko ekitaldiko Nafarroako kontu orokorrak fiskalizatzeko txostenean egindako gomendioa aintzat hartuta.

BOSGARRENA.- 109. orrialdea (5.12. atala, Sozietate Publikoak eta Fundazio Publikoak)

Zirriborroan honako hau xedatzen da:

“INik 2024ko martxoaren 27an argitaratu zuen “Diagnostikorako, ekintza-planerako eta ebaluazioaren jarraipenerako laguntza teknikoaren kontratazioa, Nafarroako hazkunde ekonomikoa indartzeko” zerbitzu-kontratuaren lizitazioa, 720.000 euroko balio zenbatetsiarekin. INik ez bezala, SODENaren estatutuek berariaz jasotzen dute beren helburu sozialean horrelako azterlan estrategikoak egitea, zehazki: “Nafarroako Foru Komunitatearentzat interesgarriak diren azterlan estrategikoak, ekonomikoak, teknologikoak, ikerketa edo berrikuntza-koak eta merkatukoak sustatzea eta egitea””

INI sozietatearen estatutueta 5. artikulua, sozietatearen xedeari buruzkoak, honako hau xedatzen du:

“5.- artikulua. Xedea.

Sozietatearen xedea da:

1. Pertsona juridikoei finantza-laguntza ematea, beren kontura, maileguak emanez (partaidetzazkoak edo ez), kredituak, abalak eta fidantzak emanez, bai eta sozietateak parte hartzen duen erakundeek jaulkitako errenta finkoko tituluak harpidetuz ere.

2. Norberaren kontura parte hartzea, sozietateen kapitala ordezkatzan duten tituluak harpidetuz, bereganatuz edo eskuratuz, bai eta titulu horiek edukitzea eta gozatzea ere, eta ondoren, edozein motatako negozio juridikoz, hirugarrenei eskualdatzea.

3. *Inbertsio-proiektuak sustatzea, edozein motatako funtsak sustatuz eta horietan parte hartuz, direla higigarriak, bermekoak edo arrisku-kapitalekoak, sustapen-sozietateak, arrisku-kapitalekoak eta arrisku-kapitala kudeatzen duten erakundeak; eta enpresei baliabide ekonomikoak ematen dizkieten arrisku-kapitaleko funts edo sozietate publiko edo pribatuekin lankidetzan aritzea.*

Bere jarduera nagusiaren EJSN 64 da (finantza-zerbitzuak, aseguruak eta pentsio-funtsak izan ezik).

Helburu sozialetik kanpo geratzen dira legeria espezifikoaren bidez pertsona edo erakunde jakin batzuei eskusiboki esleitzen zaizkien jarduerak, edo sozietateak betetzen ez dituen baldintzak bete behar dituztenak.

Legeak, eragiketa batzuk hasteko, edozein kualifikazio profesional, lizentzia edo erregistro berezietan inskribatzea eskatzen badu, eragiketa horiek eskatutako kualifikazio profesionala duen pertsona batek bakarrik egin ahal izanen ditu, eta baldintza horiek betetzen direnetik bakarrik.

Sozietatearen xedea osatzen duten jardueretako batzuk profesionalen berezko jarduerak badira, titulu ofiziala behar dutelako eta elkargoko kide egin behar direlako, ulertuko da, jarduera horiei dagokienez, sozietateak bitartekotza- edo bitartekaritza-sozietate gisa jardunen duela, eta sozietateari ez zaiola aplikatuko Lanbide Sozietateei buruzko martxoaren 15eko 212007 Legearen araubidea.

Sozietatearen xedea osatzen duten jarduerak osorik edo zati batean zeharka garatu ahal izanen ditu sozietateak, xede bera edo antzekoa duten sozietateetako partaidetza sozialen edo akzioen titulartasunaren bidez edo hirugarrenekin lankidetzan.”

INik zerbitzuak emateko kontratu baten lizitazioa argitaratu du, Nafarroako egoeraren diagnostikoa eta Nafarroa 2030 ekintza-plana biltzen dituen dokumentu bat egiteko. Hori guztia, Sozietatearen Administrazio Kontseiluak Orientazio Estrategikoak egin eta onar ditzan, Inbertsio Batzordeak dagozkion erabakiak har ditzan, bere eginkizunak betez.

Kapital Sozietateei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren 23. artikulua ezartzen duenez, estatutuetan sozietatearen xedea jaso behar da, eta hura osatzen duten jarduerak zehaztu. Hau da, sozietatearen jardueraren edo jardueren adierazpena da.

Ildo horretan, izendatutako administratzaileen ordezkartza-eremua sozietatearen estatutuetan zehaztutako xede sozialean jasotako eremu guztietara hedatuko da. Eta halaxe dago jasota Kapital Sozietateei buruzko Legearen 234. artikuluan

“234. artikulua. Ordezkaritza-ahalordearen eremua.

1. Estatutuetan zehaztutako xede sozialean bildutako egintza guztietara hedatuko da ordezkartza.

Administratzaileen ordezkartza-ahalordeen edozein muga ez da eraginkorra izanen hirugarrenen aurrean, nahiz eta Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon.

2. Sozietatea behartuta geratuko da fede onez eta erru larrik gabe jardun duten hirugarrenen aurrean, nahiz eta Merkataritza Erregistroan inskribatutako estatutuetatik ondorioztatu egintza ez dagoela sozietatearen xedean”

INiren asmoa lizitazioarekin Nafarroaren egoeraren diagnostikoa eta Nafarroa 2030 ekintza-plana izatea da, hori guztia, lehen aipatu den bezala, bere Administrazio Kontseiluak Orientazio Estrategikoak egin eta onar ditzan, Inbertsio Batzordeak dagozkion erabakiak har ditzan bere eginkizunak

betez.

Sozietatearen estatutuen 29.6 artikulua Administrazio Kontseilua behartzen du urtero Orientazio Estrategikoak egin eta onartzera. Orientabide horiek osatuko dute Inbertsio Komiteak inbertsio-erabakiak hartzeko esparru orokorra.

Hitzez hitz transkribatuta dago estatutu sozialen 29.6 artikulua.

“6. Inbertsio Batzordeak finantza-baliabideak inbertitzeko erabakiak independenteki eta profesionaltasunez hartuko ditu, Administrazio Kontseiluak urtero finkatzen dituen Orientazio Estrategikoetan ezarritako esparru orokorra zorrotz betez. Horretarako, adostutako eragiketen berri emanen dio aldian-aldian Kontseiluari.”

Xede sozialean agertzen diren jarduerak gauzatu ahal izateko oinarri gisa balio duten era guztietako azterlan, analisi edo dokumentuak egitea beharrezkoa eta osagarria da edozein konpainiak jardura sozialak gauzatzeko. Izan ere, are gehiago, kasu honetan, azterlan, analisi edo dokumentu horiek egitea Administrazio Kontseiluari Estatutu Sozialek eskatutako Orientazio Estrategikoen dokumentua egiteko aukera ematen dion jardura dira.

Eta hala ulertu dute Justizia Auzitegiek eta Erregistro eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiak (gaur egun Segurtasun Juridikoaren eta Fede Publikoaren Zuzendaritza Nagusia esaten zaio); izan ere, administratzaileen ordezkartza-eremutik kanpo (Kapital Sozietateen Legearen 234. artikulua idazketaren arabera) soilik jotzen ditu xede sozialarekin zuzenean kontraesanean dauden egintzak, eta ez osagarriak, ez neutroak.

Zehazki, Auzitegi Gorenaren 2010eko uztailaren 29ko epaia aipatu behar da, honako hau xedatzen baitu:

“itxurarekiko konfiantza eta, horrekin batera, trafikoaren segurtasuna babesteko beharraren aurrean, batez ere nortasuna merkaturatu jarduten duen enpresa bat antolatzeko ibilgailu gisa erabiltzen denean, gure sistema merkataritza-sozietateen gaitasun juridiko osotik eta jarduteko gaitasun osotik abiatzen da, eta, ondorioz, kudeatzaileek izan ditzaketen balizko erantzukizunei kalterik egin gabe, zilegi da jardura «estatutarioak» (helburu sozialaren barruan), «neutroak» (estatutuetan finkatutako xedea berehala garatzea ez dakartenak) eta «estatutuz kanpokoak» egitea, baita gizarte-xedearekin zerikusirik ez dutenak eta bitxiak direnean ere. Ahalmen hori ez da inola ere murrizten 1989ko Sozietate Anonimoei buruzko Legearen 129. artikuluan jasotako aurreikuspenen ondorioz – gaur egun, Kapital Sozietateei buruzko Legearen 234. artikulua –, artikulua horrek sozietate-administratzaileei esleitzen baitie sozietatea hirugarrenekin lotzeko ahalmen indargabetzezina, haien jardura Merkataritza Erregistroan inskribatutako estatutu-objektu gisa finkatutako jardueraren barruan edo hortik kanpo gauzatu arren, hargatik eragotzi gabe estatutu-xedea urratzea aurkaratu ahal izatea fede onez eta erru larririk gabe jardun ez dutenen aurka. Azaldutakoa ez da oztopo izanen xede sozialaren erreserbarako; izan ere, horren bidez legegileak eskatzen du betekizun jakin batzuk betetzen dituzten sozietateek ezin izanen dutela besterik egin xede estatutario gisa jardura jakin batzuk garatzea –horien artean «xede sozial eskusiboa» izan dezaketenak–, eta jardura-erreserbarako, zeinaren bidez zenbait jardura ezaugarri jakin batzuk betetzen dituzten konpainiek erregulartasunez antola ditzaketen eta, batzuetan, bi irizpide horiek konbinatzen dituen xede sozial bakarreko sozietateak eta legez erreserbatutako jarduerak sortzeko”.

Azaldutako guztiagatik, Instituto Navarro de Inversiones, S.L. sozietatearen Administrazio Kontseiluak, sozietatearen xedea osatzen duten jarduerak betetzeko, mota guztietako azterlanak, analisiak eta edozein dokumentazio egitea zuzenbidearen araberakoa da.

SEIGARRENA.- 111. orrialdea (5.12. atala, Sozietate Publikoak eta Fundazio Publikoak)

Txostenaren zirriborroan honako hau xedatzen da:

Sodenako 2023ko ekitaldiko urteko kontuetan kreditu horiek agertzen jarraitzen dute, eta ez

da kontabilizatu haien balio-zuzenketa; beraz, uste dugu kontu horietan ageri den ondaregarbia gutxietsita egonen litzatekeela, gutxienez 22,51 milioitan.

Baieztapen horri dagokionez, ez gatoz bat guztiz, eta CPENek eta SODENAK SODENAK PARQUE-NASARI egindako finantza-ekarpenei buruz Nafarroako Kontuen Ganberak 2023ko azaroan egindako behin-behineko txostenaren aurka elkarrekin aurkeztutako alegazioei eusten gatzazkie.

Iruñean, 2024ko azaroaren 20an

Sin.: Francisco Fernández Nistal

Zuzendari nagusia

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENA DELA-ETA AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, lan honen emaitzen berri eman zitzaizen Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariari, alegazioak aurkez zitzan.

Alegazioak aurkeztu dituzte, Kontuen Ganberak ezarritako epean, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiak, Osasun Departamentuko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak eta Corporación Pública Empresarial de Navarra S.L.U. Sozietateak (aurrerantzean CPEN). Aurkeztutako alegazioak behin-behineko txostenari eransten zaizkio, eta hori behin betikotzat hartzen da. Hala ere, horietako batzuk aztertu ondoren, txostenaren gorputzean adierazten den bezala, Ganbera honek honako alderdi hauek adierazi nahi ditu:

- Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiak aurkeztutako alegazioei dagokienez:

- Oro har egindako alegazioari dagokionez, lehenik eta behin adierazten dugu Nafarroako Kontuen Ganberaren abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 9. artikulua Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren legezketasun-kontrola fiskalizatzeko eskumena ematen digula, eta ikuskatutako erakundeen finantza-jarduera indarrean dagoen ordenamendu juridikoari egokitzen zaion aztertea duela helburu. Funtzio hori logikoki beste instantzia juridiko eta jurisdikzional batzuei kalterik egin gabe betetzen da.

Eskumen hori betearazteari dagokionez, adierazi behar dugu "IV. Gure iritziaren oinarria" paragrafoan jasota dagoen bezala, legezketasuna betetzeari buruzko fiskalizazioei buruzko ISSI-ES 400 arauaren eta kanpo-kontrolako organoen Fiskalizazio Gida Praktikoaren arabera egiten dugula gure fiskalizazioa.

Arau horien indarrez ditugun erantzukizunak aurrerago deskribatzen dira, IX. Kontuen Ganberaren erantzukizunak paragrafoan, gure txostenean egiten den kontu orokorreari eta legeria betetzeari buruzko fiskalizazioari dagokionez. Ondorioz, paragrafo horretan adierazten dugun bezala, gure ondorioak ebidentzia nahikoetan oinarrituta daude, sektore publikoari aplikagarri zaizkion auditoretza-printzipioek eta -arauak eskatzen dituzten bezala.

Era berean, gure fiskalizazioaren helburua da, besteak beste, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren jarduera hobetzeko gomendioak egitea.

- Lehen alegazioa esleipenerako irizpide objektiboen haztapen desberdinari buruzkoa da, eta kontratazio publikoaren ataleko gomendioetako lehenengoan jasotzen da.

- Bigarren alegazioa, Auzitegi Gorenaren epaiari buruzkoa, eta balorazio ekonomikorako formulak buruz irekitzen den eszenatoki berria, berriaz, atal horretako behin betiko txostenean eta laugarren gomendioan jaso da, ondorengo egitate gisa.

- Hirugarren alegazioari dagokionez, gure gomendioa mota horretako espedienteen kudeaketa hobetzea da, inolako lege-urratzerik ez dagoela ulertu gabe.

- Laugarren alegazioari dagokionez, 2. gutun-azala erabiltzeari buruzkoa ("Belateko tunelaren bikoizketa, txostenaren 6. gehigarrian garatzen duguna), Ganbera honek ez ditu zalantzan jartzen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan kontratazio publikorako lizitazio elektronikorako tresnak eskaintzen dituen bermeak. Hala ere, berresten dugu horrelako egoerak saihestu behar direla.

- Bosgarren alegazioari dagokionez (txosteneko 120. orrialdean aurrekontu-ekitaldian atzemandako erroreari buruzkoa), okerra zuzendu eta behin betiko txostenean behar bezala jaso dugu.

- Seigarren alegazioari dagokionez (esleipenean atzeratutako egunak kalkulatzeko metodoa ez jakiteari buruzkoa), adierazten dugu Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 100. artikuluan ezarritakoaren arabera kalkulatu dela.

Artikulu horrek ezartzen du kontratazio organoak hilabeteko gehieneko epean adjudikatuko du kontratua eskaintza ekonomikoa irekitzeko ekitalditik hasita, non ez den beste epe bat ezarri agiritan. Baldintza-agiriez ez zuten ezarri artikulu horrek eskatzen duenaz bestelako eperik.

Kontuan hartuta eskaintza ekonomikoa irekitzeko ekitaldia, aktan jasota dagoenez, 2023ko irailaren 6an izan zela, eta kontratua 2023ko abenduaren 26an esleitu zela, igarotako epea 111 egunekoa izan da, hau da, 80 eguneko atzerapena, txostenean adierazi dugun bezala.

- CPENek aurkeztutako alegazioei dagokienez:

- Lehenengo alegazioari dagokionez, merkataritza-araudiaren arabera enpresa-taldearen emaitza bateratuaren eta gure txostenean azaldutako datuen arteko aldearen azalpena behar bezala azalduta dago txostenaren 99. orrialdean.

- Bigarren alegazioari dagokionez (Bidean sozietate publikoko langileei buruzkoa), txosteneko datua zuzena da; izan ere, 2023ko abenduaren 31n, sozietate horretan kudeatzaile bakarra zuen, urteko kontuetan agertzen denez.

- Hirugarren alegazioari dagokionez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeari egiten zaion aipamena zuzena izan arren, erabili den terminoa urteko kontuetan islatutakoa da, hau da, dirulaguntzarena, Kontabilitate Plan Orokorraren arabera.

- INI eta Sodena sozietate publikoei buruzko laugarren eta bosgarren alegazioei dagokienez, Ganbera honek berretsi egiten du bi sozietate publikoen helburu soziala bikoiztuta dagoela, eta egoera hori saihestu egin beharko litzatekeela.

- Parquenasari emandako kredituei buruzko seigarren alegazioari dagokionez, berriro diogu, CPENek adierazten duen txostenean adierazi genuen bezala, kreditu horiek, ganbera honen iritziz, hondatu egin beharko liratekeela. Testuinguru horretan, berriro diogu kreditu horien kontabilitate-balorazioa Sodenako urteko kontuetan kontabilitate-esparru desegokian oinarritzen dela.

Iruñean, 2024ko azaroaren 25ean

Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

